



2006ko otsailak 24 ostirala  
38 Zenbakia

Viernes 24 de febrero de 2006  
Número 38

## LABURPENA — SUMARIO

|   | <i>Orrialdea</i>                                    |   | <i>Página</i>                                 |       |
|---|---|---|---|-------|
| 4 | Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa..... | 4 | Administración del T.H. de Gipuzkoa.....      | 4.693 |
| 5 | Estatuko Administrazioa .....                       | 5 | Administración del Estado .....               | 4.735 |
| 6 | Autonomia Erkidegoko Administrazioa .....           | 6 | Administración de la Comunidad Autónoma ..... | 4.748 |
| 7 | Udal Administrazioa .....                           | 7 | Administración Municipal .....                | 4.780 |
| 8 | Justizia Administrazioa .....                       | 8 | Administración de Justicia .....              | 4.834 |

4

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

4

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

#### BERRIKUNTZARAKO ETA JAKINTZAREN GIZARTERAKO DEPARTAMENTUA

*2/2005 zk kontratuaren esleipen iragarkia*

1. *Kontratu esleitu duen erakundea:*

a) Erakundea: Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua.

b) Espedientea izapidatzen duen bulegoa: Idazkaritza Teknikoa.

c) Espediente zenbakia: 2/2005.

2. *Kontratuaren xedea:*

a) Kontratu mota: Aholkularitza eta laguntzako.

b) Xedearen azalpena: Gipuzkoan negozioko turismorako baliabideen gida bat prestatzea ingelesez, frantsesez eta gaztelaraz.

c) Loteak: Ez.

d) Argitaratutako aldizkaria eta eguna: 2005ko azaroaren 28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 225 zk.

### DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

#### DEPARTAMENTO PARA LA INNOVACION Y LA SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO

*Anuncio de adjudicación de contrato n.º 2/2005*

1. *Entidad adjudicadora:*

a) Organismo: Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento.

b) Dependencia que tramita el expediente: Secretaría Técnica.

c) Número de expediente: 2/2005.

2. *Objeto del contrato:*

a) Tipo de contrato: De consultoría y asistencia.

b) Descripción del objeto: Elaboración de una guía de recursos para el turismo de negocios en Gipuzkoa en inglés, francés y castellano.

c) Lotes: No.

d) Boletín y fecha de publicación: BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 225 de 28 de noviembre de 2005.

3. *Esleitzeko tramitazioa, prozedura eta modua:*
- Tramitazioa: Arrunta.
  - Prozedura: Irekia.
  - Modua: Lehiaketa.
4. *Enkantearen oinarritzko aurrekontua:*  
Zenbatekoa guztira: 59.000 euro.
5. *Esleipena:*
- Eguna: 2005ko abenduaren 29a.
  - Kontratuduna: Azafatan Alkartea Lankor S.L.
  - Esleipenaren zenbatekoa: 15.280 euro, BEZa barne.
- Donostia, 2006ko otsailaren 20a.—Iñigo Oliveros, idazkari teknikoa.
- (565) (1862)

*1/2005 zk kontratuaren esleipen iragarkia*

1. *Kontratu esleitu duen erakundea:*
- Erakundea: Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua.
  - Espedientea izapidatzen duen bulegoa: Idazkaritza Teknikoa.
  - Espediente zenbakia: 1/2005.
2. *Kontratuaren xedea:*
- Kontratu mota: Zerbitzuetakoa.
  - Xedearen azalpena: Herri telebistetan Internet eta Informazioaren Gizarteari buruzko mikroespazioak sortu eta zabalkundea emateko zerbitzuak eskaintzea.
  - Loteak:
    - sorta - Telebistan emateko mikroespazioak ekoiztea. >
    - sorta - Gipuzkoako herri telebistetan bitartekoak planifikatzeko proposamena.
    - Argitaratutako aldizkaria eta eguna: 2005ko azaroaren 23ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 222 zk.
3. *Esleitzeko tramitazioa, prozedura eta modua:*
- Tramitazioa: Arrunta.
  - Prozedura: Irekia.
  - Modua: Lehiaketa.
4. *Enkantearen oinarritzko aurrekontua:*
- sorta - 22.000 € BEZa barne.
  - sorta - 48.000 € BEZa barne.
5. *Esleipena:*
- Eguna: 2005eko abenduaren 30a.
  - Kontratuduna:
    - sorta - Euskal Comtv S.L.
    - sorta - Zosmamedia S.A.
  - Esleipenaren zenbatekoa:
    - sorta - 20.416,00 € BEZa barne.
    - sorta - 47.991,04 € BEZa barne.
- Donostia, 2006ko otsailaren 20a.—Iñigo Oliveros, idazkari teknikoa.
- (565) (1863)

3. *Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación:*
- Tramitación: Ordinaria.
  - Procedimiento: Abierto.
  - Forma de adjudicación: Concurso.
4. *Presupuesto base de licitación:*  
Importe total: 59.000 euros.
5. *Adjudicación:*
- Fecha: 29 de diciembre de 2005.
  - Contratista: Azafatan Alkartea Lankor S.L.
  - Importe de adjudicación: 15.280 euros, IVA incluido.
- Donostia-San Sebastián, a 20 de febrero de 2006.—El secretario técnico, Iñigo Oliveros.
- (565) (1862)

*Anuncio de adjudicación de contrato n.º 1/2005*

1. *Entidad adjudicadora:*
- Organismo: Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento.
  - Dependencia que tramita el expediente: Secretaría Técnica.
  - Número de expediente: 1/2005.
2. *Objeto del contrato:*
- Tipo de contrato: De servicios.
  - Descripción del objeto: La prestación de los servicios para creación y difusión a través de las televisiones locales de microespacios sobre Internet y la Sociedad de la Información.
  - Lotes:
    - Lote 1 - Producción de los microespacios para emisión en televisión.
    - Lote 2 - Propuesta de planificación de medios en televisiones locales de Gipuzkoa.
- d) Boletín y fecha de publicación: BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 222 de 23 de noviembre de 2005.
3. *Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación:*
- Tramitación: Ordinaria.
  - Procedimiento: Abierto.
  - Forma de adjudicación: Concurso.
4. *Presupuesto base de licitación:*
- Lote 1: 22.000 € IVA incluido.  
Lote 2: 48.000 € IVA incluido.
5. *Adjudicación:*
- Fecha: 30 de diciembre de 2005.
  - Contratista:
    - Lote 1: Euskal Comtv S.L.
    - Lote 2: Zosmamedia S.A.
  - Importe de adjudicación:
    - Lote 1: 20.416,00 € IVA incluido.
    - Lote 2: 47.991,04 € IVA incluido.
- Donostia-San Sebastián, a 20 de febrero de 2006.—El secretario técnico, Iñigo Oliveros.
- (565) (1863)

## LURRALDE ANTOLAKETA ETA SUSTAPENERAKO DEPARTAMENTUA

### Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia

*Amezketako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena.  
(GHI-096/05-P05).*

Diputatuen Kontseiluak, 2005eko azaroaren 22ko batzaraldian, erabaki bat hartu zuen eta horren edukina ematen da ondoren argitara:

«Udal fasea bukatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundira bidali dute Amezketako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena, behin betiko onartzeko.

Izendapenak berak adierazten duen bezala, dokumentuaren helburua da 1985eko azaroaren 21ean behin betiko onartu eta indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauak berrikustea.

Espediente hori irekitzearen arrazoiak honako hauek dira: Indarrean dagoen dokumentua lur eremuaren lege berriaren ezaugarritako marko juridiko berrira egokitu behar dela, lurraldea antolatzeko hainbat tresna sortu direla, batzuk dagoeneko onartutakoak eta beste batzuk tramitazio fasean, eta, azkenik, indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauetan jasotako hirigintza aurreikuspen gehienak gauzatu direla. Alderdi horien eraginez hasi zen bere garaian orain bukatu nahi den berrikuspen prozesua.

Berrikuspen proiektu hori planteatzen da nagusiki Ola auzoaren eta Ergoiene Kotxeta area hiritarraren artean dagoen eremua hiri multzo bihurtuko lukeen esku hartze gisa, helburu hori Jauregiko etxegune garapenari buruzko proposamen garrantzitsuari esker lortuko bailitzateke, eta industriarako aurreikusita dauden bi alorren bitartez Ola Auzoa eta Zubillaga eremuen arteko hutsunea beteko lukeen esku hartze gisa.

Aurreko proposamen hori gauzatzeko egin den Hiri Antolaketako Arauen proiektuak, egungo hirigintza garapenak hartzen dituen lur eremuen barruko 23,66 hektareako lur eremu hiritarra edo, bestela, indarrean dagoen plangintzan dagoeneko kalifikatuta dauden lur eremuak hartzeaz gain, 11,11 hektareako lursaila proposatzen du lur eremu hiritargarri gisa, eta horietatik 3,5 ha bat datoz lehengo 19. Areari dagokion lur eremuarekin.

Dokumentuan dauden proposamenei dagokienez adierazi behar da, lehendabizi, Komunikabideen Sare Orokorren barruan GI-2133 errepidearen saihebidetaren baten trazatua sartzen dutela arauak aurreikuspen nagusi bezala, izan ere, saihebidetaren horrek aukera emango luke Papelera de Aralar enpresan sortzen den trafikoa herrigunearen artean bideratzeko, Jauregi etxegune berriaren parean. Trazatu hori (700 m inguru) herrigunera sartzeko egungo bidearen ondoko errotondan hasten da, gero bat egiten du erdibidean «GI-3175 Abaltzisketa» errepidearekin eta herria bi «auzotan» banatzen duen paper fabrikaren hasieran amaitzen da, herriaren erdian. Aipatutako bide lan horiez gain, arau proiektu horrek Ola auzoan beste errotonda bat egiteko proposamena jasotzen du eta errotonda horren bidez Zubillaga eta Ola auzoen artean dauden industriarako bi lur eremu hiritargarriko alorretara sartu ahal izango da.

Amezketako herriaren barruko etxeguneei dagokienez, Zubillaga auzoaren eta San Bartolome elizaren arteko egungo zeharbidea osatzen duen ardatzean kokatutako bi terreno multzo handitan daude. Guztira sei hirigintzako esku hartze area daude: Ergoene Kotxeta 1. HEHA, Hirigunea 3.HEHA, Larraitz Bidea 4 HEHA, Alegiko Bidea 6.HEHA, Jauregi –lur eremu hiritargarri– 7.HEHA eta Insausti-Zubillaga Auzoa 8. HEHA.

## DEPARTAMENTO PARA LA ORDENACION Y PROMOCION TERRITORIAL

### Dirección General de Ordenación Territorial

*Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Amezketeta. (GHI-096/05-P05).*

El Consejo de Diputados en sesión de 22 de noviembre de 2005, adoptó el acuerdo cuyo contenido a continuación se publica:

«Concluida la fase municipal, ha sido remitido a esta Diputación Foral para su aprobación definitiva el expediente de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Amezketeta.

Como se deduce de su misma denominación, el documento remitido tiene por objeto la revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento actualmente vigentes y que fueron aprobadas definitivamente el 21 de noviembre de 1985.

El expediente se justifica en la conveniencia de adecuar el actual documento urbanístico al nuevo marco jurídico establecido en la reciente legislación del suelo, en la aparición de diversos instrumentos de ordenación territorial, algunos aprobados y otros en fase de tramitación, así como en la constatación de la ejecución de la mayor parte de las previsiones urbanísticas contenidas en las Normas Subsidiarias vigentes, cuestiones todas ellas que motivaron en su momento el inicio del proceso de revisión que ahora pretende culminarse.

El proyecto de Revisión se plantea fundamentalmente como una intervención decididamente dirigida a la transformación como un continuo urbano del ámbito espacial comprendido entre Ola Auzoa y el área urbana de Ergoiene Kotxeta, lo que se conseguiría gracias a la importante propuesta de desarrollo residencial de Jauregi, y a la colmatación mediante los dos sectores industriales previstos, del vacío existente entre los ámbitos de Ola Auzoa y Zubillaga.

Lo anterior se concreta en un proyecto de Normas Subsidiarias que además de recoger como Suelo Urbano 23,66 has pertenecientes a suelos ocupados por el actual desarrollo urbanístico, o en su defecto a suelos ya calificados en el planeamiento vigente, propone como Suelo Urbanizable 11,11 has, de las cuales 3,5 has se corresponden con suelo perteneciente a la antigua área 19.

En cuanto a las distintas propuestas contenidas en el documento, indicar en primer lugar que dentro de la Red General de Comunicaciones, las Normas introducen como previsión fundamental el trazado de una variante de la GI-2133, que posibilita mayormente la reconducción de los tráfico de la Papelera de Aralar hasta la salida del núcleo urbano, a la altura de la nueva zona residencial de Jauregi. Dicho trazado, de apenas 700 m, se inicia con una rotonda a un lado de la actual carretera de acceso al núcleo, para enlazar a mitad de su recorrido con la GI-3175 a Abaltzisketa, y finalizar al comienzo de la Papelera que se ubica en el centro del pueblo, separando a éste en dos «barrios residenciales». Además de la actuación viaria reseñada, el proyecto de Normas plantea la construcción de una segunda rotonda a la altura de Ola Auzoa, cuyo objeto habrá de ser el de servir de acceso a los dos sectores de suelo urbanizable industrial dispuestos entre Zubillaga Auzoa y aquíel.

En cuanto a las zonas residenciales dentro del núcleo de Amezketeta, éstas quedan dispuestas básicamente en dos grandes paquetes de suelo localizados a lo largo del eje que conforma la actual travesía entre Zubillaga y la Iglesia de San Bartolomé, distinguiéndose en total seis áreas de intervención urbanística AIU.1. Ergoene Kotxeta, AIU.3. Hirigunea, AIU.4. Larraitz Bidea, AIU.6. Alegiko Bidea, AIU.7. Jauregi –suelo urbanizable–, AIU 8. Insausti-Zubillaga Auzoa.

Planak aurreikusitakoaren arabera honako jarduketa eraiki-garri hauek egingo dira, Ugarte auzokoak barne: Guztira 265 etxebizitza berri, horietatik 50 babes publikoko motaren batekoak izango direnak, kopuru horretan sartu gabe herriguneko gaur egungo higiezinak ordezkatzeko ezarritako arautegi orokorrak ekar ditzakeen gehikuntzak.

265 etxebizitza horietatik 43 Ugarteko aipatu gunean daude aurreikusita, 91 Jauregiko etxegune alorrean eta, gainerakoak, 1, 3 eta 4. areetan, batez ere.

Tipologia aldetik, %40 dentsitate gutxiko etxebizitzak dira, familia bakarreko etxebizitza bakarrak edo elkarri atxikiak, eta erregimen librearen barruan daude; gainerakoak, berriz, etxebizitza kolektiboko eraikinetan kokatzen dira.

Industria erabilerei dagokienez, oraindik garatu gabe dagoen 19. Zona mugatu nahi da berriro (orain 9.1 Alorra) eta, halaber, 2,5 ha inguruko 9.2 alor berria egin nahi da beste-aren jarraian. Bi alor horiek lotuta geldituko dira sarbide bakar baten bitartez, hau da, 9.2 Alorraren barruko Ola auzoan egingo den biribilgunearen bitartez. Horrela, alor hori gauzatu ondoren, 9.1 alorrerako sarbidea 9.2 alorraren barneko bideari jarraituz egingo da eta, horrek, egungo 19. zonaren zerbitzurako aurreikusitako sarrera itxia ekarriko du, besteak beste.

Gizarte Ekipamenduari dagokionez, arauk egungo eraiki-nak eta instalazioak jasotzen dituzte aipatu bi guneetan, udal-atea, frontoia, San Bartolome eliza, hilerria eta eskolak gune nagusian, eta frontoia, sozietatea eta eliza Ugarte auzoan. Ekipamendu horiez gain, beste ekipamendu batzuetarako gorde diren lurzatiak ere jasotzen dituzte arauk, lurzati bat udaletxe-aren atzealdean eta hiru gehiago lur eremu hiritarrezin gisa sailkatutako terrenoetan, hain zuzen ere, etxebizitzetarako aurreikusitako 7. Arean (Jauregi) eta industriarako xedatutako 9.2 Arean (Ola auzoa).

Sistema Orokorrekoak diren Espazio Libre eta Berdeguneei dagokienez, dokumentuak F. Amezketarraren plaza (2.635 m<sup>2</sup>) jasotzeaz gain, San Martin auzoan (lur eremu hiritarrezinoko 3 ha) dagoen zelaia eta industriarako 9.1 alor berrian kokatutako 5.819 m<sup>2</sup>-ko erreserba ere jasotzen ditu. Toki horiek, bestalde, izaera lokaleko terrenoekin, egun daudenekin edo sortuko direnekin, osatzen dira, batez ere Hirigunea 3. Arean, Ergoene Kotxeta 1. Arean eta 9.1 Alorrean, kokatutako beste lursail batzuekin.

Azpiegitura eta Zerbitzuen Sare Orokorrei dagokienez, saneamendu sareak sortzen dituen arazoak konpondu nahi dira, sare hori egoera txarrean baitago eta ur zikinak garbitu gabe botatzen baitira zuzenean Amezketara ibaira. Horretarako, bi kolektore nagusi jarri nahi dira, herri osotik pasatuko lirakeenak gune horretako eraikinetako isurketak jasoz. Halaber, udal-errian dauden gainerako sareak hobetzeko asmoz, dokumentuan azpimarratzen da beharrezkoa dela eraikin berrietarako jarriko diren trazatu berriak lurperatzea (argindarra, komunikabideak).

Lur eremu hiritarrezina antolatzeako irizpide bezala, dokumentuak ingurune fisikoaren babes orokorraren aldeko proposamena defendatzen du. Arlo horren barruan eremua antolatzeko hiru kategoría handi bereizten dira, batzuk beste kategoría batzuetan azpibanatuta (Babesguneak –akuiferoak, area higagarriak eta lur gaineko urak–; Produkzio Handikotzat hartutako guneak –balio estrategikoko handiko nekazaritza eta abeltzaintza gunea, trantsizioko landa paisajea, ibarrak eta basoak–; eta Aralarko Parke Naturala). Laburtuta, esan dezakegu eraikin berrien mota batzuk Trantsizioko Landa Paisaje gisa kalifikatu-

Las actuaciones edificatorias residenciales previstas en el plan, incluidas las correspondientes al barrio de Ugarte, suman un total aproximado de 265 nuevas viviendas, de las cuales 50 serían viviendas sujetas a algún tipo de protección pública sin incluir en aquella cifra los posibles incrementos derivados de la normativa general establecida para regular la sustitución de inmuebles hoy en día existentes en el núcleo urbano.

De dicho total de 265 viviendas, 43 se localizan en el citado núcleo de Ugarte, 91 están previstas en el sector residencial de Jauregi, y el resto se localizan fundamentalmente en las áreas 1, 3, y 4.

Tipológicamente, cerca del 40% se corresponden con viviendas de baja densidad, unifamiliares aisladas o adosadas, todas ellas en régimen libre, mientras el resto se localizan en edificios de vivienda colectiva.

Con respecto a usos industriales, se propone la redelimitación de la vigente zona 19, aún pendiente de desarrollo y ahora denominada sector 9.1, a la vez que plantean en continuidad con ésta un nuevo sector 9.2. de cerca de 2,5 has. Ambos sectores quedan coordinados mediante el acceso común previsto a través de la glorieta a construir en Ola Auzoa, dentro del sector 9.2, de tal forma que una vez sea ejecutado éste, el acceso al primero se realizará continuando el viario interno del 9.2, lo que conllevará entre otras cuestiones el cierre del acceso previsto inicialmente al servicio de la vigente zona 19.

Con referencia al Equipamiento Comunitario, las Normas, además de los edificios e instalaciones existentes en ambos núcleos, Casa Consistorial, Frontón, Iglesia de San Bartolomé, Cementerio, y Escuelas, en el núcleo principal; y Frontón, Sociedad e Iglesia, en Ugarte, prevé otra serie de parcelas reservadas a la implantación de nuevos equipamientos, una en la traseña del actual Ayuntamiento, y tres más dentro de los suelos urbanizables residencial Area 7. Jauregi e industrial Ola Auzoa 9.2 previstos.

En cuanto a los Espacios Libres y Zonas Verdes con rango de sistema general, el documento recoge además de F. Amezketarren Plaza (2.635 m<sup>2</sup>), la campa existente ubicada en San Martín Auzoa (3 has de suelo no urbanizable), y una reserva de 5.819 m<sup>2</sup> que queda localizada dentro del nuevo sector industrial 9.1. Dichos enclaves por su parte se ven complementados con otros de carácter local, existentes y de nueva creación, dispuestos fundamentalmente en las áreas 3. Hirigunea, 1. Ergoene Kotxeta y Sector 9.1.

Respecto a las Redes Generales de Infraestructuras y Servicios, el expediente plantea resolver la problemática que afecta a la red de saneamiento, precaria y con vertidos directos sin depuración al río Amezketara, mediante la disposición de dos colectores principales que recorrerían el continuo urbano recogiendo todos los vertidos procedentes de las construcciones localizadas en dicho espacio. Asimismo plantea el documento la conveniencia de mejorar el resto de redes existentes en el municipio, haciendo hincapié en la necesidad de soterrar los nuevos trazados que hayan de ejecutarse en apoyo a las nuevas construcciones previstas (electricidad, comunicaciones).

Como criterio para la ordenación del Suelo No Urbanizable el documento aboga por una protección genérica del medio físico, distinguiendo a este respecto tres grandes categorías de ordenación, algunas de ellas a su vez subdivididas en otras varias (Zonas de Protección –acuíferos, áreas erosionables, y aguas superficiales–; Zonas de Alta Vocación Productiva –agroganadera de alto valor estratégico, paisaje rural de transición, vegas, y forestal–; y Parque Natural de Aralar). En síntesis, cabe decir que la construcción de determinado tipo de nuevas edificaciones (construcciones ligadas a la explotación agrope-



tako gunean bakarrik eraiki ahal izango direla (nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari eta basoari lotutako eraikinak, landa gunean kokatu behar diren erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinak, etab.).

Azkenik, berrikuspen proiektuak ondare aldetik interesa duten eraikinen eta ustezko gune arkeologikoen zerranda jasotzen du Katalogo gisa, dagokien babes arautegia eta guzti.

Udal faseko tramitazioari dagokionez, Aurrerapena tramitatu ondoren, hasierako onarpena eman zitzaion Hiri Antolaketako Arauen dokumentuari 2003ko maiatzaren 2an, eta jendaurrean erakutsitako epean bost alegazio idatzi jaso ziren. Dokumentu berri bat egin ondoren, 2005eko ekainaren 29ko Udal Batzarrak onartu zuen eta dokumentua berriro jendaurrean erakusteko tramitearen barruan hogeita hiru alegazio jaso ziren.

Egin beharreko informeak egin ondoren, 2005eko apirilaren 28ko Udal Batzarrak erabaki zuen, alde batetik, aurkeztutako alegazioen zati batzuk erabakitzea eta, bestaldetik, egokitzapenak eta aldaketak sartzen zituen 2005eko apirileko dokumentuari behin-behineko onarpena ematea.

Espedientea behin betiko onartzeko Foru Aldundian jaso ondoren, Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordeak, 2005eko urriaren 20an eginiko 3/2005 bileran, honako erabaki hau hartu zuen:

«I. Amezketako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen espedientean aurreikusitako lurralde ereduari buruzko iritzia ematea, maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak, Euskadiko Lurralde Antolamenduari buruzkoak, eta uztailaren 16ko 5/1993 Legeak, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta Lurralde Historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzko legea aldatzekoak, ezarritako ondorengo xedapenak aintzat hartuz:

A) Lurraldea antolatzeko tresnak egokitzea.

I. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Jarraibideak.

a) Kontuan hartuta Berrikuspen dokumentuak indarrean dagoen aldirako aurreikusten duen etxebizitza kopuruak gainditu egiten duela aipatu Lurralde Antolaketako Jarraibideek Lurralde Plan Partzialak onartu arte ezarritako irizpideak aplikatu ondoren ateratzen den kopurua, eta ikusirik beharrezkoa dela egungo lurraldearen okupazioa optimizatzea herrian gaur egun dagoen lur erabilgarri eskasa ez betetzeko eta, ondorioz, garapen iraunkorra bermatzeko, espedientea onartzeko baldintza bat jartzen da: Berrikuspen dokumentuan aurreikusitako etxebizitza kopurua egokitzea, ez ditzan 190 etxebizitza gainditu.

Ikusita etxebizitza kopuru handiegia proposatu dela, ondorengo eremuetan etxebizitza gutxiago egitea iradokitzen diogu udalari:

1. Ugarte 7. Hirigintzako Esku Hartze Arean: Egiten duen gunearen garapena ikusita, gutxitu egin behar dira eraikitzeko aukerak eta ez utzi egun dauden etxebizitzak baino gehiago eraikitzen.

2. Jauregi 10. Hirigintzako Esku Hartze Alorraren lurralde hedapena gehiegizkotzat hartzen da, izan ere, dentsitate handiagoko garapena aurreikusi beharko litzateke dokumentuan, aprobetxamendu eta lurralde okupazio gutxiagorekin eta Amezketako gune nagusiari jarraituz.

b) Kontuan hartuta nekazaritza-abeltzaintzako ustiapen batean, etxebizitza erabilerarako eraikina duen batean, ezin dela etxebizitza berririk egin jatorrizko ustiapenaren eremuaren

cuaria y forestal, edificaciones de utilidad pública e interés social que deban emplazarse en el medio rural, etc.) sólo resulta posible en la zona calificada como de Paisaje Rural de Transición.

Por último, el proyecto de Revisión incorpora un listado de edificios de interés patrimonial, y zonas de presunción arqueológica, a modo de Catálogo, con su correspondiente normativa de protección.

En cuanto a su tramitación en la fase municipal, previa la formulación del Avance, el documento de Normas Subsidiarias fue aprobado inicialmente el 22 de mayo de 2003, presentándose cinco escritos de alegaciones durante el período de información pública. Elaborado un nuevo documento fue aprobado en sesión plenaria de 29 de junio de 2005 presentándose veintitrés escritos de alegaciones durante el nuevo período de información pública.

Emitidos los informes pertinentes, en sesión plenaria celebrada el 28 de abril de 2005 se acordó resolver parcialmente las alegaciones presentadas y aprobar provisionalmente el documento de abril 2005 que introduce reajustes y modificaciones.

A su vez, sometido el plan a aprobación definitiva, la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en sesión 3/2005, celebrada el 20 de octubre de 2005 ha adoptado acuerdo en los siguientes términos.

«I. Informar el Modelo Territorial planteado por el expediente de Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal del municipio de Amezketeta, de conformidad con lo establecido en la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco y en la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos:

A) Adecuación a los Instrumentos de Ordenación Territorial.

I. Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

a) Teniendo en cuenta que el documento de Revisión prevé una cuantificación residencial para el período de vigencia que supera la capacidad máxima que resulta de la aplicación de los criterios establecidos por las D.O.T. hasta la aprobación de los Planes Territoriales Parciales y considerando la necesidad de optimizar la ocupación del territorio existente, evitando la colmatación del escaso suelo disponible en aras a garantizar la consecución de un desarrollo sostenible, se condiciona la aprobación del expediente a que el documento de Revisión ajuste la capacidad residencial prevista en el mismo de forma que no se supere la cifra de 190 viviendas.

A la vista del exceso de capacidad residencial planteado se sugiere la reducción de la capacidad residencial en los siguientes ámbitos:

1. En el área A.I.U. 7 Ugarte en cuanto que plantea un desarrollo del núcleo que debiera de reducir sus posibilidades edificatorias a permitir en el mismo un número de viviendas no superior al de las viviendas existentes.

2. La expansión territorial del Sector A.I.U. 10 Jauregi se estima excesiva, en este sentido el documento debiera de ir a un desarrollo de mayor densidad, de menor aprovechamiento y ocupación territorial, y contiguo al núcleo principal de Amezketeta.

b) Considerándose que una explotación agropecuaria en la cual ya existe una edificación que contiene el uso residencial no puede dar lugar a nuevas edificaciones residenciales ubica-

barruan, espedienteak bere arautegian ezarri behar du lur eremu hiritarrezinean etxebizitzetarako eraikin berriak egiteko baimena eman ahal izango dela baldin eta eraiki nahi den etxebizitza nekazaritza-abeltzaintzako ustiapenari era autonomoan lotuta badago.

Hori horrela bada ere, administrazioen artean dauden interpretazio ezberdinei begiratuz, bertan behera uzten da aurreko paragrafoan aipatzen den derrigorrezko aplikazioa, administrazioen arteko adostasuna lor dadin eta legeriaren edo Lurralde Antolaketako Jarraibideen definizio hobea egin dadin.

c) Lur eremu hiritarrezinean proposatutako zona banaketa Lurralde Antolaketako Jarraibideetan ezarritako kategorietara egokitu behar da. Arlo horretan, «Trantsizioko landa paisaia» eta «Ibarrak» bezala zehaztutako kategoriak ondoko kategorია hauetako baten barruan sartu behar dira: «Nekazaritza eta abeltzaintzako alderdia eta landazabala –Trantsizioko Landa Paisaia» eta «Nekazaritza eta abeltzaintzako alderdia eta landazabala– Ibarrak» kategorien barruan.

II. Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreka ertzak antolatzeko Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana (Kantauri isurialdea).

Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreka ertzak antolatzeko lurraldearen antolamendurako arloko planera (Kantauri isurialdea) egokitu behar da ondorengo eran:

— Aralarko Papelera 2. Hirigintzako Esku Hartze Area, 2.1 Jardun Unitatea.

Eraikin berrietatik Amezketara ibaira gutxienez 12,00 metroko tartea utzi behar da. Ubidearen gainean kokatutako eraikinak bota edo berriro eraiki nahi badira, egun dagoen estaldura kenduko da, hori agintzen baitu Alorreko Lurralde Planaren E.2.2 arauak (jarduketa hidraulikoei buruzko arautegi berezia).

— Hirigunea 3. HEHA-ko, 3.1, 3.2 eta 3.4 jardun unitateak; Alegiko Bidea 6. Area; Insausti-Zubillaga Auzoa 8. HEHA eta Ugarte 10. HEHA.

Alorreko Lurralde Planaren F.3.3 zenbakian ezarritakoa betez, finkatutako hiri sareen barruan (hirigunea) eraikin berriak egiteko baimena ematen badu plangintzak, eraikin berriek gorde beharreko ibaiarekiko tartea bat etor daitezke egungo eraikinen lerrokadurarekin, baldin eta Ur Legeak ezarritako zortasuna errespetatzen bada. 6.4. Jardun Unitatean, Amezketara ibaitik eraikin berrietara 12,00 metroko tartea utzi behar da gutxienez.

— Jauregi 7. HEHA eta Ola Auzoa 9. HEHA.

Arauetan ezarri behar da 12,00 metroko tartea gordeko dela eraikinetatik Amezketara ibaira eta 2,00 metrokoa urbanizaziotik, PP.7.1, PP.9.1 eta PP.9.2 alorreko planetan jaso beharreko xedapen izan daitezke. Halaber, «Jauregi» 7. Arean, antolaketak aukera eman behar du lurzattia zeharkatzen duen isurketa ura mantentzeko, Ur Legeak ezarritako zorguneak errespetatuta.

Azkenik, kontuan hartuta arauen berrikuspen dokumentuak berriro antolatuta behar dituen eremuetako batzuetan uholdeak gertatzeko arriskuaren barruan daudela, Eusko Jaurlaritzak egin duen Uholdeen Aurkako Plan Orokorrean jasotako datuen arabera, puntu hori kontuan hartu behar da eremuan aurreikusitako edozein esku hartze gauzatu aurretik, horrela ezarrita baitago Lurralde Antolaketako Jarraibideen xedapenetan (8. kapitulua, 6.8.8.5 apartatua), eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreka ertzak antolatzeko lurraldearen antolamendurako arloko planaren E.1.4 apartatuan.

das en la misma parcela objeto de la explotación de origen, el expediente deberá establecer en su normativa que la construcción de nuevas edificaciones residenciales en Suelo No Urbanizable únicamente podrá autorizarse si la vivienda a construir está vinculada de forma autónoma a una explotación agropecuaria.

No obstante lo anterior, atendiendo a diferencias interpretativas que mantenemos diversas administraciones, se suspende la aplicación vinculante de lo señalado en el párrafo anterior, en aras a un consenso interadministrativo y a una mejor definición legislativa o de las Directrices de Ordenación Territorial.

c) Deberá adecuarse la zonificación propuesta en el Suelo No Urbanizable, a las categorías establecidas en las Directrices de Ordenación Territorial. En este sentido las categorías definidas como «Paisaje rural de transición» y «De Vegas» deben encontrarse contenidas en alguna de las categorías establecidas, pudiendo ser «Agroganadera y Campiña- Paisaje Rural de Transición» y «Agroganadera y Campiña-Vegas».

II. Plan Territorial Sectorial de ordenación de márgenes de los ríos y arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Cantábrica).

El expediente deberá adecuarse al P.T.S. de Márgenes de Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Vertiente Cantábrica) en los términos siguientes:

— Area A.I.U. 2 Aralarko Papelera, U.E. 2.1.

Las nuevas edificaciones deberán respetar un retiro mínimo con respecto al río Amezketara de 12,00 metros. En caso de sustitución o reedificación de las construcciones ubicadas sobre el cauce, en cumplimiento de la norma E.2.2 del P.T.S. (Normativa específica sobre actuaciones hidráulicas) se eliminará la cobertura existente.

— Area A.I.U. 3 Hirigunea, U.E.3.1, U.E.3.2 y 3.4; Area 6 Alegiko Bidea; Area A.I.U. 8 Insausti-Zubillaga Auzoa y Area A.I.U. 10 Ugarte.

En los ámbitos insertados en tramas urbanas consolidadas (casco urbano), en cumplimiento del apartado F.3.3 del P.T.S., en los casos en que el planeamiento posibilite la ejecución de nueva edificación, los retiros de la misma podrán coincidir con la alineación de la edificación existente siempre que se respete la zona de servidumbre de paso establecida en la Ley de Aguas. En la U.E.6.4, la nueva edificación deberá respetar un retiro mínimo de 12,00 metros con respecto al cauce del río Amezketara.

— Areas A.I.U. 7 Jauregi y A.I.U. 9 Ola Auzoa.

Las Normas deberán establecer la necesidad de que se respeten unos retiros con respecto al río Amezketara de 12,00 metros para la edificación y de 2,00 metros para la urbanización, a efectos de que los mismos constituyan una determinación impuesta a los correspondientes Planes Parciales PP.7.1, PP.9.1 y PP.9.2. En el área A.I.U. 7 Jauregi, la ordenación deberá permitir el mantenimiento de la escorrentía que atraviesa la parcela, respetándose las servidumbres establecidas en la Ley de Aguas.

Finalmente, teniendo en cuenta que algunos de los ámbitos objeto de nueva ordenación por parte del documento de Revisión de Normas se encuentran en zonas inundables de acuerdo a los datos recogidos en el Plan Integral de Prevención de Inundaciones del Gobierno Vasco; este aspecto deberá tenerse en cuenta para cualquier intervención que se pretenda realizar en la misma, en cumplimiento de las determinaciones de las Directrices de Ordenación del Territorio (Capítulo 8, apartado 6.8.8.5), así como lo establecido en apartado E.1.4 del P.T.S. de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos.

Ildo horretan, Ur Zuzendaritzak urriaren 14an egindako txostenean eta I. Eranskin bezala ziurtagiri honekin batera doan txostenaren gorputzean jaso diren baldintzak ezarriko dira.

B) Jarduera ekonomikoetarako lur eremua.

Arauen dokumentuan egindako proposamena bat datorrenez indarrean dauden lurralde antolaketako tresnek (Jarduera Ekonomikoetako eta Merkataritza Ekipamenduen Alorreko Lurralde Planak) Amezketako udalerrirako proposatutako kategoria mailarekin, aldeko balorazioa ematen zaio proposamenari jarduera ekonomikoetarako xedatutako lur eremuari dagokionez».

Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiak txostena eskatu die Aldundian zerikusia duten departamentuei, eta Hiri Antolaketako Arauei buruzko beren iritzia agertu dute Bide Azpiegiturarako Departamentuak eta Diputatu Nagusiaren Kabineteko Kultura Zuzendaritza Nagusiak. Kulturako Zuzendaritzak proposatu du, alde batetik, babestu beharreko elementutzat hartzea «Papelera de Aralar enpresaren ataria» (San Bartolome kalea, 40) eta, bestaldetik, udal inbentarioa eguneratzea eta Jauregi Haundi baserriaren ondoan egin nahi den bidea berraztertzea.

Hori guztia behar bezala aztertu eta baloratu da erabaki proposamen hau egin aurretik.

Lurralde Plangintzako Zerbitzuak dokumentua aztertu ondoren honako hau adierazi du: Lehendabizi, Euskal Herriko Lurralde Antolaketako Batzordearen erabakian aipatzen den Ur Zuzendaritzaren txostenak honako hau adierazten duela «kontuan hartuta Amezketako eta Ugarte guneei uholde ariskua dutela, beharrezkoa izango da ingurumen eta uraren azterketa zehatz bat egitea, gaur egun udalerririk horrek jasaten duen uholde maila zehazteko, 10, 100 eta 500 urteko itzulera aldeko uholdeen lerro eta kotak definituz» eta, gainera, adierazten du «eskatutako azterketa egin eta frogatzen ez den bitartean Uholdeen Aurkako Plan Orokorra hartuko dela erreferentzi gisa». Korporazioak behin-behineko onartutako Hiri Antolaketako Arauen proposamenean agertzen diren antolaketa planoen gainean jarritako uholde lerroen arabera lerro horiek nabarmenki eragiten dute lur eremu hiritar eta hiritarrezina garatzeko aurreikuspenetan.

Bigarren, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketako Jarraibideen irizpideak aplikatuz, beharrezko da aurreikusitako etxebizitzaren kopurua egokitzea, ez dadin 190 etxebizitza baino gehiago egin.

Hirugarren, planak ez du jaso derrigorrezko xedapenetakoren bat, hau da, ez da lur eremu hiritarrezineko banaketa areen definiziorik eman, ezta aprobetxamendu tipoa ere.

Laugarren, agerian jartzen da beharrezkoa dela zenbait akats eta kontraesan zuzentzea honako alderdi hauei dagokienez: Lur eremuaren kalifikazio orokor eta xehekatuari, planaren exekuzioari, Hirigintzako Arau Orokor eta Bereziei eta planaren memoriari dagokienez.

Amezketako Udalak, 2005eko azaroaren 9an eginiko aparteko bileran, 2004ko apirilaren 28an behin-behineko onartutako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren dokumentazio osagarria onartu zuen, Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Behin-Behineko Onarpeneko Testuari Buruzko Azalpen Dokumentua izenekoa, berrikuspena behin betiko onartu ahal izateko lur eremu hiritarrezinean eta «Ola Auzoa» 9. Hirigintzako Esku Hartze Areako 9.1 eta 9.2 alor industrialetan.

En este sentido se recogerán las condiciones señaladas por la Dirección de Aguas en su informe emitido el día 14 de octubre y reseñadas en el cuerpo del informe que se acompaña a la presente certificación como Anexo I.

B) Suelo para Actividades Económicas.

Considerando que la propuesta realizada en el documento de normas es acorde con la categorización planteada para el término municipal de Amezketako por parte de los instrumentos de ordenación territorial vigentes (P.T.S. de Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales), se valora favorablemente la propuesta en lo que a suelo destinado a actividades económicas se refiere».

Al mismo tiempo, por parte de la Dirección General de Ordenación Territorial de la Diputación Foral se ha solicitado también informe a los Departamentos afectados de esta Administración Foral, habiendo manifestado su valoración sobre las Normas Subsidiarias el Departamento Foral para las Infraestructuras Viarias, así como la Dirección General de Cultura del Gabinete del Diputado General, que propone añadir como elemento a proteger «la portería de la Papelera de Aralar, c/ San Bartolomé 40» y recomienda actualizar el inventario municipal y reconsidera el vial proyectado junto al caserío Jauregi Haundi.

Todo ello ha sido debidamente estudiado y valorado antes de elaborarse la presente propuesta de acuerdo.

Del análisis del documento realizado por el Servicio de Planificación Territorial se concluye: Primero, que el informe emitido por la Dirección de Aguas al que el acuerdo de la C.O.T.P.V. hace referencia, señala que «dado el riesgo de inundación de los núcleos de Amezketako y Ugarte, será necesario realizar un estudio ambiental e hidráulico de detalle para determinar el grado de inundación que sufre este municipio en la actualidad, definiendo las líneas y cotas de inundación para las avenidas de 10, 100 y 500 años de periodo de retorno», y añade que, «entre tanto no exista y se valide el estudio requerido, la referencia será el Plan Integral de Prevención de Inundaciones (PIPI)». De la superposición a los planos de ordenación, en la propuesta de Normas Subsidiarias aprobada provisionalmente por la Corporación, de las líneas de inundación aportadas se comprueba que las mismas afectan de manera significativa a las previsiones de desarrollo en suelo urbano y urbanizable.

Segundo, que en aplicación de los Criterios de las Directrices de Ordenación Territorial de la C.A.P.V. es necesario ajustar la capacidad residencial prevista de forma que no supere la cifra de 190 viviendas.

Tercero, que el plan carece de alguna determinación preceptiva a saber la definición en el suelo urbanizable de áreas de reparto y correspondiente aprovechamiento tipo.

Y, cuarto, se pone de manifiesto la necesidad de resolver diversos errores y contradicciones en lo que se refiere a la calificación global y pormenorizada del suelo, a la ejecución del plan, a las Normas Urbanísticas Generales y Particulares y a la Memoria del plan.

El Ayuntamiento de Amezketako, en sesión extraordinaria celebrada el día 9 de noviembre de 2005 ha aprobado una documentación complementaria al expediente de Revisión de Normas Subsidiarias aprobado provisionalmente el 28 de abril de 2004 denominado «Documento Aclaratorio al Texto de Aprobación Provisional de la Revisión de las Normas Subsidiarias», al objeto de posibilitar la aprobación definitiva de la Revisión en el suelo no urbanizable y en los sectores industriales 9.1 y 9.2 del A.I.U.9 Ola Auzoa.

Lur eremu hiritarrezinari dagokionez, Lurralde Antolaketa Jarraibideetan ezarritako kategoriei buruzko zonakapen proposamena egokitu da eta, halaber, ordenantzetako artikuluko batzuk idatzi dira berriro, izan ere, dokumentuaren kalitate teknikoa hobetu nahi da eta interpretazio arazoak saihestu dokumentua aplikatzeko orduan.

Alor industrialei dagokienez, idatzi behar diren alorreko planek honako xedapen hauek jaso behar dituzte derrigorrez: 12 metroko tartea utzi behar dela gutxienez Amezketan ibaiaren eta eraikinen artean eta 2 metrokoa, berriz, urbanizazioaren eta ibaiaren artean, eta ingurumen eta uraren azterketa egin behar dela uholde aldiaren eta koten xedapenetik abiatuta hirigintzako garapen berrien segurtasuna bermatzeko; halaber, alor bakoitza banaketa area independente gisa mugatzen da, dagokion aprobetxamendu tipoa kalkulatu; eta, azkenik, alor bakoitzaren parte hartzea zehazten da alor biek erabiliko duten sarbide berriaren finantzaketan.

Ondorioz, kontuan hartutako aurkeztutako dokumentazio osagarria, bidezko da dokumentua behin betiko onartzea lur eremu hiritarrezinaren antolaketari eta «Ola Auzoa» 9. Hirigintzako Esku Hartze Areako 9.1 eta 9.2 alor industrialei dagokienez. Lur eremu hiritarrari eta «Jauregi» 7. Hirigintzako Esku Hartze Arearen barruan etxebizitzetarako kalifikatuta dagoen lur eremu hiritargariari dagokienez, kasu honetan badira alderdi teknikoak eta legalak behin betiko onarpena galarazten dutenak eta, beraz, etenda utziko da kautelazko neurri bezala, hari eta Amezketako Udalak etxebizitza kopuruaren eta uholdeen arloetan ezarritako baldintzak betetzen dituen proposamen bat aurkezten duen arte.

Ondorioz, eta tramitatzekoan hirigintzako legerian aurreikusitako jardunbidea segitu denez, Diputatuen Kontseiluak, aplikagarri den legeria ikusirik, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako foru diputatuaren proposamenez eta eztabaidatu ondoren,

## ERABAKI DU

*Lehenengo.* Behin betiko onartzea «Amezketako Hiri Antolaketa Arauen Berrikuspena» lur eremu hiritarrezinaren antolaketari eta «Ola Auzoa» 9. Hirigintzako Esku Hartze Areako 9.1 eta 9.2 alor industrialei dagokienez, 2005eko azaroaren 9ko Udal Batzarrak hartutako erabakian adierazitako eran.

*Bigarren.* Etenda uztea «Amezketako Hiri Antolaketa Arauen Berrikuspena» dokumentuaren behin betiko onarpena lur eremu hiritarrari eta «Jauregi» 7. Hirigintzako Esku Hartze Areako etxebizitzetarako lur eremu hiritargariari dagokienez, erabaki honen azalpen zatian ezarritako baldintzak Udalak bete arte.

*Hirugarren.* Amezketako Udalak dokumentu bateratua onartu eta Foru Aldundira bidali behar du. Dokumentu horretan, 2005eko azaroaren 9ko Udal Batzarrak hartutako erabakiaren edukia jasotzeaz gain, lur eremu hiritarrari eta hiritargariari buruzko aipatu akatsak zuzendu behar dira.

Amezketako Udalak erabaki honetako azalpen zatian aipatutako txostenak aztertu beharko dituzte, hau da, Euskal Herriko Lurralde Antolaketa Batzordeak bidalita Eusko Jaurlaritzako sail eskudunek ur eta landa garapen arloetan emandakoak, eta Diputatu Nagusiaren Kabineteko Kultura Zuzendaritza Nagusiak emandakoa, aipatutako testu bateratuen kontuan hartzea komeni den erabaki dezan.

En relación al suelo no urbanizable, se acomoda la zonificación propuesta a las categorías establecidas en las Directrices de Ordenación de Territorio y se da nueva redacción a una serie de artículos de las ordenanzas a fin de mejorar la calidad técnica del documento y evitar problemas interpretativos a la hora de su aplicación.

Por lo que se refiere a los sectores industriales, se establecen como determinaciones vinculantes para los planes parciales que habrán de redactarse, el respeto de unos retiros mínimos al río Amezketan de 12 metros para la edificación y 2 metros para la urbanización y la necesidad de realizar un estudio ambiental e hidráulico que garantice la seguridad de los nuevos desarrollos urbanísticos a partir de la determinación de la mancha de inundación y sus cotas; se delimita cada sector como un área de reparto independiente calculándose el correspondiente aprovechamiento tipo y, por último, se concreta la participación de cada uno de los sectores en la financiación del nuevo acceso viario común a ambos.

En consecuencia, con la documentación complementaria aportada, procede la aprobación definitiva del documento en lo referido únicamente a la ordenación del suelo no urbanizable y a los sectores industriales 9.1 y 9.2 del A.I.U.9 Ola Auzoa. En cuanto a la ordenación del suelo urbano y del suelo urbanizable residencial A.I.U. 7 Jauregi, concurren en este caso una serie de aspectos de índole técnico y de legalidad que impiden su aprobación definitiva debiendo procederse, como medida cautelar, a su suspensión a fin de que el Ayuntamiento de Amezketan elabore una propuesta que dé respuesta adecuada a las exigencias señaladas en materia de cuantificación residencial y de inundabilidad.

En consecuencia, y habiéndose observado en cuanto a su tramitación las reglas procedimentales previstas en la normativa urbanística en vigor, este Consejo de Diputados, vista la legislación de aplicación, a propuesta del Diputado Foral para la Ordenación y Promoción Territorial y previa deliberación,

## ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitivamente la ordenación del suelo no urbanizable y de los sectores industriales 9.1 y 9.2 del A.I.U.9 Ola Auzoa del documento de «Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Amezketan», en los términos señalados en el acuerdo plenario municipal de 9 de noviembre de 2005.

*Segundo.* Suspender la aprobación definitiva del documento de «Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Amezketan» en lo relativo a la ordenación del suelo urbano y del suelo urbanizable residencial A.I.U. 7 Jauregi, hasta que por el Ayuntamiento se dé respuesta adecuada a lo señalado en la parte expositiva del presente acuerdo.

*Tercero.* Por el Ayuntamiento de Amezketan deberá aprobarse y remitirse a esta Diputación Foral un documento refundido en el que además incorporar el contenido del acuerdo plenario de 9 de noviembre de 2005, se dé respuesta adecuada a las deficiencias señaladas respecto del suelo urbano y urbanizable.

El Ayuntamiento de Amezketan habrá de analizar el contenido de los informes en materia de aguas y desarrollo rural emitidos por los Departamentos competentes del Gobierno Vasco los cuales han sido remitidos por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y del informe emitido por parte de la Dirección General de Cultura del Gabinete del Diputado General, informes a los que se hace mención en la parte expositiva de este acuerdo, en orden a decidir sobre la conveniencia de su consideración en el citado Texto Refundido.



Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezake interesatuak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeke hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte».

*Eraskina:* Aipatutako dokumentuan dagoen Hirigintza Arautegiaren testua.

Donostia, 2006ko otsailaren 16a.—Segundo Diez Molinero, idazkari teknikoa.

(1412)

(1812)

ERASKINA

## BIGARREN IDAZPURUA

## 2.1. HIRIGINTZA ERABILEREN OINARRIZKO SISTEMATIZAZIOA ETA EZAUGARRIAK

5. artikulua. *Hirigintza erabileren sistematizazioa.*

Honako erabilera hauek bereizi eta definitu dira:

- Egoitza erabilera.
- Industri erabilera.
- Hirugarren sektoreko erabilera.
- Landa erabilera.
- Komunikabide erabilera.
- Espazio libreen erabilera.
- Komunitatearen ekipamenduko erabilera.
- Zerbitzu azpiegituren erabilera.

9. artikulua. *Hirigintza erabileren edukia.*

## 2. Industri erabilera.

Honako jarduera hauek sar ditzakegu sail honetan:

— Edozein motako produktuak eraldatu eta eskuratzeko lantegiak.

— Produktuak zaindu, gorde eta banatzeko biltegiak, produktu horiek handizka eta txikizkako saltzaileei, instalatzaileei, fabrikatzaileei edota banatzaileei zuzendua direnean. Oro har, debekatuta dago horiek jendeari zuzenean saltzea.

— Edozein motako ikerketa edo ekoizpenerako laborategiak. Hala ere, landutako osagaiek eta garatu beharreko ekinzek inolako kalterik eragiten ez badute, bulego gisa erabiltzen diren guneekin pareka daitezke.

— Ibilgailuak, makinak eta edozein motako tresneria konpontzeko tailerrak.

— Edozein motatako garajeak eta ibilgailuentzako hornitegiak eta garbiketarako guneak.

— Era guztietako erregai deposituak eta biltegiak, salmentara bideratuta badaude.

— Garraioa errepidez burutzen duten agentziak, eta kamioiak, autobusak eta bestelako ibilgailuak gordetzeko aterpeak.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación.

Con carácter previo y potestativo los particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Diputados en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se podrá interponer el Recurso Contencioso-Administrativo hasta que se resuelva expresamente el de Reposición o se haya producido su desestimación presunta».

*Anexo:* Texto de la Normativa Urbanística contenida en el citado documento.

Donostia-San Sebastián, a 16 de febrero de 2006.—El secretario técnico, Segundo Diez Molinero.

(1412)

(1812)

ANEXO

## TITULO SEGUNDO

## 2.1. SISTEMATIZACION Y CARACTERIZACION BASICA DE LOS USOS URBANISTICOS

*Artículo 5. Sistematización de los usos urbanísticos.*

Se distinguen, definiéndolos los siguientes usos:

- Usos residenciales.
- Usos industriales.
- Usos terciarios.
- Usos rurales.
- Usos de comunicaciones.
- Usos de espacios libres.
- Usos de equipamiento comunitario.
- Usos de infraestructuras de servicios.

*Artículo 9. Contenido de los usos urbanísticos.*

## 2. Usos industriales.

Comprenden estos usos urbanísticos las siguientes actividades:

— Las industrias de obtención y transformación de productos de todo tipo.

— Los almacenes destinados a la conservación, guarda, y distribución de productos con suministro exclusivo a mayoristas, minoristas, instaladores, fabricantes o distribuidores, quedando excluida la venta al público directa en general.

— Los laboratorios de producción e investigación de todo tipo, salvo que por la inocuidad de los productos manipulados y la completa ausencia de molestias producidas por las actividades realizadas, resulten asimilables al uso de oficinas.

— Los talleres de reparación de vehículos, maquinaria y aparatos de todo tipo.

— Las estaciones de servicio y lavado de vehículos y garajes en todas sus categorías.

— Los depósitos y almacenes de combustibles de todo tipo, destinados a la venta.

— Las agencias de transporte por carretera, y las cocheras destinadas a la guarda de camiones, autobuses y otros vehículos y maquinaria automovil.

— Nekazaritza lantegiak, baldin eta nekazaritza ekoizpenerako jarduerak ez badira zuzenean burutzen jarduera bera kokatuta dagoen esparruan; hau da, horien garapenak dituen ezaugarriak eta baldintzak direla eta, derrigorrez Lur eremu Hiritarrezinean kokatu behar direnak.

— Oro har, erabili, eraldatu edo saldutako gaiak, edo erabilitako baliabide teknikoak direla eta, pertsonen eragozpenak eragin eta arriskuan jarri edo ondasunetan kalteren bat sor ditzaketan jarduera guztiak.

— Materialak, ibilgailuak, txatarra eta makineria gordezko xedea duten biltegi eta depositu estali gabeak, landa inguruneke ustiaketaren ondorioz eskuratutako produktu zuzenei dagozkien biltegiak izan ezik.

— Industriako lurzoruan garatutako erabilera osagarriak, hots, bulegoak, laborategiak, kalkulu-zentroak, zerbitzuetarako azpiegiturak, eta hondakinak arazteko instalazioak eta abar. Guarda edo jagolearen etxea ez da inolaz ere arlo horretan sartuko, berez planeamenduak espreski eskaini beharko baitu baita horrelakoak ezarri ahal izateko.

Industria erabilerak kategoria desberdinetan sailkatuko dira, ingurumenean izan dezaketan eraginaren arabera, hau da, sor ditzaketan eragozpen, kalte eta arriskuen arabera, alegia.

Honako maila hauek bereizten dira:

— Lehen kategoria:

Norbanakoa nahiz izaera familiarra duten eta instalatutako potentzia mekaniko finkorik ez duten jarduera produktiboak biltzen ditu. Jarduera hauek ez dute inolako gogaikarrtasun edo arriskugarritasunik sortzen eta beraz ez daude «IGOKA» Erregelamendura lotuta. Erabilitako azalera, kasu guztietan, 125 m<sup>2</sup> baino txikiagoa izango da. Egoitza erabilerei, hirugarren sektorekoen eta komunitatearen ekipamenduko erabilerei asimilatutzat hartuko dira eta nagusiki erabilera horietara bideratutako lurzati eta lokaletan ezarri ahal izango dira.

— Bigarren kategoria:

Egoitza erabilerekin, hirugarren sektorekoekin edota Komunitatearen ekipamenduko erabilerekin bateragarri diren industri jarduerak biltzen ditu, arriskugarritasunik ez dutelako –IGOKA Erregelamenduaren arabera, aldameneko erabileretarako gogaikarrtasun edo deserosotasun zuzengaitzik sortzen ez dutelako –usainak, gasak, hautsa, zarata, bibrazioak, eta abar sortzea–, gehienez ere 4 ZP-ko potentzia unitarioko makina edo motoreak erabili, instalatutako potentzia dentsitatea 0,135 ZP/m<sup>2</sup>-koa edo txikiagoa erabiltzen dutelako.

Motozikleta eta automobilen konponketa tailerrak ere kategoria honetan sartuko dira, baldin eta 250 m<sup>2</sup> baino gutxiagoko azalera badute. Ez dira inolaz ere horretan sartuko txapa eta pintura konponketak, ez eta ibilgailu astun edo makineria automobilenak ere.

Ibilgailuak konpontzeko tailerren barruan konponketa azkarrerako tailerrak sartzen dira, tailer horiek 100 m<sup>2</sup> (e) baino gutxiagoko azalera erabilgarria eta bi langile arteko tailerrek osatzen dute. Egoera jakin batzuetan tailer hauetarako beraizko erregulazioak ezartzen dira.

Bigarren kategoriako industri erabilerak merkataritza erabilerei asimilatutzat hartuko dira; beraz, nagusiki erabilera horietara bideratutako lurzati eta lokaletan ezarri ahal izango dira.

— Hirugarren kategoria:

Tamaina txiki edo ertaineko industri erabilerak biltzen ditu –3.600 m<sup>2</sup>-tik (lo) beherako lurzati azalera okupagarria eta 5.000 m<sup>2</sup>-tik (s) beherako solairu estalgarri eraikia– galdatutako

— Las industrias agrarias, entendiéndose por tales las actividades de producción agraria en las que no se utiliza de forma directa, en dicha producción, el terreno en el que la actividad se asienta, pero que, por sus características y condiciones de implantación deben situarse necesariamente en Suelo No Urbanizable.

— En general, todas aquellas actividades que por los materiales utilizados, manipulados o despachados, o los elementos técnicos empleados, puedan ocasionar molestias, peligros, e incomodidades a las personas o daños a los bienes.

— Los almacenes y depósitos al aire libre de maquinaria, chatarra, vehículos o materiales, con excepción del almacenamiento de productos directos de la explotación productiva del medio rural.

— Los usos auxiliares del suelo industrial como oficinas, laboratorios y centro de cálculo, los centros de infraestructuras de servicios y las instalaciones de depuración de residuos, etc. En ningún caso se considerará incluida la vivienda del guarda o vigilante cuya implantación deberá ser autorizada de forma expresa por el planeamiento.

Los usos industriales se clasifican en categorías, atendiendo a las incomodidades, nocividad, insalubridad o peligrosidad que puedan originar o suponer en relación con el medio ambiente.

Se distinguen las siguientes:

— Categoría Primera:

Comprende las actividades productivas de carácter individual o familiar, sin potencia mecánica fija instalada, carentes por completo de molestias y peligrosidad, y por tanto no sujetas al Reglamento de Actividades MINP. La superficie utilizada en el ejercicio de la actividad será en todos los casos inferior a 125 m<sup>2</sup> (su). Se considerarán asimilados a los usos de vivienda, terciarios y de equipamiento comunitario pudiendo implantarse en los locales y parcelas destinados de forma predominante a estos usos.

— Categoría Segunda:

Comprende las actividades industriales compatibles con los usos residenciales, terciarios o de equipamiento comunitario por carecer de peligrosidad –según el RAMINP–, no generar molestias o incomodidad incorregibles para los usos colindantes –producción de olores, gases, polvo ruido, vibraciones, etc., utilizar máquinas o motores de potencia unitaria no superior a 4 CV., disponer de una densidad de potencia instalada no superior a 0,135 CV/m<sup>2</sup> (u).

Se considerarán incluidos en esta categoría los talleres de reparación de motocicletas, automóviles –en ningún caso los de reparación de chapa y pintura, vehículos pesados, o maquinaria automóvil– con menos de 250 m<sup>2</sup> (u).

Dentro de los talleres de reparación de vehículos se distingue la modalidad de talleres de reparación rápida, constituida por aquellos talleres con menos de 100 m<sup>2</sup> (u) de superficie utilizada y hasta dos operarios, para los que, en determinadas situaciones se establecen regulaciones específicas.

Los usos industriales de segunda categoría se considerarán asimilados a los usos comerciales pudiendo implantarse en las parcelas y locales destinados de forma predominante a ellos.

— Categoría Tercera:

Comprende las actividades industriales de tamaño pequeño o medio con una superficie de parcela ocupable por la edificación inferior a 3.600 m<sup>2</sup> (po) y superficie de techo edificada

betekizunetakoren bat ez betetzeagatik lehen eta bigarren kategoriakotzat ezin har daitezkeenak; edo, oro har, neurri zuzentzaileak hartu arren, eraikuntza berean edo aldamenen kokaturik dauden etxebizitzei edota hirugarren sektoreko erabilerarako lokalei edo ekipamendu komunitariokoei gogaikarritasunak sor diezaioketenak.

Zehazki, aire zabaleko biltegi eta deposituak, txapa eta pintura tailerrak, ibilgailu astunak eta makineria automobilak konpontzeko tailerrak, hornitegiak, erregaiak hornitzeko unitateak eta aire zabaleko kotxeak garbitzeko instalazioak barne hartuko dira kategorian honetan Azken horiek bigarren kategoriako industri erabileratzat hartu ahal izango dira garajeen edo bigarren kategoriako konponketa tailerren erabilera lagungarriak direnean eta erabilera horretara destinatzen diren lokaletan antolatzen direnean.

Hirugarren kategoriako industri erabilerak industri erabilerarako zonetan ezarriko dira bereziki, ondoren espreski aditzera ematen diren kasuetan izan ezik.

Ezarritako berariazko baldintzak betetzen dituzten nekazaritza industriak, beroriek baimentzen diren landa-zonetan ezarri ahal izango dira.

Hornitegien kasuan, kotxeak garbitzeko instalazioak horiekin asimilatutako erabileratzat hartuko dira, baina erregaiak hornitzeko unitate aldaerak, ordea, bide sareen sistema orokor gisa edo horien mugakide gisa kalifikatzen diren Lurzoru Hiritarrezin gisa sailkatutako lurretan ere ezarri ahal izango dira.

— Laugarren kategoria:

Tamaina ertain eta handiko industri jarduerak biltzen ditu —eraikinak okupatzen duen lurzati okupagarriak 3.600 m<sup>2</sup>-tik (lo) gorako azalera eta 5.000 m<sup>2</sup>-tik (s) gorako solairu estalgarri eraikia— eta beren tamaina kontuan hartu gabe, kasu orotan, aldameneko beste industria batzuekin bateragarri direlarik, espazio libreen erabilera komunean, arazo funtzionalak sortzen dituztelako eta neurri zuzentzaileak hartu arren, kalte, osasun-gaiztasun edo gogaikarritasun iturri direlako; edota espazio mugakideekiko maniobra, karga eta deskarga, biltegiaketa edo aparkaleku jarduera lagungarrien bolumen garrantzitsua sortzen dutelako.

Horien artean eta beren ezaugarriak direla eta —nekazaritza eta abeltzaintza industriak eta antzeko beste batzuk—, 5. kategoriako industrietzat hartu behar direnak izan ezik, 2.000 m<sup>2</sup> (s) baino gehiagoko nekazaritza industrietzat hartuko dira.

Bereziki industri erabilerarako zonetan ezarriko dira eta nekazaritza industriaren kasuan, horiek baimentzen diren landa-zonetan bereziki erabilera horretara destinatzen diren lurzatiatan. Bereziki horretara bideratutako eremuan gauzatu beharko da bereziki jarduera, beharrezko erabilera lagungarriak barne hartuz —aire zabalean biltegiatzea, karga eta deskarga, maniobra, aparkamendua edo antzeko beste batzuk—, kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete beharko direlarik.

Instalazioko jagolearen etxebizitza ere industria mota horien erabilera lagungarritzat har daiteke (lurzati bakoitzeko etxebizitza bat).

— Bosgarren kategoria:

Beharrezko produkzio eremuaren hedapenagatik —20.000 m<sup>2</sup>-tik gorako lurzati azalera— edo beren izaera arriskutsu, kaltegarri edo gogaikarriagatik, berariazko kokalekuetan soilik onar daitezkeen jarduerak biltzen ditu.

Beren ezarpena berariazko industri zonetan egingo da eta nekazaritza industriaren kasuan, hauek baimentzen diren landa-zonetan. Beren ezarpena 4. kategoriako industriaren baldintza beretan burutuko da, eta kasu orotan beharrezko neurri zuzentzaileekin batera aurkeztu beharko da.

inferior a 5.000 m<sup>2</sup> (t) que no puedan ser consideradas de categoría primera o segunda por incumplir alguno de los requisitos exigidos o que en general, y aún con la adopción de medidas correctoras, pueden ocasionar molestias para las viviendas si se sitúan en una misma edificación o contiguas a ellas.

En concreto se incluirán en esta categoría los almacenes y depósitos al aire libre; los talleres de chapa y pintura, los de reparación de vehículos pesados o maquinaria automovil; las estaciones de servicio; las unidades de suministro de combustible, y las instalaciones de lavado de coches al aire libre: Estas últimas cuando tengan el carácter de usos auxiliares de garajes o talleres de reparación de 2.ª categoría, y se dispongan en el interior de los locales destinados a estos usos, podrán considerarse como usos industriales de segunda categoría.

Los usos industriales de categoría 3.ª se implantarán, salvo en los casos señalados a continuación, exclusivamente en zonas de uso industrial.

Las industrias agrarias que cumplimenten las condiciones específicas establecidas podrán instalarse en las zonas rurales en las que se autoricen las mismas.

En sus variantes de estaciones de servicio, las instalaciones de lavado de coches se considerarán como usos asimilados a ellas, y unidades de suministro de combustible, sin embargo, podrán implantarse, además, en terrenos clasificados como Suelo No Urbanizable, calificados como sistema general viario, o colindantes con estos.

— Categoría cuarta:

Comprende las actividades industriales de tamaño medio y grande —superficie de parcela ocupable por la edificación superior a 3600 m<sup>2</sup> (po) o de techo edificado superior 5.000 m<sup>2</sup> (t)— y las que, no alcanzando ese tamaño, resulten incompatibles con la contigüidad directa con otras industrias, por suscitarse conflictos funcionales en la utilización común de los espacios libres o por la nocividad, insalubridad o las molestias producidas, aún con la adopción de medidas correctoras o por dar lugar a un volumen importante de actividades auxiliares de maniobra, carga y descarga, almacenamiento o aparcamiento que no se deben autorizar en los espacios públicos compartidos con otras industrias próximas.

Entre ellas, y con la salvedad de aquellas que por sus características, industrias agropecuarias y similares, deban considerarse como industrias de categoría 5.ª, se consideraran en todo caso las industrias agrarias de más de 2.000 m<sup>2</sup> (t).

Se implantarán exclusivamente en zonas de uso industrial, y en el caso de las industrias agrarias en las zonas rurales en las que se autoricen, sobre parcelas destinadas específicamente a ese uso, en cuyo ámbito deberá producirse de manera exclusiva la actividad, incluyendo los usos auxiliares necesarios, almacenamiento al aire libre, carga y descarga, maniobra, aparcamiento y otras similares, en las condiciones establecidas en su caso.

Como uso auxiliar de este tipo de industrias podrán considerarse la vivienda del guarda de la instalación (1 vivienda por cada parcela).

— Categoría quinta:

Comprende las actividades que por la extensión del ámbito de producción necesario —superficie de parcela superior a 20.000 m<sup>2</sup>— o su carácter peligroso, nocivo o molesto, solo pueden admitirse en emplazamientos específicos.

Su implantación se realizará en zonas industriales específicas y en el caso de industrias agrarias en las zonas rurales en las que se autoricen las mismas. La implantación tendrá lugar en las condiciones establecidas para las industrias de categoría 4.ª e irá acompañada en todo caso de las medidas correctoras necesarias.

Instalazioko jagolearen etxebizitza ere industria mota horien erabilera lagungarritzat har daiteke (lurzati bakoitzeko etxebizitza bat). Zirkunstantzia hori espreski zehaztu beharko da Arau Partikularrean edo plangintza xehekatuan.

Industri jarduera bat industri erabileretako kategoria jakin batera atxikitzeko, instalatutako potentziaren gehienezko mugez gainera, jarraian zerrendatzen diren eraginak orokorki baloratuko dira:

\* Gogaikarritasunak:

Zarata (lokal propioaren kanpoaldean eta auzokide kalte-tuarengan).

Hautsa.

Hondakin urak.

Industri hondakinak.

Garraioa eta zamalanak.

Bistako instalazioak eta biltegiak.

Jende pilaketak

Beroa.

Bibrazioak.

Aparkaleku premiak.

\* Osasunerako kaltegarriak:

Gas elementu kutsatzaileak.

Hondakin urak.

Material toxikoak eta horien manipulazioa.

Erradiazioak.

Isurketak eta zaborrak.

Hondakin solido kutsatzaileak, toxikoak edo osasunkaitzak sortzea.

\* Arriskua:

Erregai eta osagai sukoiak sailkatzea eta manipulatzeko.

Presio arriskutsuan burututako ekoizpen prozesuak eta ontziraketak.

Material lehergarriak.

Erasotzaile kimikoen jario eta isurketak.

Ezarritako potentzia mugak aplikatzeko, aintzat hartuko da bereziki, industria ekoizpenerako zuzen-zuzenean egokitutako potentzia; eta hori neurtzeko, ez dira kontuan hartuko karga-jasogailu, igogailu, aire-egokitzailu eta berogailuek funtzionatzeko behar duten potentzia, ezta lokala egokitzeko, mantentzeko edo ezar daitezkeen elementu egokitzailuak funtzionatzeko behar den potentzia ere.

Sor daitezkeen zaretei dagozkien mugak, kasu bakoitzean horretarako eskuduntza duen Administrazioak ezarriko ditu.

Industria jardueraren bat sail zehatz bati atxikitzeko, edozein kasutan, karga eta deskargara edota mota honetako konponketa tailerretan ibilgailuak jasotzera destinatutako espazio estaliak konputatuko dira. Aitzitik, garaje erabilera lagungarritara destinatutako lokalen azalera ez da konputatuko.

4. Ingurumena babesteko erabilerak.

Honako erabilera hauetan azpibatzen dira:

— Ingurumenaren babesa.

— Aisia eta olgeta.

— Lehen mailako baliabideen probetxamendua.

\* Ingurumenaren babesa.

Honako hauetan azpibatzen da:

— Ingurumenaren zainketa.

— Ingurumenaren hobekuntza.

Como uso auxiliar de esta tipología de industrias podrá considerarse —esta circunstancia deberá explicarse en la Norma particular o el planeamiento pormenorizado— la vivienda del guarda de la instalación —una vivienda por cada parcela—.

Para adscribir una actividad industrial a una categoría de suelo industrial determinada, se valoraran con carácter general los efectos enumerados a continuación, además de los límites de potencia instalada:

\* Molestias:

Ruido (exterior del local propio y vecino afectado).

Polvo.

Aguas residuales.

Residuos industriales.

Transportes, cargas y descargas.

Instalaciones y almacenamientos visibles.

Aglomeraciones de personal.

Calor.

Vibraciones.

Necesidades de aparcamiento

\* Nocividad e insalubridad:

Gases y elementos contaminantes.

Aguas residuales.

Materias tóxicas y manipulación.

Radiaciones.

Vertidos y desperdicios.

Producción de residuos sólidos contaminantes, tóxicos o insalubres.

\* Peligrosidad:

Manipulación y clasificación de materiales combustibles, inflamables.

Procesos de producción y recipientes a presión peligrosa.

Materiales explosivos.

Derrames y vertidos de agresivos químicos.

Para la aplicación de los límites de potencia establecidos, se tendrá en cuenta, exclusivamente, la potencia destinada de forma directa a la producción industrial, excluyéndose la necesaria para accionar montacargas, ascensores, acondicionadores de aire, calefacción, acondicionamiento del local o su mantenimiento o la correspondiente a los elementos correctores que se instalen.

Los límites de producción de ruidos serán en cada caso fijados por la Administración competente.

A los efectos de la adscripción de los usos industriales a una determinada categoría se computarán, en todo caso, los espacios cubiertos destinados a carga y descarga, o, a recepción de vehículos en los talleres de reparación de este tipo. No se computará, por el contrario, la superficie de los locales destinados a usos de garajes.

4. Usos de protección ambiental.

Se subdividen a su vez en:

— Uso de protección ambiental.

— Uso de ocio y esparcimiento.

— Uso de aprovechamiento de recursos primarios.

\* Uso de protección ambiental.

Se subdivide en:

— Uso de conservación.

— Uso de mejora ambiental.



— Ingurumenaren zainketa lanen barruan sartzen dira honako hauek: Egungo ezaugarriak eta egoera bere horretan mantentzea, gizakiak bertan esku hartu gabe, edo zientzia edo kultura izaerako esku-hartzeak soilik burutzea, edo egungo erabilerarekin jarraitzea, gizakiak parte aktiboa hartuz garapen eramangarriko dinamika batean gainerako kasuetan.

— Ingurumena hobetzeko esku-hartzeak, aplikatzen direneko eremua bere jatorrizko egoerara edo balio handiagoko oreka egoera batzuetara bideratzeko gauza izango dira. Hobekuntza hori era ezberdinetakoa izan daiteke, esleitzen zaien unitateen kasuistika partikularraren arabera.

\* Aisia eta olgeta.

Honako hauetan azpibanatzen da:

- Aisiagune publiko estentsiboa.
- Aisiagune publiko intentsiboa.
- Jarduera zinegetikoak eta arrain hazkuntzakoak.

— Aisiagune publiko estentsiboaren barruan sartzen dira natur ingurune aisia, turismoa, hezkuntza eta interpretazioa helburutzat hartuta burutzen diren erabilerak; hau da, ingurune fisikoan eragin txikia duten eta ekipamendu handirik gabe egiten diren jarduera arinak, txangoak eta begiespena bezala. Oinezkoen joan-etorria besterik ez dakartenez, soilik gutxieneko azpiegiturak eta erabilerak burutzeko egokitze lan txikiak eskatzen dituzte (erreken gaineko pasabideak, bidezidorrak balizatzea, begiratokiak, eta abar), paisaian arretaz txertatuta geratuko diren lanak. Oro har, erabilera honetan baztertuta daude bai edonolako eraikuntzak baita bide sareekin lotutako instalazio edo elementuak ere.

— Aisiagune publiko intentsiboaren barruan sartzen dira, aldiz, natur ingurune aisia, turismoa, hezkuntza eta interpretazioa helburutzat hartuta burutzen diren erabilerak, baina jarduera horiek burutzeko derrigorrez ekipamenduak eskatzen dituztenak eta eremu bat bereziki egokitu beharra dakartenak. Atsedeneku izenaz ezagutzen ditugun horiek dira. Honako hauek har ditzakete: Aparkamendu txikiak, mahaiak, eserlekuak, barbakoak, iturriak, osasun zerbitzuak, haurren jolasguneak, paperontziak, zabor errauskailuak eta abar.

— Jarduera zinegetikoak eta arrain hazkuntzakoak: Ehiza eta arrantza jarduerak, nazioarteko, estatuko eta autonomi erki-degoko legeriak eta foru arauak agintzen duten eran gauzatuko dira; bereziki, ehiza arautzen duen apirilaren 4ko 1/1970 Legea eta ehiza nahiz arrantza egin daitezkeen aldiak eta debekaldi bereziak jasoz urtero ematen diren Foru Aginduak errespetatu beharko dira.

\* Lehen mailako baliabideen probetxamendua.

Honako erabilera hauetan azpibanatzen da:

- Nekazaritza.
- Abelazkuntza.
- Basogintza.
- Nekazaritza industria.

— Nekazaritza jardueratzat hartzen dira basogintzakoak ez diren landare baliabideen laborantzarekin zuzenean lotutakoak, horretan sartuz lurra behar bezala prestatzea laboreak lortu eta biltzeko eta uzta bereizi eta sailkatzeko, gerora biltegian gorde edo kontsumorako garraiatuko diren moduan. Era berean, jarduera horien barruan sartzen dira ura ekartzeko eta ureztaketa sistemen bidez lurriari etekin handia ateratzeko behar diren eragiketak eta, oro har, nekazaritza hobetzeko xedez landa-lurreko azpiegiturak ezartzera bideratutako obrak.

— Los usos de conservación son aquellos propiciados para el mantenimiento de las características y la situación actual sin intervención humana o exclusivamente de carácter científico o cultural, o con continuidad del uso actual y participación activa del hombre en una dinámica de desarrollo sostenible en el resto de los casos.

— Los usos de mejora ambiental se aplicarán a aquellas áreas destinadas a recuperar su situación primigenia o a otros estados de equilibrio más valiosos. Esta mejora puede adoptar formas distintas según la casuística particular de las unidades a que se asignen.

\* Uso de ocio y esparcimiento.

Se subdivide en:

- Recreo público extensivo.
- Recreo público intensivo.
- Actividades cinegéticas y piscícolas.

— Los usos de recreo público extensivo son aquellos cuyo destino es el uso y disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio natural, en base a actividades blandas, sin equipamientos significativos excursionismo y contemplación, poco incidentes en el medio físico. Implica el simple tránsito peatonal, que requiere un mínimo de infraestructura o acondicionamiento para su práctica como son pequeñas obras (pasos sobre arroyos, balización de sendas, miradores, etc.) que se presumen cuidadosa e integradas en el paisaje. En general, en este uso se excluyen tanto los desarrollos edificatorios como instalaciones o elementos de red viaria.

— Los usos de recreo intensivo son aquellos destinados al uso y disfrute con fines de ocio, turismo, educación e interpretación del medio rural, en base a equipamientos de ocio y/o acogida que implican la adaptación de un espacio para actividades recreativas. Se trata de las denominadas Áreas Recreativas, que pueden constar de pequeños aparcamientos, mesas, bancos, barbacoas, fuentes, servicios sanitarios, juegos de niños, pape-leras, crematorio de basuras, etc.

— Actividades cinegéticas y piscícolas: La práctica de la caza y pesca se derivan de las legislaciones internacionales, estatales, autonómicas y forales que le sean de aplicación y en especial por la Ley de caza 1/1970, de 4 de abril y las Ordenes Forales anuales de períodos hábiles de caza y pesca y las vedas especiales.

\* Uso de aprovechamiento de recursos primarios.

Se subdivide en:

- Uso agrícola.
- Uso ganadero.
- Uso forestal.
- Uso de industria agraria.

— El uso agrícola comprende aquellas actividades ligadas directamente con el cultivo de recursos vegetales no forestales, incluyendo las operaciones de preparación de la tierra para la obtención de cultivos, de recolección, selección y clasificación de las cosechas dispuestas en condiciones de ser transportadas para su posterior almacenamiento y consumo, así como el aporte de agua y una mayor intentada de aprovechamiento en el caso de regadío, junto con las obras de infraestructuras rurales necesarias para mejoras de la agricultura en general.

Honetan sartzen dira, halaber: Familia bakarreko edo biko etxebizitzak, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiatetarekin zuzen-zuzenean lotuta dagoen nekazariaren bizilekurako badira. Baita nekazal turismoko etxeak ere, Hirigintza Araudi Orokorrean ezarritako baldintzetan egiten badira.

Kontzeptu horretan biltzen dira bai aire zabalean gauzatzen diren nekazaritza jarduerak bai leku estalian gauzatzen direnak: Negutegiak, hau da, instalazio iraunkorrek, sartzen errazak eta laboreak bizkortu edo babesteko itxuraz hornituak, bertan laboreen zikloetako fase guztiak edo batzuk gara daitezten; eta lore eta landareen bizitegiak, landaketa lursailean bertan egiten ez bada.

Honetan sartzen dira, halaber, nekazaritzako tresnak eta lanabesak eta nekazaritza produktuak gorde eta zaintzera bideratutako eraikuntzak, Hirigintza Araudi Orokorrean ezarritako baldintzetan egiten badira; nekazaritza produktuen ekoizpen, erauzketa, sailkapen, bilketa eta lehorte jarduerak; ekoizpenak lekuan bertan zuzenean saltzea eta berorien artisauzko 1. eraldaketa; eta ureztaketak eskatzen dituen obrak eta instalazioak jartzea. Baita nekazaritza produktuak biltzeko terrazak eta zabaluneak ere.

Araua onartu aurretik zutik zeuden eraikinetan, nekazaritza jardueratzat hartuko da artisauzko produktuak eta autoktonoak egitea eta merkaturatzea. Gainera, beheko oineko azaleraren %25 arte zabaltzeko aukera emango zaie 72. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

— Abeltzaintza jardueratzat hartzen dira orotariko ganadua hazteari lotutakoak, bai ustiaketa estentsiboak bai intentsiboak, hala nola larrugintzarako animaliak hazten dituzten granjak eta espezie zinegetikoen ekoizpena, eta baita larreak eta bazka laboreak lortzeko lurra prestatzea eta artzaintza ere.

Bi kategoria bereizten dira:

— Lurraren baliabideei lotutako abelazkuntza: Ganaduaren gobernuak behar duen bazkarik gehiena ustiatetagan bertan ekoizten duena (ustiaketa estentsiboa).

— Lurraren baliabideei lotu gabeko abelazkuntza: Ganaduak, ustiatetiaz kanpo egindako pentsua kontsumitzen duen hura (abelazkuntza intentsiboa).

Honetan sartzen dira, halaber, familia bakarreko edo biko etxebizitzak, abeltzaintzako ustiatetarekin zuzen-zuzenean lotuta dagoen nekazariaren eta bere familiaren bizilekurako badira. Baita nekazal turismoko etxeak ere, Hirigintza Araudi Orokorrean ezarritako baldintzetan egiten badira.

Abeltzaintzako ustiaketa estentsibo zein intentsiboarekin lotutako eraikuntzak onartuko dira Hirigintza Araudi Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Baita abelazkuntza produktuen lehen eraldaketara bideratutako nekazaritza jarduerarekin lotutako eraikuntzak eta instalazioak ere; esate baterako, gaztandegiak eta gainerako produktu tipikoak, haragikiak egitea, hestebeteak eta ahatekiak, ezta ontziratzea eta gainerako hegazti ekoizkinak.

— Basogintzaren barruan sartzen dira baso-lurren zaintza, hobekuntza, berriztapena eta ustiaketa helburutzat duten jarduerak (artzaintza izan ezik), bai helburu nagusia ekologia edo paisaia bereziki babestea duten erabilerak, baita produkziara bideratutakoak ere. Bi helburuak bateragarri egin behar dira, bata bestea eragotziko ez duen moduan.

Basogintzan beharrezkoak diren tresnak, makinak eta produktuak gordetzeko eta zaintzeko instalazioak onartuko dira, baldin eta Hirigintza Araudi Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Se incluye los edificios de viviendas, unifamiliar o bifamiliar, para la residencia del agricultor y su familia, ligadas estrictamente a la explotación de este uso, y los agroturismos, en las condiciones establecidas en la Normativa Urbanística General.

En este concepto se incluyen tanto las actividades agrícolas al aire libre como las que se realizan bajo cubierta: Los invernaderos, que son instalaciones permanentes, accesibles y con cerramiento para el forzado o protección de cultivos, en las que se puede desarrollar todas o algunas de las fases del ciclo de cultivos y los viveros de flores y plantas en los que la plantación no se realice sobre el terreno.

Se permiten las construcciones destinadas a almacenamiento y conservación de útiles, aperos de labranza y de productos agrarios en las condiciones establecidas en la Normativa Urbanística General; producción, extracción, clasificación, recogida y secado de productos agrarios, así como la venta directa en origen y 1.ª transformación artesanal de los mismos, así como las obras e instalaciones necesarias al regadío. Además de las terrazas y playas de recogida de productos agrícolas.

Dentro de este uso agrícola, y solo en edificios existentes con anterioridad a la aprobación de la norma se incluye el uso de elaboración y comercialización de productos artesanales y autóctonos con posibilidades de ampliación de hasta el 25% de su superficie en planta baja en las condiciones establecidas en el art. 72.

— El uso ganadero es aquel destinado a la cría de todo tipo de ganado, tanto las explotaciones extensivas como las intensivas, así como las granjas dedicadas a la cría de animales para la peletería y la producción de especies cinegéticas y las actividades destinadas a la preparación de la tierra para la obtención de pastos y cultivos forrajeros, así como el pastoreo.

Se establecen dos categorías:

— Ganadería vinculada a recurso de suelo: Aquella en la que la propia explotación produce la mayor parte del forraje necesario para la alimentación del ganado (explotación extensiva).

— Ganadería no vinculada a recursos del suelo: Aquella en la que los animales consumen pienso no producido en la propia explotación (explotación intensiva).

Se incluye los edificios de viviendas, unifamiliar o bifamiliar, para la residencia del agricultor y su familia, ligadas estrictamente a la explotación de este uso, y los agroturismos, en las condiciones establecidas en la Normativa Urbanística General.

Se permiten las construcciones ligadas a la actividad ganadera de carácter extensivo e intensivo en las condiciones establecidas en la Normativa Urbanística General. Se incluyen las construcciones e instalaciones ligada a la actividad ganadera destinadas a la primera transformación de los productos ganaderos, como las queserías y demás productos típicos, la elaboración de productos cárnicos, embutidos y derivados del pato, y el envasado de la miel y otros productos apícolas.

— El uso forestal comprende las actividades (salvo pastoreo) que tienen como objeto la conservación, mejora, renovación y aprovechamiento de los terrenos forestales, tanto con un fin prioritario de especial protección ecológica o paisajista como un fin productivo. Ambos fines deben compatibilizar sin renunciar a uno de ellos.

Se permiten las instalaciones necesarias para el almacenamiento y conservación de útiles, maquinaria y productos destinados a la actividad forestal en las condiciones establecidas en la Normativa Urbanística General.

— Nekazaritza industriaren barruan sartzen dira basogintzako produktuen edo nekazaritzako elikagaien 1. eraldaketarako industriak, ustiaketa bati zuzen-zuzenean lotu gabeak baina, arrazoi funtzionalak direla-eta (jatorrizko izena edo gune horretako berezko zein osasun arloko produkzioak direla-eta) derrigorrez landa-lurrean lekutu behar direnak, ustiaketa izatera iritsi gabe. Zerrategiei dagokienez, lehendik martxan daudenak finkatu egingo dira honako proiektu honetan ezarritako baldintzetan. Aitzitik, berririk ez da onartuko.

#### 5. Komunikabide erabilerak.

Komunikabideen erabilerak honako honela bereizten dira:

- Garraiobideak (autopistak, autobideak, errepideak,).
- Landabideak.
- Ibilgailuen zirkulazioa.
- Aparkamendua.
- Garajea.
- Oinezkoen zirkulazioa.
- Bizikleten zirkulazioa.

\* Garraiobideetan sartzen dira, autopista, autobide, errepide eta trenbideekin batera, berorien instalazio osagarriak. Era berean, horietan sartzen dira pertsonak edo merkantziak garraiatzera bideratutako beste bitartekoak ere, ingurune fisikoan antzeko eragina egiten badute.

Erabilera horien lagungarritzat hartzen dira, garraiobideak artatu eta ustiatzeko guneak, erregaien hornidurarako eremuak, aparkamendu eta atsedenlekuak, hornitegiak, sorospen guneak eta abar. Erabilera honekin lotutako eraikuntzarik ez da onartzen oro har, aipatu baldintzak betetzera mugatzen ez badira behintzat.

\* Landabideen artean sartzen dira nekazaritzako ustiaketetara heltzeko bideak eta ingurune naturalean kokatutako bizi-guneak elkarren artean komunikatzeko pistak, edonola eraikiak eta edonolako zoladura eta titularitatea dutelarik ere, baldin eta lerrun handiagoko errepide sarea osatzen ez badute.

\* Ibilgailuen zirkulazioa eta aparkalekuak oinarritzko zerbitzu gisa hartuko dira baldin eta eremu horretako eta oinezkoen zirkulaziorako eremuetako erabilera nagusien eta onargarrien zerbitzurako soil-soilik badira. Horrela bada, erabilera orokorreko zona guztietan onartuko dira, zirkunstantzia hori bereziki adierazteko premiarik gabe.

\* Aparkalekua zera litzateke, esparru pribatu edo publikoetan aire zabalean ibilgailuak biltzeko gunea. Aldiz, garajeak ibilgailuak gordetzeko guneak lirateke, baina itxita daude eta estalkia ere badute. Lokalean okupatzen duten azaleraren arabera, garajeak bi kategoriatan banatzen dira:

- 1. kategoria:  $< \text{ó} = \text{de } 400 \text{ m}^2 \text{ (t)}$ .
- 2. kategoria:  $> \text{de } 400 \text{ m}^2 \text{ (t)}$ .

\* Era berean, garaje erabileraren barruan bi aldaera daude: Erabilera pribatuko garajeak eta erabilera publikokoak. Erabilera pribatuko garajetat hartzen dira jabeek edota jabeen baimen berezia dutenek bakar-bakarrik erabiltzen dituztenak. Eta, erabilera publikoko garajeak, aldiz, edonork, doan edo ordainduz erabili ditzakeen garajeak dira, sarbide librekoak.

Azken horretan sartzen dira, halaber, honako erabilera lagungarri hauek ere: Komunak, instalazioetarako gelak, horien antzeko aretoak, ibilgailuak garbitzeko instalazioak eta konponketa bizkorreko tailerrak. Aitzitik, kategoria horretatik baztertuta daude erregaiak banatzeko unitateak, hornitegiak eta bestelako konponketa tailerrak.

— El uso de industria agraria incluye aquellas industrias agroalimentarias o forestales de 1.ª transformación no ligadas directamente a una explotación. y que por motivos funcionales, de relación con una denominación de origen o producción zonal, sanitarias u otros, deben implantarse en suelo rural y no sean considerados de una explotación. Respecto a las serrerías se consolidan las existentes en las condiciones que se establecen en el presente proyecto, no pudiéndose implantarse nuevas.

#### 5. Usos de comunicaciones.

Se establecen los siguientes usos de comunicaciones:

- Vías de transporte (autopistas, autovías, carreteras,).
- Caminos rurales.
- Uso de circulación rodada.
- Uso de aparcamiento.
- Uso de garaje.
- Uso de circulación peatonal.
- Uso de circulación en bicicleta.

\* Los usos de vías de transporte comprende las autopistas, autovías, carreteras y ferrocarriles junto con sus instalaciones complementarias. Asimismo se incorporan otros canales dedicados al transporte de personas o mercancías con similar impacto sobre el medio físico.

Como uso auxiliares de este uso se consideran las áreas de conservación y explotación, las estaciones de suministro de combustibles, las áreas de aparcamiento y descanso, las áreas de servicios, los puestos de socorro, etc., excluyéndose básicamente para este uso la implantación de edificaciones, que se limitarán a dar respuesta a las condiciones señaladas.

\* El uso de caminos rurales comprende las vías de acceso a las explotaciones agrarias, las pistas de comunicación entre núcleos de población emplazadas en el medio natural, con independencia de las condiciones técnicas de construcción y pavimentación y de su titularidad, que no integren en la red de carretera, de rango superior.

\* Los usos de circulación rodada, aparcamiento al servicio directo y exclusivo de los demás usos propiciados y admisibles en la zona y de circulación peatonal, tendrán en todo caso el carácter de usos de servicios básicos y se considerarán autorizados en la totalidad de las zonas de uso global sin necesidad de que dicha circunstancia se señale expresamente.

\* Se entiende por aparcamiento el estacionamiento de vehículos al aire libre en espacios de dominio público o privado. Se entiende por garaje la guarda de vehículos en espacios cubiertos y cerrados. En el uso de garaje se diferencian dos categorías en función de la superficie de local ocupado:

- Categoría 1.ª:  $< \text{ó} = \text{de } 400 \text{ m}^2 \text{ (t)}$ .
- Categoría 2.ª:  $> \text{de } 400 \text{ m}^2 \text{ (t)}$ .

\* Asimismo en el uso de garaje se establecen las variantes de garajes de uso privado, y garajes de uso público. Se considerarán como garajes de uso privado aquellos garajes que se utilicen de manera exclusiva por sus propietarios, o por otras personas autorizadas por ellos de forma directa; y como de garajes de uso público aquellos que se destinen a su utilización por el público en general, en condiciones de libre acceso, ya sea de forma gratuita u onerosa.

Este uso comprende, también como usos auxiliares los de aseos, cuartos de instalaciones y otros similares, así como las instalaciones de lavado de vehículos, y, los talleres de reparación rápida. Por el contrario, se consideran excluidos los usos de unidad de suministro de combustibles, estación de servicio y otros tipos de talleres de reparación.

Garajeak eta aparkalekuak, oro har, etxebizitza, industria, komunitatearen ekipamendu eta hirugarren sektoreko jardueren osagarritzat hartuko dira, baina hala ere, kasu horretan, dagozkion lurzatian garatu beharreko aparkaleku edota garaje plazen gehieneko kopurua, dagozkion erabilera nagusiaren zuzkidura premiei lotu beharko zaie.

\* Oinezkoen zirkulazioa eta bizikletena, xede horretarako bereziki prestatutako ibilbideetan egiten direnak dira.

#### 6. Espazio libreen erabilerak.

Espazio libreerarako erabilera, eraikuntza garapenak bazter-tuta dituzten eta, aparteko kasu berezietan izan ezik, komunikabi-de sareko elementuak —errepideak, aparkalekuak, espaloiak eta antzeko beste batzuk— ezartzera destinaturik ez dauden jabari publikoko eta sarrera libreko espazioen berariazko erabi-lera da.

Bertan, honako modalitateak bereizten dira:

- Hiriko espazio libreak.
- Landa-lurretako espazio libreak.
- Lurralde elementuak.

\* Hiriko espazio libreak, izenak berak adierazten duenez, hiri aldean aurki ditzakegun eraikinik gabeko esparruak lira-teke. Berez, jendearen aisialdirako mugatuak dira, bata landa-reak eta zuhaitzak landatzeko ere. Adibidez, plazak, oinezkoen alderdiak, jolasguneak, pasealekuak, lorategiak eta parkeak. Horiez gain, azpiegiturak edo eraikinak babesteko mugatu dituzten esparruak eta beren ezaugarriengatik eraikinak hartze-rik ezin duten guneak ere sail honetan sartzen dira.

Era berean, horiekin lotutako zenbait zerbitzu eta jarduera sail honi dagozkio, besteak beste, lorezaintza —makineria, lanabesak, materiala eta antzekoak gordetzea— eta jendearentzako beharrezkoak diren bestelako zerbitzuak —komun publikoak eta antzekoak—.

Hiriko espazio libreen erabilera oinarritzko zerbitzu gisa hartuko da eta, hortaz, erabilera orokorreko zona guztietan onartuko dira, zirkunstantzia hori bereziki adierazteko premia-rik gabe.

\* Landa-lurretako eremu libreak erabiltzean, jendearen aisialdirako landa ingurune lursail publikoetan gauzatutako jarduera berak burutuko dira.

\* Lurralde elementuak erabiltzea, azken finean lurralde horretan naturak eskaintzen dituen elementuak erabiltzea beste-rik ez da, naturako osagaiek giza jarduera gainditzen dutelarik. Esaterako, ibai ibilguak, mendi gailurrak, mendi garaietako ere-muak, natura-ezaugarri berezietako eremuak eta antzekoak. Bertan ez da ekoizpen jarduerarik garatzen, ezta giza ekimen nabarmenik ere.

#### 7. Komunitatearen ekipamendua.

Ekipamendu komunitariorako erabilerek, entitate publiko nahiz pribatuek biztanleen zerbitzurako irabazizko xederik gabe gauzatutako jarduerak biltzen dituzte.

Ildo horri jarraituz, Udalak entitate pribatu batek gauzatu-tako jarduera jakin bat ekipamendu komunitario gisa kalifika-tzerik izango du, jarduera horrek sorospen izaera, zerbitzu publikoarena duela eta irabazizko xederik gabekoa dela balo-ratu ondoren.

Irabazizkotzat hartzen bada, jarduera hirugarren sektoreko erabilera gisa, edota, hala badagokio, egoitza erabilera gisa tipi-fikatuko da.

Komunitatearen ekipamendurako erabilerak honako honela bereizten dira:

Los usos de garajes y aparcamiento se considerarán, con carácter general uso auxiliares de los usos residenciales, industriales, terciarios y de equipamiento comunitario, si bien, en tal caso, el número máximo de plazas de aparcamiento o garaje a desarrollar en la parcela correspondiente se deberá adecuar a las necesidades de dotación del uso principal a que de servicio.

\* Los usos de circulación peatonal y en bicicleta son aquellos que se producen sobre itinerarios preparados al efecto.

#### 6. Uso de espacios libres.

El uso de espacios libres es el propio de aquellos espacios, de dominio público y libre acceso, en los que se excluyen —salvo excepciones singulares— los desarrollos edificatorios, y, no destinados a la implantación de elementos de las redes de comunicaciones —carreteras, aparcamientos, aceras y otros similares—.

Se distinguen en él las siguientes modalidades:

- Uso de espacios libres urbanos.
- Uso de espacios libres rurales.
- Uso de elementos territoriales.

\* El uso de espacios libres urbanos es el propio de los espacios no edificables situados en el ámbito urbano, destinados al ocio y expansión de la población y a la plantación del arbolado y vegetación. plazas, áreas peatonales, áreas de juego, paseos, jardines y parques; el de los que cumplen una función de protección de construcciones o infraestructuras; o, el de los que no resultan edificables por su carácter residual.

Asimismo se incluirán en él los usos auxiliares de mantenimiento de jardinería —guarda de maquinaria, aperos y material y otros similares— y servicio a los usuarios —aseos públicos y otros similares—, necesarios.

El uso de espacios libres urbanos tendrá en todo caso el carácter de uso de servicio básico y se considerará directamente autorizado en la totalidad de las zonas de uso global sin necesidad de que esta circunstancia se señale de forma expresa.

\* El uso de espacios libres rurales es el correspondiente a los terrenos de dominio público destinados al ocio y expansión de la población en el medio rural.

\* El uso de elementos territoriales es el de los elementos naturales del territorio en los que prevalece éste carácter sobre la incidencia de la actividad humana, como el propio de los cauces fluviales, las cumbres y zonas de alta montaña, las zonas de interés naturalístico y otros, no sujetos a una actividad productiva u otro tipo de utilización humana relevantes.

#### 7. Uso de equipamiento comunitario.

Los usos de equipamiento comunitario comprenden las actividades de servicio a la población, ejercidas sin fines de lucro por entidades públicas o privadas.

En ese sentido el Ayuntamiento podrá optar por la calificación de una determinada actividad ejercida por una entidad privada como equipamiento comunitario, a partir de la valoración del carácter fundamentalmente asistencial, de servicio público y no lucrativo de la misma.

En caso de considerarse como lucrativa, la actividad se tipificará como uso terciario, o en su caso, residencial.

Se establecen las siguientes modalidades de usos de equipamiento comunitario:



- Irakaskuntza ekipamendua.
- Kirol ekipamendua.
- Erakundeen ekipamendua.
- Osasun eta sorospen ekipamendua.
- Gizarte eta kultur ekipamendua.
- Aisialdirako ekipamendua.
- Erljio arloko ekipamendua.

\* Irakaskuntza ekipamendurako erabilerak irakaskuntza biltzen du, bere modalitate guztietan, titularitate publiko zein pribatukoak, baita dagozkien erabilera lagungarriak ere.

\* Kirol ekipamendurako erabilerak kirol praktika eta kultura fisikoa biltzen ditu, beren modalitate guztietan, eta berorien irakaskuntza, hala eraikinetan, nola espreski horretarako egokitutako espazio libreetan, baita dagozkien erabilera lagungarriak ere, titularitate publiko zein pribatuko erregimenean gauzatzen direnak.

\* Erakunde ekipamendurako erabilerak izaera publikoko erakundeen eta administrazioen erabilerak biltzen ditu. Horietan sartzen dira, besteak beste, komisaldegia eta postetxeak, baldin eta inguruko beste erabilera edo jarduerekin bat etortzen badira. Horiekin batera garatutako ekimen osagarriak ere sail honetan sartzen dira beti.

\* Sorospena eta laguntza eskaintzeko ekipamendua erabiltzea gaixoei tratamendua eman eta beroriek hartzen dituzten etxeak erabiltzea litzateke (kontsultategiak, erietxeak eta antzekoak), edota babes berezia behar duen jendeari bestelako zerbitzua eskaintzen diotenak, zahar-etxeak eta zaharren egoitzak. Irabaziak erdiesteko asmorik ez duten jarduerak lirateke, publikoak eta pribatuak.

\* Ekipamendu soziokulturalak, kultur sustapen edo sorkuntza artistikorako jarduerak biltzen ditu bere baitan, hala nola liburutegietan, museoetan, erakusketa eta hitzaldietako aretoetan, musika auditorioetan, antzokietan eta bestelakoetan gauzatutakoak. Horiekin batera garatutako ekimen osagarriak ere sail honetan sartzen dira.

\* Erljio arloko ekipamendurako erabilerak, eliza, ermita, kapera eta erljio katolikoko parroki zentroetan garatzen diren kultu edo erljio heziketarako jarduerak eta beste erljio batzuetako zentroetan gara litezkeenak biltzen ditu, baita dagozkien erabilera lagungarriak ere.

\* Aisialdiko ekipamendurako erabilerak antzokiak, zineak, ikuskizun eta jolas parkeak eta irabazizko xederik gabe gauzatutako bestelako atsedeen erabilerak biltzen ditu.

\* Zerbitzu publikoen ekipamenduaren sailean, aurreko sailetan aipatu ez diren bestelako jarduerak sartzen dira, jendeari zerbitzuren bat eskaintzearen garatutakoak alegia. Oso izaera ezberdineko jarduerak dira, bereziki administratiboak ez direnak, esaterako, suhiltzaileak, polizia, merkatuak, postetxeak, hilerriak, aterpetxeak, turismoko kanpamenduak eta antzekoak—horien erabilera osagarriekin batera—, baina denak Administrazio Publikoak burutuak lirateke eta beren ezaugarri funtzionalen ondorioz, bestelako jarduerak gauzatzeko mugatu diren lursail edo esparruekin bat ez datozenak. Hori dela eta, kasuan kasuko araudi berezia bete beharko dute.

Erabilera orokorreko zonak izanik, erabilera nagusia egoitza, industria edota hirugarren sektorekoa duten zonentzako gaur egun indarrean dagoen Planeamendu Erregelamenduak derrigorrezko zuzkidura gisa definitzen dituen ekipamendu komunitarioko erabilerak, oinarritzko zerbitzutat hartuko dira aipatu zona guztietan—alorreko planik eskatzen ez duten zonak badira ere—. Beraz, ezarri ahal izango dira planeamenduak bereziki onartzen ez baditu ere.

- Uso de equipamiento docente.
- Uso de equipamiento deportivo.
- Uso de equipamiento institucional.
- Uso de equipamiento sanitario-asistencial.
- Uso de equipamiento socio-cultural.
- Uso de equipamiento recreativo.
- Uso de equipamiento religioso.

\* El uso de equipamiento docente comprende la enseñanza en todas sus modalidades, tanto de titularidad pública como privada, así como los usos anejos correspondientes.

\* El uso de equipamiento deportivo comprende la práctica deportiva y la cultura física en todas sus modalidades, y su enseñanza, tanto en edificios como en espacios libres acondicionados de forma expresa para ello, así como los usos auxiliares correspondientes, ejercidos tanto en régimen de titularidad pública como privada.

\* El uso de equipamiento institucional comprende los usos institucionales y administrativos de carácter público. Entre ellos se considerarán las comisarias de policía y las oficinas de correos que no incluyan funciones incompatibles con la contigüidad o proximidad a otros usos, así como, en todos los casos, los usos auxiliares correspondientes.

Las edificaciones residenciales mantendrán el número de viviendas actuales, con las excepciones planteadas en estas normas.

Será preceptiva la instalación de un sistema depuración de aguas residuales y fecales para toda obra nueva, de reforma o ampliación de cualquier construcción que genere este tipo de residuos y deberá ser recogida en el proyecto de construcción del edificio.

*61. artikulua. Lurzoru Hiritarrezineko lurzatiketak.*

Landako finka bat, honako kasu hauetan bakarrik zatitu edo azpibanatu ahal izango da: Baserri bat baldin badago, egoitzarako eraikina kokatuta dagoen eremuaren ondoko finka-zatia erasaten ez bada. Edota, erasanda ere, baserriko egoitza erabilerako eraikinaren inguruan gutxienez 4 ha-tik (40.000 m<sup>2</sup>) gorako lurzatiak ondorioztatzen direnean. Gainerako kasuetan, zatiketaren ondorioz 4 ha-tik (40.000 m<sup>2</sup>) beherako lurzatiarik ondorioztatzen ez denean.

Hala ere, arau horrek bere salbuespenak izango ditu. Horrela, saila 40.000 m<sup>2</sup>-tik beherako lurzatiatan banatu ahal izango da honako kasu hauetan:

— Mugako lurjabeen aldeko eskualdaketa egiten denean, baldin eta zatiketaren edo azpibanaketaren ondorioz, bai zatitzen den finkak eta bai zati hori hartuko duen mugakoak, gutxieneko lurzatiaren hedadura mantentzen badute.

— Azpibanatutako zatia, eragiketaren hurrengo urtearen barruan eta eraginkorki, etxe edo eraikin egonkor bat egiteko, industriarako edota nekazaritzaz bestelako jardueraren baterako erabiltzen bada. Horretarako, dena den, hirigintza legeriak aurreikusten duen baimena eskuratu beharko da aurrez; eta, eraikuntza lanak bukatutakoan, lizentzia horretan ezarritako epeak bete direla egiaztatu beharko da.

Hala eta guztiz ere, lurzatiak finka txikiagotan zatitu ahal izango dira, baldin eta ondorioztatuko diren lurzati horiek Herri Administrazioari eskualdatuko bazaizkio Sistema Orokorrak edo herriaren onurako eraikinak ezartzeko.

Finka bat lurzatiatan banatzearen arrazoia edozein delarik ere, honako baldintza hauek bete beharko dira:

— Nekazaritza edo basogintzako ustiaketari lotuta badaude, ondorioztatzen diren lurzatiek elkarren ondoko lursailak hartuko dituzte.

— Erasandako lursailak beste erabileraren bati lotuta badaude, ondorioztatzen diren lurzatiek elkarren segidako unitate bat osatuko dute.

*72. artikulua. Oraingo baserrietako egoitza erabilerako eraikinak eraberritzea eta birgaitzea.*

Landa inguruan lehendik egoitzarako eraikin bat dagoen kasu guztietan, bizileku den baserri hori eraberritzeko eta birgaitzeko aukerari helduko zaio lehenasunez. Eraikin hori auri egoeran badago, berreraikitze edo ordezteko baimena emango da, 73. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

1. Irizpide orokor gisa, baserria eraberritzeko edo birgaitzeko burutzen den obra orotan, eraikin horren lehengo ezaugarri nagusienak errespetatuko dira.

2. Kanpoko elementuetan eragina duten obrak.

Jatorrizko baserriaren itxura mantenduz egingo dira beti, zurezko teilategalak ere errespetatuz. Estalkian nolabaiteko aldaketak onartuko dira baina, betiere, Lurzoru Hiritarrezinean eraikin berrientzako onartzen diren gehieneko altuerak gainditu gabe. Hala ere, jatorrizko eraikinak gehieneko altuera horiek gainditzen baditu, estalkiak jatorrizko bolumen hori gainditu gabe aldatu ahal izango dira.

Eraikinak izan ditzakeen balio bereziko elementu arkitektoniko eta artistiko guztiak mantenduko dira, hala nola, armariak, ate eta leihoburuak, fatxaden aurrealdeak eta abar.

Kanpoko materialei dagokienez, ordenantza hauetako 53. artikuluan ezarritakoa errespetatuko da kasu guztietan. Arotzeria, estalkiko materialak eta abar ordezkatu ahal izango dira baina betiere, jatorrizko baserriaren itxura orokorra eta elementu bereziak gordez.

*Artículo 61. Parcelaciones en el Suelo No Urbanizable.*

La división o segregación de una finca rústica solo será válida cuando: En el caso de existir un caserío, la parte de la finca espacialmente continua en la que se ubique el edificio residencial del caserío no resulte afectada, o en el caso de resultar afectada, cuando de lugar a parcelas espacialmente continuas superiores a 4 Ha (40.000 m<sup>2</sup>) en torno al edificio residencial del caserío. En los demás casos, cuando no de lugar a parcelas inferiores a 4 Ha (40.000 m<sup>2</sup>).

Se establecen unas excepciones a esta regla, pudiendo realizarse segregaciones por debajo de 40.000 m<sup>2</sup> en los siguientes supuestos:

— Si se trata de cualquier clase de disposición en favor de propietarios de fincas colindantes, siempre que como consecuencia de la división o segregación, tanto la finca que se divide o segrega como la colindante no resulte de extensión inferior a la parcela mínima.

— Si la porción segregada se destina de modo efectivo, dentro del año siguiente a cualquier tipo de edificación o construcción permanente, a fines industriales o a otros de carácter no agrario, siempre que se haya obtenido la licencia prevista en la legislación urbanística y posteriormente se acredite la finalización de la edificación o construcción, en el plazo que se establezca en la correspondiente licencia.

Sin embargo, si podrán efectuarse segregaciones inferiores a las requeridas a fin de transmitir parcelas a la Administración Pública o entidades para la implantación de Sistemas Generales, o edificios de interés público.

Cualquiera que sea el fin de las mismas, las parcelaciones deberán cumplimentar los siguientes requisitos:

— Siempre que estén vinculadas a usos de explotación agraria o forestales las parcelas resultantes deberán estar integradas por terrenos espacialmente continuos.

— Siempre que los terrenos afectados estén vinculados a otros usos, las parcelas resultantes deberán constituir un todo espacialmente continuo.

*Artículo 72. Reforma y rehabilitación de los edificios residenciales de caseríos existentes.*

La reforma y rehabilitación de los edificios residenciales de los caseríos será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una edificación residencial rural ya existente. En el caso de declaración de ruina del mismo se permitirá la reedificación o sustitución de acuerdo con lo establecido en el art. 73.

1. Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los edificios residenciales de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2. Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizará manteniendo la tipología del caserío primitivo, así como los aleros en madera, pudiendo haber modificación de cubiertas, respetando las alturas permitidas para la construcción de nuevos edificios residenciales en el Suelo No Urbanizable, en el caso de que el edificio original supere esas alturas, se permitirá la modificación de las cubiertas siempre que no se supere el volumen original.

Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.

Los materiales exteriores respetarán en todos los casos lo que dispone el art. 53 de las presentes ordenanzas pudiendo sustituir los elementos exteriores como carpintería, cubierta, etc. pero manteniendo en todos los casos el aspecto general y los elementos singulares del caserío primitivo.



3. Baserria birgaitzeak edo eraberritzeak, eranskinak eraitsi beharra ekarriko du berarekin, honako salbuespen hauetan izan ezik: Udal teknikariaren eta udalbatzaren iritziz, bolumen nagusiaren antzeko egitura, eraikuntza kalitatea eta apaindura baldintzak dituzten eranskinak. Horrelakoetan, eranskin edo eraikuntza horiek mantendu ahal izango dira baina, ahal delarik, baserriko egoitza erabilerako eraikinaren bolumenean txertatuko dira (estalki nagusiko isurialdeak luzatuz).

Baserriaren eranskinak ezinbestez eraitsi beharrekoak badira, baserria bera bolumen nagusiak beheko oinean hartzen duen azaleraren %25ean handitu ahal izango da. Handitutako eremu hori, bolumen nagusiaren isurialdeak luzatuz eta baserriaren osotasunean txertatuz estaliko dira; eta betiere, Lurzoru Hiritarrezinean etxebizitzarako egiten diren eraikin berrientzako ezarritako apaindura baldintzak beteko dira.

Gorago aipatu diren salbuespenezko eranskinak mantentzen badira, eranskin horiek beheko oinean hartzen duten azalera handitu daitekeen %25 horren barruan konputatuko da, bolumen nagusiari atxikitako eranskinak izan ala ez. Eranskin horiek egoitzarako edo egoitzaren lagungarri gisa erabili ahal izango dira.

Handitzeko eskubide hori behin bakarrik erabili ahal izango da, baita obra horretan aipatu %25 hori agortzen ez bada ere.

Eranskinen barruan sartzen dira baserriko egoitza erabilerako eraikinaren bolumen nagusiari erantsitako edo erantsi gabeko eraikuntza, teilape edo estalpe guztiak. Eranskin gisa hartuko dira bai jabetza nagusiaren lurzatian daudenak baita jabetza horren muga, jabe beraren lurzatian daudenak ere.

#### 4. Gehieneko etxebizitza kopurua.

Baserriko eraikin eraberrituak gehienez ere bi etxebizitza har ditzake (eraikin bakar batean). Eraikita daudenean, nekazaritzako ustiapenari loturik eta ustiapen horretatik bananezin gisa inskribatuko dira Jabetza Erregistroan, honako irizpide hauek betez uneoro:

— Gehienez baimendutako etxebizitza kopurua: 2.

— Etxebizitza bakoitzean gutxienez eraikitako azalera: 100 m<sup>2</sup> (eraikiak).

Baserri (nekazaritzako ustiapen) batean bi etxebizitza badaude besterik ezin izango da eraiki, baldin eta etxebizitza berri horrek gutxienezko lurzati baldintzak betetzen ez baditu eta nekazaritzako ustiapen berri bati lotetsia ez badago behintzat.

Baserri batean lehen egoitzarako eraikina izan zela frogatzeko, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira: Higiezinaren eskriturak (2002ko abenduaren 31 baino lehenagokoak) eta erroldatze ziurtagiria, 1950. urtetik 2002ko abenduaren 31ra bitartekoa.

Eraikinak ur, argindar, telefonia eta abarren hornidura zerbitzurik izan ezean, jabearen kontura instalatu beharko dira Udalak ezartzen dituen baldintza teknikoak eta trazadura baldintzak betez; eta betiere, Udalaren iritziz bideragarriak diren heinean (inguruan lehendik dauden eraikinen edota iturri beretatik hornitzen diren eraikinen zerbitzuetan kalterik eragin ez dezaten).

*81. artikulua. Landa ingurunean ezarri beharreko herri onurako eraikin eta instalazioak.*

Halakotzat hartzen dira titularitate publiko zein pribatuko hirugarren sektoreko eta komunitatearen ekipamendurako erabilerak eta zerbitzuen azpiegiturak, ezinbestez landa ingurunean ezarri behar direnak, baldin eta jarduera horien herri erabilpenak edo gizarte onurak kontuan hartuz, premia hori behar bezainbat justifikatzen bada.

3. La rehabilitación o reforma del edificio residencial del caserío llevará aparejada el derribo de los anejos con las siguientes excepciones: Anejos o construcciones de igual calidad estructural, constructiva y estética a la del volumen principal a juicio del técnico y corporación municipal. En este último caso se permitirá mantener dichos anejos o construcciones preferentemente integradas en el volumen principal del edificio residencial del caserío (mediante la prolongación de los faldones de la cubierta principal).

En el caso de que haya que derribar los anejos del caserío se permitirá ampliar el mismo en un 25% de la superficie de ocupación en planta baja del volumen principal, cubriéndose dicha ampliación con los faldones de la cubierta del volumen principal e integrados estéticamente en el conjunto del caserío, cumpliendo con las determinaciones estéticas establecidas para los nuevos edificios de vivienda en Suelo No Urbanizable.

En el caso de que se mantengan alguno/s de los anejos incluidos en la excepción anterior la superficie e ocupación en planta baja de los mismos computará como parte del 25% que se permite ampliar, sean anejos adscritos al volumen principal o no. Los usos a los que se pueden destinar estos anejos son el residencial o auxiliar al mismo.

El derecho a ampliar solo se puede ejercer una única vez, independientemente de que se agote o no la posibilidad de ampliación del 25%.

Se entenderá por anejos, toda construcción, tejavana o cubrición adosada o no al volumen principal del edificio residencial del caserío ubicada en la misma parcela de la propiedad principal o en parcela del mismo propietario colindante a ésta.

#### 4. Número máximo de viviendas.

El número máximo de viviendas que podrá albergar el edificio residencial rehabilitado del caserío será de dos (en un único edificio), y una vez construidas se deberán inscribir en el Registro de la Propiedad como vinculadas a la correspondiente explotación agrícola e inseparable de la misma, ajustándose a los siguientes criterios:

— Número máximo de viviendas permitidas: 2.

— Superficie construida mínima por cada vivienda: 100 m<sup>2</sup> (construidos).

La existencia de dos viviendas dentro de un caserío (explotación agraria) supondrá la imposibilidad de edificar otra, salvo que la nueva vivienda cumpla los criterios de parcela mínima y esté vinculada a una nueva explotación agraria.

Se entiende que ha existido un edificio residencial de caserío siempre y cuando se acredite su existencia fehacientemente mediante la presentación de escrituras (anteriores al 31 de diciembre de 2002), certificado de empadronamiento posterior a 1950, y anterior al 31 de diciembre de 2002.

Para el caso de que no cuente con los servicios de agua, electricidad, telefonia etc. éstos deberán ser instalados a cuenta de la propiedad, en las condiciones técnicas y de trazado que establezca el Ayuntamiento y siempre que lo considere posible (con el objeto de que las edificaciones existentes en el entorno, o se abastezcan desde las mismas fuentes, no sufran alteraciones en la calidad de los servicios).

*Artículo 81. Edificaciones e instalaciones de interés público que deban emplazarse en el medio rural.*

Se consideran como tales los usos terciarios y el equipamiento comunitario, de titularidad pública o privada así como los usos de infraestructuras de servicios, cuya implantación deba realizarse en el medio rural y se justifique suficientemente desde el punto de vista de su utilidad pública o interés social.

Proposatzen den jarduera lehendik zutik dauden eraikinetan ezartzea ezinezkoa bada, erabilera horiek hartzera bideratutako eraikin berriak egiteko baimena emango da, besteak beste, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Horretarako baimena eskuratuko bada, aldez aurretik Plan Berezi bat egin eta onetsi beharko da. Plan horretan finkatu beharko da proposatutako jarduerak eta eraikuntza kokagune horretan ezartzearen egokitasuna eta jardueraren herri erabilpena eta gizarte onura.

b) Arau hauetan ezarri den araudi orokorra.

d) Eraikuntza baldintzak:

— 10 metroko tartea, lurzatiaren mugetara.

— 100 metroko tartea, lehendik etxebizitzarako dauden eraikinetara.

— Eraikuntza berriak 100 m<sup>2</sup> eta 300 m<sup>2</sup> bitarteko azalera hartuko du oinean.

— Eraikuntzak gehienez 2 oineko profila izango du sestra gainean (beheko oina eta lehen oina). Dena den, sotoa eta erdisotoa eraikitzeke baimena emango da eta estalkipean geratzen diren eremuak ere erabili ahal izango dira.

— Eraikuntzak 6,00 metroko altuera izango du gehienez. Neurri horiek, Udalean behar bezala justifikatutako kasuetan bakarrik gainditu ahal izango dira (malda handiko lursailak direnean).

e) Aparkamendu hornidura: Aparkaleku 1 eraikitako 100 m<sup>2</sup> bakoitzeko.

f) Etxebizitza lagungarria: Instalazioak ustiatzen edota zaintzen dituzten pertsonak erabiliko dute eta, betiere, eraikuntza nagusia osatzen duen probetxamenduaren barruan eraiki eta konputatuko da.

#### 82. artikulua. Bordei buruzko araudia.

Arau hauen ondorioetarako, «borda» gisa hartuko da nekazaritza edo abelazkuntzaren erabilera lagungarrietarako izanik, honako ezaugarri hauek betetzen dituen eraikin oro:

— Harlanduzko karga-hormez eraikia.

— Zurezko egitura bai barruan bai estalkian.

— Zeramikazko teilaz estalia.

Bordak lehendik zutik badaude, beren horretan finkatuko dira. Gainera, etxebizitzarako erabili ahal izango dira (etxebizitza bat borda bakoitzean) baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte:

— Borda lehendik bazegoela frogatu behar da, 2002ko abenduaren 31 baino lehenagoko eskritura erakutsiz.

— Beheko oinean gutxienez 100 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia izan behar du, eranskinak eta teilapeak sartu gabe.

— Hiri Antolaketako Arau hauek onartzeko unean hormigoizko bidea izango du lurzatiaraino, gutxienez 3 m zabalekoa, 55. artikuluan finkatutako baldintzetara egokitua. Bordaren jabea arduratuko da bide-zati horren artapenez.

— Ur, argindar, telefonia eta abarren hornidura zerbitzurik izan ezean, 72. artikuluko azken pasartean xedatutakora joko da.

— Borda, dagokion lurzatiari lotuko zaio Erregistroan eta lurzati horretan ez da azpibanaketarik onartuko.

Siempre que la actividad propuesta no sea susceptible de implantación en edificios ya existentes, podrá autorizarse la construcción de nuevas edificaciones destinadas a los citados usos siempre que se cumplimenten, entre otras cosas las siguientes condiciones:

a) La autorización estará supeditada a la previa y preceptiva formulación y aprobación de un Plan Especial que justifique la idoneidad del emplazamiento de las actividades y edificación propuestas así como la utilidad pública y el interés social del mismo.

b) La normativa de carácter general establecida en las presentes Normas.

d) Condiciones de edificación:

— 10 m. a los límites de parcela.

— 100 m. a edificaciones de viviendas existentes.

— La ocupación mínima y máxima en planta de la nueva construcción serán entre 100 m<sup>2</sup> y 300 m<sup>2</sup>.

— El perfil máximo de la edificación será de 2 plantas sobre rasante (planta baja, planta primera), admitiéndose adicionalmente la construcción de un sótano o semisótano así como el uso de los espacios resultantes bajo cubierta.

— La altura máxima de la edificación será de 6,00 m. Solamente en casos debidamente justificados ante el Ayuntamiento (terrenos de gran pendiente) se podrán aumentar dichas medidas.

e) Dotación de aparcamiento: 1 plaza / cada 100 m<sup>2</sup> construidos.

f) Vivienda auxiliar: Se destinara a las personas que regenten o custodien las instalaciones, y se construirán dentro del aprovechamiento edificatorio integradas en la construcción principal.

#### Artículo 82. Regulación de las bordas.

A los efectos de estas normas se considerará como «borda» toda construcción de uso auxiliar al uso agrario o ganadero que cumpla con las siguientes características:

— Estar construida con muros de carga de mampostería.

— La estructura interior y de cubierta serán de madera.

— La cubrición será de teja cerámica.

Con respecto a las bordas existentes, éstas se consolidan en su estado actual, pudiendo destinarse a usos de vivienda (1 por borda) siempre y cuando cumplan con las siguientes condiciones:

— Acreditar su existencia fehacientemente mediante escritura anterior al 31 de diciembre de 2002.

— La superficie construida mínima en planta baja sea de 100 m<sup>2</sup>, sin contar con los anejos y tejamanos.

— En el momento de aprobación de estas NN.SS. deberán disponer de un camino hormigonado hasta la parcela, de como mínimo 3 m. de anchura que deberá ser acondicionado conforme a las condiciones recogidas en el art. 55. El mantenimiento de este tramo será a cuenta de la propiedad del a borda.

— En el supuesto de carecer de los servicios como, agua, electricidad, telefonía etc se estará a lo dispuesto en el art. 72 —último párrafo—.

— Deberán vincularse registralmente a la parcela sobre la que se asientan no pudiendo realizarse segregaciones de la misma.

Bordak eraberritu edo birgaitzen direnean, estetika eta eraikuntza arloko baldintza hauek bete beharko dira.

— Eraikuntza osoa edo zati bat konpondu behar bada, jatorrizko eraikinaren eraikuntza sistema eta material berak erabili beharko dira.

— Bordak oinean hartzen duen azalera edo bolumena ezin izango da inolaz ere gehitu. Hau da, borden kasuan ezin izango da aplikatu 72. artikuluko 3. pasartean handitzei buruz xedatutakoa, nahiz eta gainerako xedapen guztiak bete beharko diren.

— Borda etxebizitzarako birgaitzen ez bada behintzat, borda eraberritzekoan ez da onartuko kalitateko arotziarik eta tximiniarik, ezta argindar, gas edo ur hornidurarako hartunerik ere.

#### 87. artikulua. *Ur ibilgu publikoak eta beren babesguneak.*

1. Honakoak aplikatuko dira: Abuztuaren 2ko 29/1985 Legea, urei buruzkoa; horren garapenerako Erregelamenduak eta EAEko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeke Lurralde Plan Sektoriala.

2. Arau eta lege horien arabera, Amezketako ibai ibilguak:

— Amezketako erreka I kategoriako zatiak.

— Bedaio erreka I kategoriako zatia.

— Gainerako ibilguak 0 kategoriako eta 00 kategoriako zatiak.

Kategoria horiek agintzen dutenez, udal barrutiko «landa inguruneke erreka bazterrei» dagokienez, gutxieneke distantzia hauek errespetatu beharko dira eraikuntza eta hiritartze lan orotan:

— I eta II mailako zatiak: 30 m. gutxienez, ibilguaren mugalerritik.

— 0 mailako zatia: 15 m. gutxienez, ibilguaren mugalerritik.

— 00 kategoria: uren Legeak agintzen duena.

«Landa inguruneke erreka bazterren» kategorian i10 metroko tartea errespetatuko da ibaiertzeko landare-orlaren kanpoaldearekiko.

Bestalde, udal barrutian dauden «hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartzen dituzten ibai bazterrei» dagokienez, Oria ibaiaren kasuan II, I eta 0 mailako ibai zatietan «landa inguruneke erreka bazterrei» buruz adierazi diren tarte berak errespetatuko dira.

Esan beharra dago «Esparru Garatuetako Bazterrak» ere badirela udalerrian. Horieta, eraikuntza gutxienez 10 metro atzeratu beharko da II mailako ibai zatietan, ibaiak edo ibai ibilguak muga zehatza badu; bestela, ibaiak edo ibai ibilguak muga zehatzik ez badu, alegia, 14 metroko distantzia errespetatuko da. Era berean, gutxienez 10 metro atzeratu beharko da I eta 0 mailako ibai zatietan, ibaiak edo ibai ibilguak muga zehatza badu; eta, ibaiak edo ibai ibilguak muga zehatzik ez badu, berriz, 12 metrokoa.

Azkenik, esan beharra dago, halaber, «Hirigintza Garapen Berriak har ditzaketen Esparru gisa definitutako Bazterrak» ere badirela udalerrian. Horieta, eraikuntza gutxienez 16 metro atzeratu beharko da II mailako ibai zatietan; eta 12 metro, I eta 0 mailako zatietan. Urbanizazioa, berriz, gutxienez 6 (8 (Gutxieneke atzeraemangunea parentesi artean adierazitako parametrora handitu ahal izango da Hirigintza Garapen Berriak har ditzaketen Esparruetako Bazterren hirigintza guneak Ondo Zaindutako Landaretza duten Bazterren ingurumen gunearekin bat egiten duenean)) metro atzeratu beharko da II mailako ibai zatietan; eta 2 (4) metro, I eta 0 mailako zatietan.

En lo que se refiere a las condiciones estéticas y constructivas que se deberán cumplir en los casos de reforma o rehabilitación de las bordas, estos son los siguientes:

— En el supuesto de tener que reponer toda o parte de la construcción, únicamente se permitirá hacerlo con los mismos sistemas constructivos y materiales que los del edificio original.

— En ningún caso se permitirá ampliar la ocupación en planta o el volumen de la borda, no pudiendo acogerse, a lo establecido en el punto 3 del art. 72 en lo referente a las ampliaciones, si bien deberá cumplir con el resto de lo expresado en dicho punto.

— Salvo en el caso de su rehabilitación como vivienda, no se permitirán carpinterías de calidad, chimeneas, acometidas eléctricas, de gas ni de agua en las reformas de las bordas.

#### Artículo 87. *Cauces Públicos y zonas de protección.*

1. Será de aplicación la Ley 29/1985 de 2 de agosto de Aguas, Reglamentos posteriores de desarrollo y el P.T.S. de ordenación de márgenes de los ríos y arroyos de la C.A.P.V.

2. Según estos, los diversos cauces fluviales del municipio de Amezketako se categorizan de la siguiente manera:

— Regata Amezketako Tramos de Categoría I.

— Regata Bedaio Tramo de Categoría I.

— El resto de cauces Tramos de Categoría 0 y Categoría 00.

Con estas categorías se obtienen los siguientes retiros mínimos para edificación y urbanización, para los márgenes existentes en el municipio que incluyen dentro de la categoría de «márgenes en ámbito rural»:

— Tramos de nivel I y II: 30 m. de retiro mínimo a la línea de deslinde de cauce.

— Tramo de nivel 0: 15 m. de retiro mínimo a la línea de deslinde de cauce.

— Categoría 00: Lo establecido en la Ley de Aguas.

En la categoría de «márgenes de ámbito rural» se respetará un retiro al borde exterior de la orla de vegetación de ribera de 10 metros.

Por lo que se refiere a los «Márgenes ocupadas por Infraestructuras de Comunicaciones Interurbanas» también existentes en el municipio –referidos al Oria, los retiros para los tramos de nivel II, I y 0 son los señalados para los «márgenes en ámbito rural».

Señalar también la existencia de zonas de «Márgenes en Ambitos Desarrollados» cuyos retiros mínimos de la edificación para los tramos de nivel II son de 10 m. con línea de deslinde o encauzamiento definida o 14 m. sin línea de deslinde o encauzamiento definida; para los tramos de nivel I y 0 son de 10 m. con línea de deslinde o encauzamiento definida o de 12 m. sin línea de deslinde o encauzamiento definida.

Por último señalar la existencia de «Márgenes definidas como Ambitos con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos» en los que se plantea retiros mínimos de la edificación para los tramos de nivel II de 16 m. y para los tramos de nivel I y 0 de 12 m. y retiros mínimos de la urbanización para los tramos de nivel II de 6 (8 (Se podrá ampliar el parámetro de retiro mínimo hasta la cifra indicada entre paréntesis en el caso de coincidir la zona urbanística de Márgenes en Ambitos con Potencial de Nuevos Desarrollos Urbanísticos con la zona medioambiental de Márgenes con Vegetación Bien Conservada)) m. y para los tramos de nivel I y 0 de 2 (4) m.

3. Ibai eta erreka bazterrek, honako baldintzak bete beharko dituzte beren luzera osoan:

— Bost metro zabaleko zorpena, erabilera publikorako.

— Ehun metro zabaleko zorpena, uren poliziarako.

a) Zorpeneko eremua.

Zorpeneko eremuan nahi den hazia erein edo nahi diren zuhaitzak landatu ahal izango dira, baldin eta 1986ko apirilaren 11ko Uren Jabari Publikoko Erregelamenduak bere 7. artikuluan ezartzen duen pasabidea oztopatzen ez bada.

Zorpeneko eremuan ez da inolaz ere eraikuntza berririk egingo. Aitzitik, lehendik dauden eraikinen artapen lanak egin ahal izango dira, erakunde eskudunek bidezko baimena ematen badu.

b) Uren poliziarako eremua.

Ur poliziarako eremuan, hau da, ibilgutik hasi eta horizontalki ehun metroko zabaleran, Arroaren Erakundearen baimen administratiboa beharko da derrigorrez, edozein lan edo obrari ekiteko, hala nola:

— Lursailaren erliebe naturala nabarmen aldatuko duten obrak.

— Agregakinen erauzketak.

— Era guztietako eraikuntzak, behin betikoak eta behin-behinekoak.

— Ibaia haztean korronea oztopa dezakeen edota uren jabari publikoa degradatu edo kaltetu dezakeen erabilera edo jarduera oro.

Debekatuta dago erreka horiei inolako estaldurak egitea. Bideen pasabiderako zubiak bakarrik baimenduko dira.

#### 9 HEA, OLA AUZOA

$$A = 69.573 \text{ m}^2$$

9.1 ALORREKO PLANA A = 45.143 m<sup>2</sup>

*Hirigintza Erregimen Orokorra.*

Lurzoru Hiritargaria:

— B.10 Industriadako zonak: 41.805 m<sup>2</sup>

— E.10 Hiriarteko errepideak - Saihesbidea: 3.338 m<sup>2</sup>

Banaketa-gune bakar bat eratu da, P.P.9.1 Alorraren eremua-rekin bat eginez. Berariazko probetxamendua ere, Alorraren irabaziko industri eraikuntzarena bera da: 0,2350 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup>(s).

*Eraikuntza Baldintza Partikularrak.*

Eraikuntza probetxamendua, orotara: 11.908 m<sup>2</sup>:

— 650 m<sup>2</sup> x 2 oin = 1.300 m<sup>2</sup>, irabazirik gabekoak (Komunitatearen ekipamendu publikoa).

— 8.160 m<sup>2</sup> + %30 oinarrean (industria).

Eraikin bakoitzak lurzatian gehienez har dezakeen azalera (sestra gainean): Alorreko Planaren arabera.

Eraikin bakoitzak lurzatian gehienez har dezakeen azalera (sestra azpian): Alorreko Planaren arabera.

Eraikuntzaren gehieneko profila: I/II.

Eraikuntzaren gehieneko altuera: 12.00 m (10 m-ko altuera libre eta beste 2 m, estalkiko elementuena).

Gutxienezko aparkaleku kopurua, lur gainean: 188.

3. Los márgenes de los ríos y regatas estarán sujetas en toda su extensión longitudinal a las siguientes limitaciones:

— Zona de servidumbre de cinco metros de anchura para uso público.

— Zona de policía de aguas de cien metros de anchura.

a) Zona de servidumbre.

En la zona de servidumbre se podrá libremente sembrar y plantar especies arbóreas, siempre que no se impida el paso que se establece en el artículo 7 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico de 11 de abril de 1986.

En la zona de servidumbre no se podrán construir nuevas edificaciones en ningún caso. Si, contando con la autorización de los organismos competentes, se podrán realizar obras de conservación de los edificios existentes.

b) Zona de policía de aguas.

En la zona de policía de cien metros de anchura medidos horizontalmente a partir del cauce se precisará autorización administrativa previa del Organismo de Cuenca para la ejecución de cualquier obra o trabajo como:

— Alteraciones sustanciales del relieve natural del terreno.

— Extracciones de áridos.

— Construcciones de todo tipo, tengan carácter definitivo o provisional.

— Cualquier otro uso o actividad que suponga un obstáculo para la corriente en régimen de avenidas o que pueda ser causa de degradación o deterioro del dominio público hidráulico.

Se prohíbe la realización de todo tipo de cubriciones en las mencionadas regatas. Únicamente se autorizará la construcción de los puentes necesarios para el paso de caminos.

#### A.I.U. 9 OLA AUZOA

$$S = 69.573 \text{ m}^2$$

PLAN PARCIAL 9.1. S = 45.143 m<sup>2</sup>

*Régimen Urbanístico General.*

Suelo urbanizable:

— B.10 Zonas Industriales: 41.805 m<sup>2</sup>

— E.10 Vías Interurbanas - Variante: 3.338 m<sup>2</sup>

Se define una única área de reparto coincidente con el sector P.P.9.1, cuyo aprovechamiento tipo coincide con el edificatorio industrial lucrativo del sector: 0,2350 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup>(s).

*Condiciones Particulares de Edificación.*

Aprovechamiento edificatorio total: 11.908 m<sup>2</sup> (t):

— 650 m<sup>2</sup> x 2 plantas = 1.300 m<sup>2</sup>(t) no lucrativo (Equip. comunitario público).

— 8.160 m<sup>2</sup> + 30% en entreplanta (industrial).

Ocupación máxima de la parcela por edificación (sobre rasante): Según Plan Parcial.

Ocupación máxima de la parcela por edificación (bajo rasante): Según Plan Parcial.

Perfil de edificación máximo: I/II.

Altura de edificación máxima: 12.00 ms.(10 ms. altura libre y 2 más de elementos de cubierta).

Número mínimo de plazas de aparcamiento en superficie: 188.



Eraikuntzak eta urbanizazioak gutxienez utzi beharreko tar-teak: EAeko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzen Lurralde Plan Sektorialak agintzen duena: 12 metro eraikuntzara eta 2 metro urbanizaziora.

Alorreko Planak Uren Azterlan bat jasoko du eta horrek bermatuko du hirigintza garapen berrien segurtasuna; betiere, zehaztutako uholde orbanak aintzat hartuz eta Uren Zuzendaritzak 2005/10/14ko informean finkatutako irizpideak uneoro jarraituz.

*Erabilera Baldintza Partikularrak.*

Erabilera nagusia: Industria.

Sustapen erregimena: Pribatua.

*Jabari Baldintzak.*

Jabari pribatua eta publikoa, Alorreko Planaren arabera.

Aurreikusitako espazio libreterako eta oinezkoen zirkulaziorako behar diren lursail guztiak lagako dira, behar bezala hiritartu ondoren.

*Kudeaketa Baldintzak.*

Jarduketa sistema: Konpentsazioa.

Plangintza garatzeko eta gauzatzeko erregimena: Alorreko Plana, Konpentsazio Proiektua eta Hiritartze Proiektua.

Hiritartze zamak, gauzatze unitateko probetxamenduen titularren kontura izango dira.

*Antolamendu Xehekatuko Xedapenak, Plangintza Orokorreko Lerruna dutenak.*

Komunitatearen ekipamendurako lurzatiei eta espazio libreterako (sistema lokala) erreserbei dagokienez, behin betiko antolamendua honako arau honetan proposatutakoari egokituko zaio, honako lurzatiak eratuz:

— f.10-9.1 Espazio libreak: 5.819 m<sup>2</sup>

— g.10-9.1 Komunitatearen ekipamendua, kirol arlokoa: 3.500 m<sup>2</sup>

— g.10-9.2 Komunitatearen ekipamendua: 875 m<sup>2</sup>

P.P.9.2 Alorreko biribilgunea gauzatzen denean, alderdi honetarako aurreikusi den sarbidea Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetarako Departamentuak adierazten duenera egokituko da. Jabeek eta Administrazioak sinatuko duten Hitzarmenari jarraituz, aipatu biribilgunearen kostuaren gutxienez %25 Alderdi honek ordainduko du.

Alorreko Planak, 2 metro zabaleko bizikleta-bidea ezartzeko aurreikuspena errespetatuko du, II.07 Zonakatze Xehekatua planoan zehaztutakoaren arabera.

9 HEA, OLA AUZOA

A = 69.573 m<sup>2</sup>

9.2 ALORREKO PLANA A = 24.429 m<sup>2</sup>

*Hirigintza Erregimen Orokorra.*

Lurzoru Hiritargaria:

— B.10 Industriadako zonak: 18.464 m<sup>2</sup>

— E.10 Hiriarteko errepideak - Saihesbidea: 5.865 m<sup>2</sup>

Banaketa-gune bakar bat eratu da, P.P.9.2 Alorraren eremuarekin bat eginez. Berariazko probetxamendua ere, Alorraren irabaziko industri eraikuntzarena bera da: 0,2554 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup>(s).

Retiros mínimos de edificación y urbanización a cauce fluvial, según P.T.S. de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la C.A.P.V: 12 ms. a la edificación y 2 ms. a la urbanización.

En el Plan Parcial correspondiente se redactará un Estudio Hidráulico que garantice la seguridad de los nuevos desarrollos urbanísticos a partir de la determinación de las manchas de inundación y sus cotas, y en todo caso los criterios establecidos por la Dirección de Aguas en informe de 14/10/2005.

*Condiciones Particulares de Uso.*

Uso característico: Industrial.

Régimen de promoción: Privada.

*Condiciones de Dominio.*

Dominio privado y público según Plan Parcial.

Se cederán todos los terrenos necesarios para la obtención de zonas de espacios libres y circulación peatonal previstos, debidamente urbanizados.

*Condiciones de Gestión.*

Sistema de actuación: Compensación.

Régimen de desarrollo y ejecución del planeamiento: Plan Parcial, proyecto de compensación y proyecto de urbanización.

Las cargas de urbanización corresponderán a los titulares del aprovechamiento en la unidad de ejecución.

*Determinaciones de Ordenación de carácter Pormenorizado con rango de Planeamiento General.*

La ordenación definitiva se ajustará en la disposición de parcelas de equipamiento comunitario y reservas de espacios libres (sistemas locales) a la sugerida en la presente norma, con las siguientes parcelas:

— f.10-9.1 Espacios Libres: 5.819 m<sup>2</sup>

— g.10-9.1 Equipamiento Comunitario (deportivo). 3.500 m<sup>2</sup>

— g.10-9.2 Equipamiento Comunitario: 875 m<sup>2</sup>

El acceso previsto al área se adecuará a lo que indique el Departamento de Carreteras del la Diputación de Gipuzkoa en el momento en que la rotonda ubicada en el PP 9.2 sea ejecutado. El área colaborará en la financiación de dicha rotonda en una cantidad no inferior al 25% de coste según el Convenio que sea firmado entre los Propietarios y la Administración.

El Plan Parcial respetará la implantación del carril bici de 2 metros de anchura según la definición del plano II.07 Zonificación Pormenorizada.

A.I.U. 9 OLA AUZOA

S = 69.573 m<sup>2</sup>

PLAN PARCIAL 9.2. S = 24.429 m<sup>2</sup>

*Régimen Urbanístico General.*

Suelo urbanizable:

— B.10 Zonas Industriales: 18.464 m<sup>2</sup>

— E.10 Vías Interurbanas - Variante: 5.865 m<sup>2</sup>

Se define una única área de reparto coincidente con el sector P.P.9.2, cuyo aprovechamiento tipo coincide con el edificio industrial lucrativo del sector: 0,2554 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup>(s).

*Eraikuntza Baldintza Partikularrak.*

Eraikuntza probetxamendua, orotara: 7.840 m<sup>2</sup>:

— 800 m<sup>2</sup> x 2 oin = 1.600 m<sup>2</sup> irabazirik gabekoak (Komunitatearen ekipamendu publikoa).

— 4.800 m<sup>2</sup> + %30 oinarrean (industria).

Eraikin bakoitzak lurzatian gehienez har dezakeen azalera (sestra gainean): Alorreko Planaren arabera.

Eraikin bakoitzak lurzatian gehienez har dezakeen azalera (sestra azpian): Alorreko Planaren arabera.

Eraikuntzaren gehieneko profila: I/II.

Eraikuntzaren gehieneko altuera: 12.00 m (10 m-ko altuera libre eta beste 2 m, estalkiko elementuena).

Gutxienezko aparkaleku kopurua, lur gainean: 162.

Eraikuntzak eta urbanizazioak gutxienez utzi beharreko tar-teak: EAEko ibai ertzak eta erreka ertzak antolatzeke Lurreko Plan Sektorialak agintzen duena: 12 metro eraikuntzara eta 2 metro urbanizaziora.

Alorreko Planak Uren Azterlan bat jasoko du eta horrek bermatuko du hirigintza garapen berrien segurtasuna; betiere, zehaztutako uholde orbanak aintzat hartuz eta Uren Zuzendaritzak 2005/10/14ko informean finkatutako irizpideak uneoro jarraituz.

*Erabilera Baldintza Partikularrak.*

Erabilera nagusia: Industria.

Sustapen erregimena: Pribatua.

*Jabari Baldintzak.*

Jabari pribatua industriarako lurzatian eta publikoa, gauzate unitateko gainerakoan.

Aurreikusitako espazio libretearako eta oinezkoen zirkulaziorako behar diren lursail guztiak lagako dira, behar bezala hiritartu ondoren.

*Kudeaketa Baldintzak.*

Jarduketa sistema: Kompentsazioa. Udalaren iritziz nahiko denbora joan arren esparrua garatu gabe badago, Kompentsazio sistemaren ordezkari Lankidetzakoa ezarri ahal izango du.

Plangintza garatzeko eta gauzatzeko erregimena: Alorreko Plana, Kompentsazio Proiektua eta Hiritartze Proiektua.

Hiritartze zamak, gauzate unitateko probetxamenduaren titularren kontura izango dira.

*Antolamendu Xehekatuko Xedapenak, Plangintza Orokorreko Lerruna dutenak.*

P.P.9.2 Alorreko biribilgunea gauzatzen denean, alderdi honetarako aurreikusi den sarbidea Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetarako Departamentuak adierazten duenera egokituko da. Jabeek eta Administrazioak sinatutako duten Hitzarmenari jarraituz, aipatu biribilgunearen kostuaren gutxienez %25 Alderdi honek ordainduko du.

Alorreko Planak, 2 metro zabaleko bizikleta-bidea ezartzeko aurreikuspena errespetatuko du, II.7 planoan zehaztutakoaren arabera.

*Condiciones Particulares de Edificación.*

Aprovechamiento edificatorio total: 7.840 m<sup>2</sup> (t):

— 800 m<sup>2</sup> x 2 plantas = 1.600 m<sup>2</sup>(t) no lucrativo (Equip. Comunitario público).

— 4.800 m<sup>2</sup> + 30% en entreplanta (industrial).

Ocupación máxima de la parcela por edificación (sobre rasante): Según Plan Parcial.

Ocupación máxima de la parcela por edificación (bajo rasante): Según Plan Parcial.

Perfil de edificación máximo: I/II.

Altura de edificación máxima: 12.00 ms.(10 ms. altura libre y 2 más de elementos de cubierta).

Número mínimo de plazas de aparcamiento en superficie: 162.

Retiros mínimos de edificación y urbanización a cauce fluvial, según P.T.S. de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la C.A.P.V: 12 ms. a la edificación y 2 ms. a la urbanización.

En el Plan Parcial correspondiente se redactará un Estudio Hidráulico que garantice la seguridad de los nuevos desarrollos urbanísticos a partir de la determinación de las manchas de inundación y sus cotas, y en todo caso los criterios establecidos por la Dirección de Aguas en informe de 14/10/2005.

*Condiciones Particulares de Uso.*

Uso característico: Industrial.

Régimen de promoción: Privada.

*Condiciones de Dominio.*

Dominio privado en la parcela industrial y público en el resto de la unidad de ejecución.

Se cederán todos los terrenos necesarios para la obtención de zonas de espacios libres y circulación peatonal previstos, debidamente urbanizados.

*Condiciones de Gestión.*

Sistema de actuación: Compensación. En el caso de que transcurra un plazo razonable de tiempo —a juicio del ayuntamiento— sin que se halla desarrollado el ámbito, este podrá modificar el sistema de actuación por el de cooperación.

Régimen de desarrollo y ejecución del planeamiento: Plan Parcial, proyecto de compensación y proyecto de urbanización.

Las cargas de urbanización corresponderán a los titulares del aprovechamiento en la unidad de ejecución.

*Determinaciones de Ordenación con rango de Planeamiento General.*

El acceso previsto al área se adecuará a lo que indique el Departamento de Carreteras del la Diputación de Gipuzkoa en el momento en que la rotonda ubicada en el PP 9.2 sea ejecutado. El área colaborará en la financiación de dicha rotonda en una cantidad no inferior al 50% de coste según el Convenio que sea firmado entre los Propietarios y la Administración.

El Plan Parcial respetará la implantación del carril bici de 2 metros de anchura según la definición del plano II.7.

## IPARRALDEKO UR KONFEDERAKUNTZA

## Ur Komisaldegia

## Iragarkia

Espediente: A/20/01010.

Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Jabari Hidraulikoaren Erregelamenduko 116. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (ikus *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, hilaren 30ekoa), aditzera ematen da, denak jakinaren gainean egon daitezen, Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak 2006ko urtarrilaren 27an emandako ebazpenaren arabera, eta aurrez landutako espedientearen ondorio gisa, Isidro Zubeldia Aramendi eta Antonio Maria Zubeldia Aramendiri baimena eman zaiela 0,035 l/s-ko ur ustiapen bat egiteko Sorosondoko iturritik, Abaltzisketako udalerrian (Gipuzkoa), ganaduari edaten emateko eta ureztapenak egiteko.

Donostia, 2006ko otsailaren 8a.—Idazkari Nagusia, eskuordez, Luis Gil García, Alorreko Burua. 2004-12-12ko Ebazpena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* 2005-01-11).

(5819)

(1578)

## Ur Komisaldegia

## Iragarkia

Espediente: A/20/01006.

Apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Herri Jabari Hidraulikoaren Erregelamenduko 116. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (ikus *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, hilaren 30ekoa), aditzera ematen da, denak jakinaren gainean egon daitezen, Iparraldeko Ur Konfederazioak 2006ko urtarrilaren 27an emandako ebazpenaren arabera, eta aurrez landutako espedientearen ondorio gisa, Xabier Pilipa Pakunda Arratibel Mendizabal eta Milagros Chinchurreta Zumarragari baimena eman zaiela 0,07 l/s-ko ur ustiapena egiteko hiru zundaketa horizontaletik eta izenik gabeko iturri batetik Gabiriako (Gipuzkoa) Santa Luzia auzoan, etxean erabiltzeko, ganaduari edaten emateko eta ureztapenak egiteko.

Donostia, 2006ko otsailaren 8a.—Idazkari Nagusia, eskuordez, Luis Gil García, Alorreko Burua. 2004-12-12ko Ebazpena, *Estatuko Aldizkari Ofiziala* 2005-01-11).

(5823)

(1579)

## GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZTA OROKORREKO GIPUZKOAKO ZUZENDARITZA PROBINTZIALA

## Jakinarazpenen Atala

*Helbide jakinik gabeko zordunei bidalitako premiamenduzko probidentziaren jakinarazpen-ediktua.*

Idazki honi erantsitako zerrendan ageri da nortzuk dauden zorretan Gizarte Segurantzarekin eta zor horiek zenbatekoak diren. Hori kontuan izanik, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko eskumendun ataleko buruak behartze-bideko probidentzia bat eman du:

## CONFEDERACION HIDROGRAFICA DEL NORTE

## Comisaría de Aguas

## Anuncio

Espediente: A/20/01010.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 116 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico aprobado por Real Decreto 849/1986 de 11 de abril (*Boletín Oficial del Estado* del día 30), se hace público, para general conocimiento, que por resolución de la Confederación Hidrográfica del Norte, de fecha 27/01/2006 y como resultado del expediente incoado al efecto, le ha sido otorgada a Isidro Zubeldia Aramendi y Antonio María Zubeldia Aramendi, la oportuna concesión para aprovechamiento de 0,035 l/s de agua del manantial Sorosondoko Iturria, en el t.m. de Abaltzisketa (Gipuzkoa), con destino a abrevado de ganado y riego.

Donostia-San Sebastián, a 8 de febrero de 2006.—El Secretario General, p.d., el Jefe de Area, Luis Gil García. Resolución de 13/12/2004, *Boletín Oficial del Estado* de 11/01/2005).

(5819)

(1578)

## Comisaría de Aguas

## Anuncio

Espediente: A/20/01006.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 116 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico aprobado por Real Decreto 849/1986 de 11 de abril (*Boletín Oficial del Estado* del día 30), se hace público, para general conocimiento, que por resolución de la Confederación Hidrográfica del Norte, de fecha 27/01/2006 y como resultado del expediente incoado al efecto, le ha sido otorgada a Xabier Pilipa Pakunda Arratibel Mendizabal y Milagros Chinchurreta Zumarraga, la oportuna concesión para aprovechamiento de 0,07 l/s de agua procedente de tres sondeos horizontales y de un manantial sin nombre, en el Barrio de Santa Lucía, t.m. de Gabiria (Gipuzkoa), con destino a usos domésticos, abrevado de ganado y riego.

Donostia-San Sebastián, a 8 de febrero de 2006.—El Secretario General, p.d., el Jefe de Area, Luis Gil García. Resolución de 13/12/2004, *Boletín Oficial del Estado* de 11/01/2005).

(5823)

(1579)

## DIRECCION PROVINCIAL DE LA TESORERIA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL DE GIPUZKOA

## Sección de Notificaciones

*Edicto de notificación de la providencia de apremio a deudores no localizados.*

El Jefe de la Unidad competente de la Tesorería General de la Seguridad Social, respecto de los sujetos responsables que figuran en la relación adjunta por deudas a la Seguridad Social cuya cuantía total asciende a la cantidad que asimismo se indica en la citada relación, ha dictado la siguiente:

PREMIAMENDUZKO PROBIDENTZIA: Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 34. artikulua bidez, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako testu bateginaren bidez (1994-06-29ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), eta Gizarte Segurantzaren Zerga Bilketako Araudi Orokorren 84. artikulua bidez, ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuak onetsia (2004-06-25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), eman zaidan ahalmena erabiliz, zordunaren ondarea atxikitzeko agintzen dut.

Gizarte-segurantzako erregimenekin zorra dutenei esanbidez jakinarazten zaie behartze-bideko probidentzia, baina ondoren aipatuko ditugun zordunen kasuan (bakoitzak aldamean zorraren zenbatekoa zehaztuta duela) ezin izan da horrelakorik lortu, edo gure datuen araberako helbideetan ez dituztelako ezagutzen, edo ez zeudelako etxean edo beste arrazoi batzuk tartean zirela. Horrenbestez, zor-erreklaazioen berri izan dezaten, honako ediktu hau argitaratu dugu bai Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta bai dagokion udaletxeko iragarki-oholean. Hori dena, azaroaren 26ko 30/1992, hots, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Erkidearen Legearen 58 eta 59. artikuluetan, eta horiek eraldatzeko 4/1999 Legean ezarritakoa betetzearren (urtarrilak 14ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*).

Jakinarazpen hau argitara ematen da zorduna dirubilketa betearazteko dagokion atalean hamabost eguneko epean ordaintzeko, halakorik egiten ez badu, zordunaren ondasunak bahituko dira zorraren zenbateko osoa ordaintzeko (behartze-bidearen ondoriozko gainordaina, korrituak-halakori badago eta behartze bideko jardunbidearen kostuak barne, Dirubilketarako Erregelamendu Orokorren 84 azpiatalean ezarritakoari jarraiki).

Egintza honek ez du administrazio-bidea agortzen. Beraren aurka gorako errekurtoa egin daiteke dagokion administrazioaren aurrean, hilabete bateko epean (jakinarazpena jaso ondoko egunetik aurrera), aipatu den Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 34.3 artikuluan azaltzen diren arrazoietakoren batengatik, behar bezala frogatuta. Errekutsoa ebatzi arte premiamenduzko prozedura eten egingo da.

Honakoak dira errekurtsio egiteko arrazoi horiek: Zorra ordaintzea, preskripzioa, oker material edo aritmetikoa zorra zehazterakoan, prozedura etetea, bidezkoa denean zorraren erreklamazioa edo likidazio akta ez jakinaraztea, eta horiek edo kuoten autolikidazioek sortzen dituzten ebazpenak ez jakinaraztea.

Gorako errekurtsioa egiten denetik hiru hilabete epean ez bada ebatzi, ezetsi egin dela joko da, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 115. artikuluan (1992-11-27ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) ezarritakoaren arabera.

Donostia, 2006ko otsailaren 20a.—M.<sup>a</sup> Teresa Olano Goenaga, Jakinarazpen Atalaren Burua.

(323)

(1876)

| Erreg. Régim. | Mota/Ident. Tipo/Ident. | Izena / Enpresaren izena. Nombre / Razón social | Helbidea, P.K., Herria. Dirección, C.P., Población |
|---------------|-------------------------|---|--|
| 0111          | 10 20000284890          | LUMINIA S.A.                                    | PG POLIGONO INDUSTRI 20159 ASTEASU                 |
| 0111          | 10 20000284890          | LUMINIA S.A.                                    | PG POLIGONO INDUSTRI 20159 ASTEASU                 |
| 0111          | 10 20000284890          | LUMINIA S.A.                                    | PG POLIGONO INDUSTRI 20159 ASTEASU                 |
| 0111          | 10 20003386466          | EMBALAJES NARVAIZA, S.L.                        | CL TXONTA 44 20600 EIBAR                           |
| 0111          | 10 20003954322          | MONTISA S.A.                                    | CL LEGAZPI 3 20700 ZUMARRAGA                       |
| 0111          | 10 20004062739          | FRIMA, S.A.                                     | CT SAN MARCOS 20110 PASAIA                         |
| 0111          | 10 20004062739          | FRIMA, S.A.                                     | CT SAN MARCOS 20110 PASAIA                         |
| 0111          | 10 20004062739          | FRIMA, S.A.                                     | CT SAN MARCOS 20110 PASAIA                         |
| 0111          | 10 20004062739          | FRIMA, S.A.                                     | CT SAN MARCOS 20110 PASAIA                         |
| 0111          | 10 20004062739          | FRIMA, S.A.                                     | CT SAN MARCOS 20110 PASAIA                         |

17. Frente a las salidas de los locales destinados a actos públicos, espectáculos o de gran afluencia de personas en horas de concurrencia o celebración de éstos. En estos locales sus propietarios señalarán las salidas y entradas habituales así como las destinadas a salidas de emergencia.
18. En las zonas que, eventualmente, hayan de ser ocupadas para actividades autorizadas, o las que deban ser objeto de reparación, señalización o limpieza. En estos supuestos se dará

egokienetatik eta haietan aparkaturiko ibilgailuen aurreko kristaletan oharrak ezarririk. Aldez aurreko publizitate hau beharrezko lehenetsunez egingo da, larrialdi uneetan izan ezik.

19. Garbiketa eta bestelako biltze zerbitzuek bideratu beharreko edukiontzien eta beste deposituen bilketa eragozten den lekuetan.

20. Zirkulazioa oztopatzen, ikusmena eragozten, beste ibilgailuen ikuspegia era arriskutsuan murrizten edo begi-bistako arriskua lekarketen arauz kanpoko maniobretara behartzen den lekuetan.

#### 16. artikulua.

Ordenantza honen 15. artikularen 14. atala (abandonaturiko ibilgailuak) ez betetzeagatik, lekuaren ordenazio, norabide edo seinale berriek, inoizko obrek edo beste edozein egoera aldaketak (udal depositura eramateko erabakia ere ekar lezakete aldaketa hauek guztiak) ukitzen badute ibilgailu jakin bat, haren gidaria izango da eginiko beste legehausteen erantzule bakarra.

#### 17. artikulua.

Ordutegi jakin bat duten araupeko aparkalekuak erabilera librekoekin batera eskaini behar dira beti eta ordenantza arauemaile berezien eta haien xedapen osagarrien bidez arautuko dira.

### III. KAPITULUA. EZINDUENTZAKO EREMU BEREZIETAN APARKATZEKO BAIMENA LORTZEKO BETEBEHARRAK

#### 18. artikulua.

1. Ordenantza hau onartu ondoren, Hernanin bizi direnei emandako baimenak ikuskatzeko eta eguneratzeko jardunbideari ekingo zaio; berebat, baimenen zentsoa egingo da, udalak eremu berezi horien erabilera kontrola dezan.

2. Arestian esandakoaren eraginetarako, lehen ikuskapena egin ondoren, baimen txartela 5 urtetik 5 urtera berritu behar da; hala ere, arau horrek ez du esan nahi aipatutako epea baino lehen baimena kenduko ez denik, ezintasunaren balorazio berri batek hala eskatzen badu edo txartelaren jabea hil egiten bada.

3. Udalak, ezinduen elkarteekin bat etorritik, mapa bat egingo du ezinduentzat sor daitezkeen aparkaleku beharrezanetan oinarriturik. Udala bera arduratuko da mapa hori eguneratzeaz.

4. Gidariaren helbidetik hurbil ezindu fisikoen erabilerrako eremu berezirik ez badago, trafikoari ahalik eta kalterik txikiena sortuko zaion lekuetan aparkatzen utziko die Udaltzaingoak Ezindu Fisikoen Txartelaren jabeei, leku bat libre geratu arte. Nolanahi ere, leku hori ez da sekula Ordenantza honek aparkatuz gero ibilgailua erretiratuko dela espreski dioen horietakoa izango.

5. Kontuan izanik aparkatzeko baimenak zentzuzko denboraz aparkatzeko baino ez direla izango, honela arautuko dira ezinduentzat berariaz erreserbatu eta sinalatutako eremuak:

— Goizeko 8etatik arratsaldeko 8ak arte, aparkatzeko baimena 4 ordurako izango da gehienez ere.

publicidad a la prohibición por los medios de difusión oportunos y mediante la colocación de avisos en los parabrisas de los vehículos estacionados. Esta publicidad previa se efectuará con la suficiente antelación, salvo casos de justificada urgencia.

19. En aquellos lugares donde se impida la recogida de los contenedores u otros depósitos por el correspondiente servicio de limpieza u otros servicios de recogida.

20. En aquellos lugares en que se obstaculice la circulación, exista visibilidad reducida, se disminuya peligrosamente la visión de otros vehículos o se obligue a maniobras antirreglamentarias que implique riesgo evidente.

#### Artículo 16.

Si por el incumplimiento del apartado.14 del artículo 15 de esta Ordenanza (vehículos abandonados) un vehículo resulta afectado por un cambio de ordenación del lugar donde se encuentra, cambio de sentido o de señalización, realización de obras o cualquier otra variación que comporte incluso el traslado al depósito municipal, el conductor será responsable de la nueva infracción cometida.

#### Artículo 17.

Los estacionamientos regulados y con horario limitado, que en todo caso deberán de coexistir con los de libre utilización, se sujetarán a sus ordenanzas reguladoras y a las disposiciones complementarias.

### CAPITULO III. CONDICIONES GENERALES DE LAS AUTORIZACIONES Y USO DE LOS ESTACIONAMIENTOS RESERVADOS PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD

#### Artículo 18.

1. A partir de la aprobación de la presente Ordenanza se iniciará el procedimiento de revisión y actualización de las autorizaciones concedidas a los residentes en Hernani, así como la elaboración de un censo que posibilite el control municipal del uso de las mismas.

2. A los efectos anteriores, a partir de ésta primera revisión la tarjeta deberá renovarse cada 5 años sin perjuicio de cambios en la valoración de la discapacidad, que supongan la finalización con anterioridad a dicho plazo, o por fallecimiento del titular de la tarjeta.

3. El Ayuntamiento, de común acuerdo con las asociaciones de personas con discapacidad, mantendrá y actualizará en función de nuevas necesidades que se creen un mapa de zonas reservadas para estacionamientos, que den respuesta a las diferentes necesidades de acceso de estas personas.

4. Si no existiera ningún tipo de zona reservada para la utilización general de personas con discapacidad cerca del punto de destino, la Policía Municipal permitirá el estacionamiento a los titulares de la autorización, hasta la existencia de plaza libre, en aquellos lugares donde menos perjuicio se cause al tráfico, pero nunca en lugares donde el estacionamiento incurra en alguna de las causas de retirada del vehículo que prevé esta Ordenanza.

5. Teniendo en cuenta que las autorizaciones son únicamente válidas para estacionar por un tiempo prudencial, las zonas reservadas y señalizadas específicamente como tales se regularán de la siguiente manera:

— En el espacio de tiempo comprendido entre las 8 y las 20 horas, el tiempo máximo de estacionamiento autorizado será de 4 horas.



— Mugitzeko ezintasun handia duten ezinduen kasuan eta horientzat aparkatzeko eremu bereziak antolatu nahi direnean bere etxe ondoan, ez da kontuan izango aurreko ataleko muga-pena, baldin eta ibilgailuaren gidaria eta txartelaren titularra bat bera bada. Halaber, kasu hauetan ibilgailuak ezin izango du aipatutako leku berezietan aparkatuta luzaro egon titularra bere ohiko bizilekuan ez dagoenean.

#### 19. artikulua.

1. Baimena pertsonala da erabat eta txartelaren titularra ibilgailuan bidaiari edo gidari doanean baino ezin izango da erabili.

2. Txartela ibilgailuaren aurreko haizetakoan jarriko da, ibilgailuaren kanpoaldetik irakurri ahal izateko moduan. Udaltzainek leku berezietan aparkatzeko txartela eskatzen badute, nortasun agiriarekin batera erakutsiko da.

3. Txartelaren titularrak udaltzainak emandako aginduak beteko ditu, Udal honetako eskumenak eta/edo baldintza bereziak interpretatzeko orduan.

4. Baimena gehiegikeriaz eta modu ez egokian erabiltzeak baimena deuseztea ekar dezake eta, kasua balitz, udalaren zehapena.

#### IV. KAPITULUA. APARKALEKUAK: MOTOZIKLETAK, ZIKLOMOTOREAK ETA BIZIKLETAK

#### 20. artikulua.

1. Udalak eremu edo espazio bereziak zehaztuko ditu bide publikoan motozikleta, ziklomotore eta bizikleten aparkamenduari begira.

2. Xede horretan espazio jakin batzuk bereizi ez diren bide publikoetan, zabalera hiru metrotik gorakoa duten espaloi eta ibilbideetan, espaloiaren paraleloan eta zintarritik berrogeita hamar zentimetroko tartea utzirik, aparkatu ahal izango dira aipaturiko ibilgailu mota horiek.

3. Zabalera sei metrotik gorakoa duten espaloi edo ibilbideetan, erdi-baterian aparkatu ahal izango dira, aurreko ataleko arau berei jarraiki.

4. Bi metrokoa izango da aurreko ataletan xedaturikoaren arabera aparkaturiko ibilgailuen eta seinalezaturiko igarobide baten edo garraio publikoko geltoki baten artean gutxienez egongo den tartea.

5. Espaloi edo ibilbideen gaineko aparkamendua motorra geldirik eta eserlekua okupatu gabe egingo da. Motorraren indarra espaloiaren desnibela gainditzeko baizik ez da erabiliko.

6. Debekaturik dago bi gurpileko ibilgailuak hiru metrotik beherako zabalera duten espaloi edo ibilbideetan aparkatzea.

7. Galtzadako aparkamendua baterian edo erdi-baterian egingo da, metro t'erdiko zabalera okupaturik gehienez.

8. Motozikleta, ziklomotore edo bizikleta bat beste ibilgailu batzuen artean aparkatzen bada, besteengana heltzeko eragozpenak jarri gabe utziko da.

— En los casos de personas discapacitadas con gran dificultad de movilidad y cuando se trate de reservados cercanos a su domicilio, no existirá la anterior limitación, siempre que el/la conductor/a del vehículo sea el/la titular de la tarjeta. Así mismo, en este caso, el vehículo no podrá estar estacionado permanentemente en el reservado cuando dicha persona no se encuentre en su domicilio habitual.

#### Artículo 19.

1. La autorización es estrictamente personal y puede ser utilizada únicamente cuando el/la titular es transportado en el vehículo o éste es conducido por la persona con discapacidad.

2. Deberá ser colocada en el parabrisas delantero, de modo que su anverso sea legible desde el exterior del vehículo y, a requerimiento de los agentes municipales, deberá ser exhibida conjuntamente con la Tarjeta de identificación personal.

3. El/la titular deberá cumplir las indicaciones de la Policía Municipal en la interpretación de las condiciones discrecionales y/o específicas de este municipio.

4. El uso abusivo e indebido de esta autorización podrá dar lugar a su cancelación, además de la sanción municipal que pueda corresponder en cada caso.

#### CAPITULO IV. ESTACIONAMIENTO DE MOTOCICLETAS / CICLOMOTORES / BICICLETAS

#### Artículo 20.

1. El Ayuntamiento señalará en la vía pública zonas o espacios destinados especialmente para el estacionamiento de motocicletas, ciclomotores y bicicletas.

2. En aquellas vías públicas en que no existiesen espacios destinados especialmente a este fin, los vehículos mencionados podrán estacionar en aceras y paseos de más de tres metros de ancho, paralelamente a la acera y a una distancia de cincuenta centímetros del bordillo. En el caso de que haya alcorque, el estacionamiento se hará dentro de los espacios que los separen.

3. En aceras o paseos de más de seis metros de ancho, podrá estacionarse en semibatería, siguiendo las normas del apartado anterior.

4. La distancia mínima entre estos vehículos estacionados según los apartados anteriores y los límites de un paso para peatones señalizado o de una parada de transporte público, será de dos metros.

5. El estacionamiento sobre aceras o paseos se efectuará circulando con el motor parado y sin ocupar el asiento. Únicamente se podrá utilizar la fuerza del motor para salvar el desnivel de la acera.

6. Estará prohibido el estacionamiento de vehículos de dos ruedas sobre aceras o paseos que posean una anchura inferior a tres metros.

7. El estacionamiento en la calzada se efectuará en batería o semibatería, ocupando un ancho máximo de un metro y medio.

8. Cuando se estacione una motocicleta, ciclomotor o bicicleta entre otros vehículos, se efectuará de forma que no impida el acceso a estos últimos.

## V. KAPITULUA. LEHENTASUNEZKO BIDEAK

## 21. artikulua.

1. Trafikoari begira, bide nagusi izaera edukiko dute ibilgailu kopurua, ibilbidea, egoera eta beste bideekiko lotura direla eta, hiri barneko trafikoa banatzeko ezinbesteko gertatzen diren bideak.

2. Hiri barneko zirkulazioaren alde handi bati eutsi behar diotelarik eta haietan eginiko lege-hausteez erabiltzaileei arrisku eta kalte handiagoak sortarazten dizkietelarik, Udaltzaingoa bereziki estutuko du haien gaineko zerbitzua eta ardura handiagoz jokatu du bidenabar haietan.

3. Aurreko ataletan aipaturikoari jarraiki, larrizat hartuko dira bide nagusietan geldituen eta aparkamendu alorretan eginiko arau-haustea.

4. Bide hauetan kultura, kirol edo bestelako ekitaldiak egiteagatik eragin litezkeen ondorio larriak erreparatu eta gero, gutxienez hila bete ospatu aurretik eman beharko du haien berri ekitaldien erakunde antolatzaileak. Konstituzioak biltzeko eta manifestatzeko babesten duen eskubidearen jarduerak bere bidea izango du beti, bere legeen bitartez. Bide hauetan zehar ibilgailu bereziek igaro behar badute, Ordenantza honen XII. Tituluan xedaturikoa izango da arau nagusi.

5. Aurreko atalak aipagai dituen baimenen arabera, eskurikoaren ibilbide alternatiboa proposa liteke kasu batzuetan, baldin eta egin nahi zena egokitzen ez bada. Nolanahi ere, Udaltzaingoa egingo ditu trafikorako planak zirkulazioa eten edo desbideratu behar denean eta, hala behar badu, bide alternatiboak adieraziko dizkie erabiltzaileei ahalik eta kalte txikiena eragitearren.

6. Honako kale hauek hartu dira bide nagusitzat:

— Astigarragako bidea bere luzera osoan.

— Antziola Kalea, luzera osoan.

— Florida auzorako kalea.

— Sagastialde kalea bere luzera osoan.

— Galarretako igoera, luzera osoan.

— Latsunbe kalea bere luzera osoan.

— Elkano kalea, bere luzera osoan.

— Izpizua kalea, bere luzera osoan.

— Karabel bide gurutzea.

— Zikuñaga bide gurutzea.

— Zinko-eneako bide gurutzea.

Alkatetzak bandoren bitartez, Ordenantza honetan bide nagusitzat harturiko kaleak aldatu ditzake edo beste batzuk halakotzat jo.

## VII. TITULUA

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK  
ERRETIRATZEA ETA ZAINTEA

## I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

## 22. artikulua.

Udaltzaingoa honako kasu hauetan erretiratu ahal izango du ibilgailua bidetik eta ibilgailuen gordelekura eraman:

## CAPITULO V. VIAS PREFERENTES

## Artículo 21.

1. Con relación al tráfico se denominarán vías preferentes aquéllas que debido a su afluencia de vehículos, recorrido, situación y comunicación con otras vías, las hacen imprescindibles para la distribución del tráfico dentro del casco urbano.

2. Debido a que estas vías deben soportar una gran parte de la circulación del casco urbano y que las infracciones en ellas repercuten con mayor riesgo y perjuicio contra los demás usuarios, la Policía Local extremará su vigilancia y actuará con mayor diligencia sobre ellas.

3. Las infracciones a las normas sobre paradas y estacionamientos que se cometan en las vías preferentes, y en consideración a lo mencionado en los apartados anteriores, tendrán la consideración de graves.

4. Debido a las graves repercusiones que pueden ocasionarse en el tráfico, por la utilización de estas vías en actos culturales, deportivos u otros, la autorización de éstos deberá solicitarse por la entidad organizadora con una antelación de un mes a su celebración, sin perjuicio del ejercicio del derecho constitucional de reunión y manifestación, que se regirá por sus propias normas. En los casos de tránsito de vehículos especiales por estas vías, se regirá por lo establecido en el Título XII de esta Ordenanza.

5. Las autorizaciones a que se refiere el apartado anterior podrán incluir un recorrido alternativo al solicitado cuando concurren circunstancias que desaconsejen el recorrido propuesto. En todo caso, la Policía Local realizará los correspondientes planes de tráfico cuando se produzca el corte o desvío de la circulación, señalando en su caso las vías alternativas que produzcan el menor perjuicio a los usuarios.

6. Serán consideradas vías preferentes:

— Carretera Astigarraga, desde rotonda de Agustinas hasta Oialume, en todo su tramo.

— C/ Antziola, en todo su tramo.

— C/ Florida, en todo su tramo.

— C/ Sagastialde, en todo su tramo.

— C/ Latsunbe, en todo su tramo.

— C/ Elkano, en todo su tramo.

— C/ Izpizua, en todo su tramo.

— Subida Galarreta (cuesta de la muerte).

— Rotonda Zinko-enea.

— Rotonda Karabel.

— Rotonda Zikuñaga.

El Ayuntamiento, mediante Bando de Alcaldía, podrá modificar o ampliar las vías declaradas preferentes en la presente Ordenanza.

## TITULO VII

DE LA RETIRADA DE VEHICULOS DE LA VIA  
PUBLICA Y DE SU CUSTODIA

## CAPITULO I. NORMAS GENERALES

## Artículo 22.

La Policía Local podrá proceder, si el obligado a efectuarlo no lo hiciera, a la retirada del vehículo de la vía y a su traslado al depósito municipal de vehículos, en los siguientes casos:

1. Ibilgailuen zirkulazioari edo bide publikoen beste erabiltzaileei edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduari arazo larri bat eragiteko arriskua dagoenean, eta bide publikoan abandonaturik dagoelako susmo sendoa dagoenean.

2. Istripu bat dela medio, ibilian segitzeko moduan ez dagoenean eta, istripu horren ondorioz, gidariak bere kabuz mugitu ezin duenean.

3. Ibilgailuak, akats batzuk direla eta, 48 ordu luze gelditurik egon arren, haren jabeak akats horiek konpondu ez ditueanean.

4. 1990eko martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Lege-emailearen 67.1. artikulua hiru paragrafoan xedaturikoaren arabera, lege-hausleak isunaren munta ordaindu edo ordainketa bermatu nahi ez duenean.

5. Alkoholemia frogan ondoan emaitzak positiboak izan direnean, baldin eta horretarako gai den pertsona bat ibilgailuaren gidatzeaz arduratzen ez bada.

### 23. artikulua.

Enuntziazio gisa, honelakoetan kontsideratuko da ibilgailu bat Ordenantza honen 22. artikulua 1. atalean zehazturiko baldintzen barnean dagoela eta, horrenbestez, erretiratzea arrazoizkoa dela, honako kasu hauetan:

1. Gelditzea debekaturik dagoen gune batean aparkatu denean.

2. Ordenantza honen artikulua 15. artikulua 4. atal xedaturikoa bete gabe, bigarren lerroan eta gidaririk gabe utzi denean.

3. Txaflan baten ertzetik edo kanto baten angeluaren ertzetik kanpo geratu eta beste gidariei maniobra arriskutsuak eginarazten dizkienean.

4. Seinaleztaturiko oinezkoen igarobide batean, oinezkoen igarobideetarako utzi diren etxe multzoen ertzetan, edo espaloietan ezindu fisikoentzat beherturiko igarobide batean aparkatu denean.

5. Erabiltzen den orduen barnean, garaje-igarobide bat alde batean nahiz erabatean okupatu duenean.

6. Horretarako eremu den orduetan, karga eta deskargarako eremu batean aparkatu denean, bidaiarien edo/eta merkantzien kargan edo deskargan ari ez bada.

7. Garraio publikorako seinaleztatu eta mugaturiko gel-toki batean aparkaturik dagoenean.

8. Larrialdi edo segurtasun alorreko zerbitzuei begira espreski mugatu den leku batean aparkaturik dagoenean.

9. Ikuskizunen orduetan, ikuskizun publikoetarako lokalen larrialdietarako irteeren aurrean aparkaturik dagoenean.

10. Ezindu fisikoentzako erreserba batean aparkaturik dagoenean.

11. Espaloi, babesgune, erdialde eta alboetako ibilbide, eta zoladuran zerrenden bitartez bereizitako eremuetan aparkaturik dagoenean, okupazioa alde batekoa edo erabatekoa den kontuan hartu gabe, espreski baimendutako kasuetan izan ezik.

12. Bide publikoaren gainerako erabiltzaileei trafikoko seinaleak behar bezala ikusten uzten ez zaienean.

13. Ibilgailuen biratzea eragozten edo biratzerakoan beste gidaria maniobra arriskutsuetara behartzen duenean.

14. Bide publiko batetik datozen gidariei beste bide publiko bateko trafikoaren ikuspegia eragozten dienean.

1.º Siempre que constituya peligro o cause grave problema a la circulación de vehículos u otros usuarios de las vías públicas o al funcionamiento de algún servicio público y también cuando se pueda presumir racionalmente su abandono en la vía pública.

2.º En caso de accidente que le impida continuar la marcha y por circunstancias del mismo el obligado a ello no lo pudiera realizar.

3.º Cuando hayan transcurrido 48 horas desde su inmovilización por deficiencias del mismo vehículo y su conductor o propietario no las haya corregido.

4.º Cuando, inmovilizado un vehículo, de acuerdo con lo dispuesto en artículo 67.1, párrafo tercero, del Real Decreto Legislativo 339/90, de 2 de marzo, el infractor persistiera en su negativa a depositar o garantizar el pago del importe de la multa.

5.º Cuando se hubieran efectuado pruebas de alcoholemia con resultados positivos, a no ser que pueda hacerse cargo de su conducción otra persona debidamente habilitada.

### Artículo 23.

A título enunciativo, se considerará que un vehículo está en las circunstancias determinadas en el artículo 22, apartado 1, de esta Ordenanza, y, por tanto, está justificada su retirada:

1. Cuando esté estacionado en un punto donde esté prohibida la parada.

2. Cuando esté estacionado en doble fila sin conductor, incumpliendo lo especificado en el artículo 15 apartado 4, de la presente Ordenanza.

3. Cuando sobresalga del vértice de un chafalán o del extremo del ángulo de una esquina y obligue a los otros conductores a hacer maniobras con riesgo.

4. Cuando esté estacionado en un paso de peatones señalizado, en el extremo de las manzanas destinados a paso de peatones o en un rebaje de la acera para discapacitados.

5. Cuando ocupe total o parcialmente un vado, dentro del horario autorizado para utilizarlo.

6. Cuando esté parado y/o estacionado en una zona reservada para carga y descarga, durante las horas de su utilización, sin estar cargando / descargando viajeros / mercancías.

7. Cuando esté estacionado en una parada de transporte público señalizada y delimitada.

8. Cuando esté estacionado en lugares expresamente reservados a servicios de urgencia o seguridad.

9. Cuando esté estacionado delante de las salidas de emergencia de locales destinados a espectáculos públicos, durante las horas que se celebren.

10. Cuando esté estacionado en una reserva para personas discapacitados.

11. Cuando esté estacionado totalmente o parcialmente sobre una acera, andén, refugio, paseo, zona de precaución o zona de franjas en el pavimento, salvo autorización expresa.

12. Cuando impida la visibilidad de las señales de tráfico al resto de usuarios de la vía pública.

13. Cuando impida el giro u obligue a hacer maniobras peligrosas para efectuarlo.

14. Cuando obstaculice la visibilidad del tráfico de una vía pública a los conductores que accedan desde otra.

15. Etxe bateko sarrera erabat edo neurri batean eragozten duenean.

16. Alkatetzaren Bandoak «nagusitzat» harturiko bide batean debekaturiko, eta behar bezala seinaleztaturiko, leku batean aparkaturik dagoenean.

17. Galtzadaren erdian aparkaturik dagoenean.

18. Oinezkoen eremu batean aparkaturik dagoenean, haie-tarako zehazturiko baldintzak betetzen ez baditu, espreski baimenduriko kasuetan izan ezik.

19. Zabor ontzien bilketa eragozten duten kasuetan.

20. Aurreko kasuetan bezala, zirkulazioari edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduari arrisku edo kalte larriak eragin liezazkiekeen kasu guztietan.

21. Legeak agintzen moduan ibilgailu baten inmoviliza-zioa egin behar denean eta toki egokirik aurkitzen ez denean.

#### 24. artikulua.

Udaltzaingoak honako kasu hauetan erretiratu ahal izango ditu ibilgailuak bide publikotik, haien aldetik lege-hausterik izan ez den arren:

1. Dauden lekua behar bezala baimenduriko ekitaldi publiko batean erabili behar bada.

2. Bide publikoaren garbiketarako, eraberritzeak edo seinaleztatzeak hala eskatzen badu.

3. Larrialdi kasuetan.

1. eta 2. ataletan zehaztaturiko gorabeherak lehenetsuz adierazi behar dira beti, eta ibilgailuak zeuden lekutik gune hur-bilenean utziko dira ahal den neurrian, gidariei non dauden zehazki adierazita. Leku aldatze horiek ez diote inolako gastu-rik ekarriko ibilgailuaren titularrari, ibilgailua noranahi ere era-man dela.

## II. KAPITULUA. IBILGAILUEN LOTZEAZ

#### 25. artikulua.

Udaltzaingoak lotu ahal izango ditu ibilgailuak, baldin eta hura erabilita arrisku bizian jarriko balira zirkulazioa, pertsonak edo ondasunak.

Bertan behera geratuko da neurri hau arriskuaren kausak desagertu diren orduko.

Beste kasu hauetan ere lotu ahal izango dira ibilgailuak:

1. Gidariak alkohol proba egiteari uko egiten dionean.

2. 1990eko martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Lege-emailearen 67. artikulua hiru garren paragrafoaren xedaturikoaren arabera, lege-hausleak isunaren munta ordaindu edo ordainketa bermatu nahi ez duenean.

## III. KAPITULUA. GASTUEN ORDAINTZAILEEZ

#### 26. artikulua.

1. Lapurretetan edo ibilgailua jabearen borondatearen kontra erabili den beste kasu batzuetan izan ezik, eta ongi argitu behar dira hauek guztiak, titularraren kargu joango dira Ordenantza honen 22. eta ondorengo artikulua aipagai duen erretiratzearen arabera gastuak, eta aurrez ordaindu beharko ditu edo haien ordainketa bermatu ibilgailua itzuliko bazaio.

15. Cuando impida total o parcialmente la entrada a un inmueble.

16. Cuando esté estacionado en lugar prohibido en vía declarada «preferente» por Bando de la Alcaldía. y esté específicamente señalizada.

17. Cuando esté estacionado en plena calzada.

18. Cuando esté estacionado en una zona peatonal fuera de las condiciones marcadas para la misma, salvo que esté expresamente autorizado.

19. Cuando obstaculice la recogida de residuos sólidos (basuras o reciclables).

20. Siempre que, como en todos los casos anteriores, constituyan peligro o cause grave molestia a la circulación o al funcionamiento de algún servicio público.

21. Cuando procediendo legalmente la inmovilización del vehículo no hubiere lugar adecuado para practicar la misma sin obstaculizar la circulación de vehículos o personas.

#### Artículo 24.

La Policía Local también podrá retirar los vehículos de la vía pública, aunque no estén cometiendo una infracción, en los siguientes casos:

1. Cuando estén estacionados en un lugar que se haya de ocupar para un acto público debidamente autorizado.

2. Cuando resulte necesario para la limpieza, reparación o señalización de la vía pública.

3. En caso de emergencia.

Las circunstancias especificadas en los apartados 1 y 2 de este artículo se deberán advertir con el máximo tiempo posible, y los vehículos serán conducidos al lugar autorizado más próximo que se pueda, con la indicación a sus conductores de la situación de aquellos. Los mencionados traslados no comportarán ningún tipo de gasto para el titular del vehículo, cualquiera que sea el lugar donde éste sea conducido.

## CAPITULO II. INMOVILIZACION DE VEHICULOS

#### Artículo 25.

La Policía Local podrá proceder a la inmovilización del vehículo cuando de su utilización pudiera derivarse un riesgo grave para la circulación, las personas o los bienes.

Esta medida será levantada inmediatamente después de que desaparezcan las causas que la han motivado.

También podrá inmovilizarse un vehículo en los siguientes casos:

1.º Cuando el conductor se niegue a someterse a las pruebas de detección alcohólica.

2.º Cuando, según lo dispuesto en el artículo 67.1, párrafo tercero, del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, el infractor se negase a depositar el importe de la multa o garantizar su pago.

## CAPITULO III. IMPUTACION DE GASTOS

#### Artículo 26.

1.º Salvo en caso de sustracción u otras formas de utilización del vehículo en contra de la voluntad de su titular, debidamente justificadas, los gastos que se originen como consecuencia de la retirada a la que se hace referencia en los artículos 22 y ss, de esta Ordenanza, será por cuenta del titular, que deberá abonarlos o garantizar su pago como requisito previo a la devolución del vehículo.



2. Era berean jokatu da gidariak alkohol proba egiteari uko egiten dion kasuetan eta indarrean dagoen legeriak hala xedatu duen beste kasu guztietan.

3. Erretiraturiko ibilgailua delitu batean erabili bada, eta horren ondorioz Epaileen esku geratu bada, epaitegi bidetik egingo da gastuen erreklamazioa.

4. Titularrak edo horretarako beharreko baimena duen pertsona batek baizik ez du Udal biltegira eramaniko ibilgailua jasoko.

#### 27. artikulua.

Bide publikoan dagoen ibilgailua erretiratzeko edo lotzeko lanak hasi orduko sortzen da gastuak ordaintzeko obligazioa. Aski izango da garabia edo xede horretarako erabiliko den ibilgailua erretiratu edo lotu beharreko ibilgailuaren ondoan egoitea, jardueran hasi ez diren arren.

### IV. KAPITULUA. IBILGAILUAK ERRETIRATZEKO ETA LOTZEKO ZERBITZUAREN TARIFAK

#### 28. artikulua.

Bide publikoan dauden ibilgailuak erretiratzegatik edo lotzegatik ordaindu beharreko tasak Hernani Udaleko Zerga, Tasa eta Prezio Publikoak arautzen dituen Ordenantzaren arabera sortu eta zehaztuko dira.

#### 29. artikulua.

Bide publikotik ibilgailu bat haren jabearen ezjakinean erretiratu bada eta 48 ordu igaro ondoren inor ez bada haren galdetza azaldu, espreski emango zaio erretiratzearen berri erreregistroan ibilgailu horren titular gisa agertzen den pertsonari.

## VIII. TITULUA

### ABANDONATURIKO IBILGAILUEZ

#### I. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOETAN

#### 30. artikulua.

Ibilgailu bat abandonu egoeran dagoela esan ahal izango da, honako zirkunstantzia hauetako batean badago:

1. Bi hilabetetik gorako epea eman badu bide publikoko leku berean aparkaturik.
2. Hilabete igaro ondoren, leku berean aparkatuta, dituen akatsengatik berez mugituz ez duenean edo matrikula plakak ez dituen jarrita.

Kasu honetan hiri hondakin solidoa izendatueta ingurunerako araudiaren arabera jokatu da.

Kasu honetan, nahiz eta abandonu egoera nabarmena izan, matrikula plakak agerian baditu edo beste edozein seinale bere jabea identifikatzen duena baldin badu, erretiratzeko 15 eguneko epea emango zaio, adieraziz egiten ez badu hiri hondakin solido izango balitz bezala jokatu dela.

2.º De igual forma se actuará en los casos de inmovilización por negarse a someterse a las pruebas de detección alcohólica y en aquellas que la legislación vigente lo especifique.

3.º Cuando el vehículo retirado haya sido utilizado para la comisión de algún delito, y éste se haya puesto a disposición de la Autoridad Judicial, la reclamación de los gastos se realizará por vía judicial.

4.º La retirada de los vehículos trasladados al depósito municipal, solamente podrá realizarlo el titular o persona debidamente autorizada.

#### Artículo 27.

La obligación de contribuir nace en el momento en que se inician las operaciones de retirada o inmovilización del vehículo de la vía pública, siendo suficiente a tal efecto la presencia de la grúa o vehículo destinado a tal fin junto al vehículo a retirar o inmovilizar, aun cuando no haya iniciado su actuación.

### CAPITULO IV. TARIFAS POR EL SERVICIO DE RETIRADA E INMOVILIZACION DE VEHICULOS

#### Artículo 28.

Las tasas por retirada e inmovilización de vehículos de la vía pública se devengarán con arreglo a lo marcado en la Ordenanza Reguladora de los Impuestos, Tasas y Precios Públicos Locales del Ayuntamiento de Hernani.

#### Artículo 29.

Cuando se hayan retirado vehículos de las vías públicas sin que conste el conocimiento del titular, transcurridas 48 horas desde su retirada y sin que nadie hubiera comparecido a reclamarlos, se procederá a informar de forma expresa al que figure como titular en el registro correspondiente.

## TITULO VIII

### DE LOS VEHICULOS ABANDONADOS

#### CAPITULO I. EN LAS VIAS PUBLICAS

#### Artículo 30.

Se podrá considerar que un vehículo se encuentra en estado de abandono si existe alguna de las circunstancias siguientes:

1. Que esté estacionado por un período superior a dos meses en el mismo lugar de la vía pública.
- 2.º Que, cuando permanezca estacionado por un periodo superior a un mes en el mismo lugar y presente desperfectos que hagan imposible su desplazamiento por sus propios medios o le falten las placas de matriculación.

En este caso tendrá el tratamiento de residuo sólido urbano de acuerdo con la normativa ambiental correspondiente.

En el supuesto contemplado en el apartado 1, y en aquellos vehículos que aun teniendo signos de abandono, mantengan la placa de matriculación o dispongan de cualquier signo o marca visible que permita la identificación de su titular, se requerirá a este, una vez transcurridos los correspondientes plazos, para que en el plazo de quince días retire el vehículo del depósito, con la advertencia de que, en caso contrario, se procederá a su tratamiento como residuo sólido urbano.

*31. artikulua.*

Abandonu egoeran dagoen ibilgailuak zirkulazioan edo zerbitzu publiko baten funtzionamenduan halako arrisku edo enbarazu larriarik eragiten ez duen bitartean (bestela, berehala erretiratuko da), honela jokatu da:

1. Egoeraren berri emango zaio Ibilgailuen Erregistroan haren titular gisa agertzen den pertsonari edo haren legezko jabeari, eta hamar eguneko epea emango zaio ibilgailua hartu eta erretiratu dezan.

2. Hamar egunak igaro eta ibilgailuak abandonu egoeran badirau, udal biltegiara erretiratuko da eta hasiera emango zaio, era berean, santziorako espedienteari.

3. Titularren kargura joango dira abandonaturiko ibilgailuak erretiratzeagatik ordaindu beharreko gastuak.

## II. KAPITULUA. UDAL BILTEGIAN

*32. artikulua.*

Udal biltegiara trafiko arauak haustean, trafiko istripuen, epaitegiaren aurreko jardunbide amaitu baten edo behar bezala arrazoituriko beste aktuazio batzuen ondorioz erretiratu diren ibilgailuak abandonaturiko ibilgailutzat hartuko dira biltegiara sartu eta hilabetera, edo haiei buruzko prozesua bukatu ondoren, titularrek edo jabeek ez badituzte erretiratu, eta hurrengo artikuluan aurreikusirik era horretan jokatu da ondoren.

## III. KAPITULUA. ABANDONATURIKO IBILGAILUEN BESTERENTZEA

*33. artikulua.*

1. Udalak jendaurreko enkantean salduko ditu udal biltegiatan jasoriko ibilgailuak, haien titularrei erretiratzearen eta ondoko biltegiratzearen berri espreski eta behar bezala eman eta hilabete igaro ondoren titularrek edo jabeek ez badute neurririk hartu haiek berreskuratzeko.

2. Jasoriko ibilgailuen titularrak ezezagunak direnean edo non dauden inork ez badaki, haiek aurkitzeko gestioek fruiturik eman ez badute, aurreko atalak aipagai duen jakinarazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara emaniko ediktuen bitartez egingo da, kostuak titularrek ordainduta, agertuko balira, eta ahalik eta zehatzen emango dira jakinarazpen haietan ibilgailuen erreferentziak eta ezaugarriak.

3. Abandonaturiko ibilgailuak enkante publikoan saldu aurretik, Udalak Industria Ordezkaritzarekin eta/edo Trafikoko Lurralde Buruzagitzarekin tramitatuko ditu ibilgailu mota honen gainean Indarrean dagoen Legeriaren aurrean dituzten obligazio desberdinak.

4. Ibilgailuak epaitegi baten peko trafiko ekintzetan nahasiak badira, aurreko xedapenak ez dira aplikatuko epaitegiaren jardunbidea tramitatzen ari den bitartean.

5. Ibilgailuak enkantean saldu ondoko dirua, lehendabizi, gastuak (ibilgailuak erretiratzea, biltegiratzea, eta enkantea) ordaintzeko erabiliko da. Soberakina ibilgailuaren titularraren alde gordeko da bi urteko epean. Udala jabetuko da soberakin hortaz epe horren ondoren.

*Artículo 31.*

Siempre y cuando el vehículo en estado de abandono no constituya peligro o cause grave molestia a la circulación o al funcionamiento de algún servicio público, en cuyo caso se procederá a su retirada de forma inmediata, se actuará de la siguiente forma:

1.º Se procederá a notificar la circunstancia a quien figure como titular en el Registro de Vehículos o a quien resultase ser su legítimo propietario, requiriéndole para que en el plazo de diez días se haga cargo del vehículo y modifique la situación de abandono.

2.º Si transcurridos los diez días, el vehículo persistiese en el mismo estado de abandono se procederá a su retirada al depósito municipal, sin perjuicio de la iniciación del oportuno expediente sancionador.

3.º Los gastos derivados de la retirada de los vehículos abandonados serán por cuenta de sus titulares.

## CAPITULO II. EN EL DEPOSITO MUNICIPAL

*Artículo 32.*

Aquellos vehículos que hayan sido retirados al depósito municipal por infracciones de tráfico, accidentes de tráfico, por hechos sometidos a un procedimiento judicial concluido, o por otras causas justificadas, y habiendo transcurrido un mes desde su entrada en el depósito o desde la conclusión del procedimiento sin haber sido retirados por sus titulares o propietarios, se considerarán como vehículos abandonados y se procederá del modo previsto en el artículo siguiente.

## CAPITULO III. ENAJENACION DE VEHICULOS ABANDONADOS

*Artículo 33.*

1. El Ayuntamiento procederá a la venta en pública subasta de los vehículos que tenga depositados en los locales o recintos establecidos al efecto, cuando después de haberse notificado expresa y formalmente a sus titulares la circunstancia de su retirada y depósito, haya transcurrido más de un mes sin que aquellos adopten las medidas adecuadas para hacerse cargo de los mismos.

2. Cuando los titulares de los vehículos depositados fuesen desconocidos o se encontrasen en ignorado paradero, una vez que resulten infructuosas las gestiones para su localización, la notificación a que se refiere el número anterior se practicará mediante Edictos publicados en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa a costa de los titulares, si apareciesen, especificándose con la mayor precisión posible las referencias y características de los vehículos.

3. Antes de la venta en pública subasta de los vehículos abandonados el Ayuntamiento tramitará con la Delegación de Industria y/o con la Jefatura Provincial de Tráfico las distintas obligaciones a que están sometidos en la Legislación Vigente este tipo de vehículos.

4. Las disposiciones que anteceden no se aplicarán cuando los vehículos se hallaren implicados en hechos de tráfico sometidos a procedimiento judicial, mientras continúe su tramitación.

5. El producto de la venta en subasta de los vehículos, se aplicará en primer lugar al pago de los gastos, tanto de retirada y custodia como los que origine la subasta. El sobrante se depositará durante un plazo de dos años a disposición del titular del vehículo. Transcurrido este plazo, se adjudicará al Ayuntamiento.

*34. artikulua.*

Titularrek ibilgailuak abandonatzeko borondatea espreski azaldu dutenean, bere irudizko modu egokienean erabiliko ditu Udalak orduan.

*35. artikulua.*

Abandonaturiko ibilgailuak besterentzeko prozedurak ez du titularrek abandonuaren edo titularitate horren kariaz lehenago-takin zituzten obligazioen aurreko erantzukizuna aldatzen.

Legediak agintzen dituen pauso guztiak eman ondoren eta ibilgailuaren jabeak ez badu erreklamaziorik egiten, txarrerako txostena irekiko da.

## IX. TITULUA

## ZIRKULAZIO ARAU BEREZIEZ

## I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

*36. artikulua.*

Egoerak hala eskatzen badu, trafikoa ordenatzeko neurri bereziak hartu ahal izango dira, ibilgailuen zirkulazioa debekatzeta edo murriztea, edo hiriko eremu batzuetarako sarrerak alde jakin batzuetatik bideratzea, edota aparkalekuak berrordenatzea.

## II. KAPITULUA. OINEZKOEN EREMUAK

*37. artikulua.*

Bere ustez hiriko eremu baten ezaugarriek hala eskatzen badute, Udal Administrazioak erabat edo neurri batean debeka dezake ibilgailuen zirkulazioa eta aparkamendua, edo bi horietako bat, aipaturiko eremu horren barneko bide publiko batzuk edo guztiak oinezkoen trafikorako erreserbatzeko.

Eremu horiek oinezkoen eremu izena hartuko dute eta Bando edo Ordenantza bidez iragarriko dira.

*38. artikulua.*

Oinezkoen eremuetan zehazki seinaleztatuko dira sarrera eta irteera, eta beste elementu mugikor batzuk erabili ahal izango dira, halaber, ibilgailuak kale edo eremu horietan ibil ez daitezten.

*39. artikulua.*

Oinezkoen eremuetan, honelakoa izan ahal izango da ibilgailuak zirkulatzeko eta aparkatzeko debekua:

1. Hartu ahal izango ditu perimetroaren barneko bide guztiak edo haietako batzuk bakarrik.
2. Aurrez zehazturiko ordutegi mugatu bat izango dute, edo ez.
3. Egunerokoa izango da edo, bestela, egun jakin batzuetakoa.

*40. artikulua.*

Xedaturiko mugen esparruetan, ez dira behin ere oztopatuko honako zerbitzu ibilgailu hauen zirkulazioa eta aparkamendua:

1. Su-hiltzaileen eta Poliziaren ibilgailuak, anbulantziak eta, oro har, zerbitzu publikoetan ari diren ibilgailu guztiak.

*Artículo 34.*

En los supuestos en que los titulares hayan manifestado en forma expresa su voluntad de abandonar los vehículos, el Ayuntamiento dispondrá de ellos como resulte más conveniente.

*Artículo 35.*

El procedimiento para la enajenación de vehículos abandonados no alterará la responsabilidad de sus titulares por el abandono de los mismos o por obligaciones contraídas anteriormente derivadas de dicha titularidad.

Si realizado el procedimiento legal establecido, el titular de un vehículo retirado no hace reclamación expresa del mismo, se procederá al expediente de achataamiento.

## TITULO IX

## DE LAS MEDIDAS CIRCULATORIAS ESPECIALES

## CAPITULO I. NORMAS GENERALES

*Artículo 36.*

Cuando circunstancias especiales lo requieran, se podrá tomar las oportunas medidas de ordenación del tráfico, prohibiendo o restringiendo la circulación de vehículos, o canalizando las entradas a unas zonas de la población por determinadas vías, así como reordenando el estacionamiento.

## CAPITULO II. ZONAS PEATONALES

*Artículo 37.*

La Administración Municipal podrá, cuando las características de una determinada zona de la población lo justifiquen, a juicio suyo, establecer la prohibición total o parcial de circulación y estacionamiento de vehículos, o solo una de las dos cosas, con el fin de reservar todas o algunas de las vías públicas comprendidas dentro de la zona mencionada al tráfico de peatones.

Estas zonas se denominarán zonas peatonales y se determinarán mediante Bando u Ordenanza Municipal.

*Artículo 38.*

Las zonas peatonales deberán tener la oportuna señalización en la entrada y salida, sin perjuicio de la utilización de otros elementos móviles que impidan la entrada y la circulación de vehículos en la calle o zona afectada.

*Artículo 39.*

En las zonas peatonales, la prohibición de circulación y estacionamiento de vehículos podrá:

1. Comprender la totalidad de las vías que estén dentro de su perímetro o sólo algunas de ellas.
2. Limitarse o no a un horario preestablecido.
3. Tener carácter diario o referirse solamente a un número determinado de días.

*Artículo 40.*

Cualquiera que sea el alcance de las limitaciones dispuestas, no afectarán a la circulación ni al estacionamiento necesario para la realización del servicio de los siguientes vehículos:

- 1.º Los del servicio de Bomberos, los del servicio de Policía, las ambulancias y, en general, los que sean necesarios para la prestación de servicios públicos.

2. Gaixoak eremuko etxe batetik edo batera garraiatzen dituzten ibilgailuak.

3. Eremuko garaje baimendu batetik edo batera ari diren ibilgailuak, eta oinezkoen eremuan baimenduriko aparkaleku batetik ateratzen ari direnak.

4. Aparteko egoeratan (altzariak etxe batetik bestera aldatzea, premiatasun obrak, istripuen eraginak konpontzea, eta abar) udaltzain buruak edo zerbitzu horretako arduradunak oinezkoen eremuan sartzeko baimena emateko ahalmena izango du, baldin eta ezarritako ordutegian beste modurik ez badago karga eta deskargak egiteko.

Halaber, oinezkoen eremuan bizi diren herritarrek edo merkatariek eremuan sartu ahal izango dira beren etxe eta dendetan zerbait kargatu edo deskargatu behar dutenean, baldin eta zamalan horiek baimendutako ordutegian egiten badituzte eta eremuan egiten duten egonaldia ahal denik eta laburrena bada; nolana ere, egonaldi horiek ez dira 15 minututik gorakoak izango.

### III. KAPITULUA. LEHENTASUNA ALDATU ZAIEN EREMUA EDO EGOITZA KALEAK

#### 41. artikulua.

Bide publikoetan ibilgailuek zirkulazio arauak murrizturik izango dituzten eremuak sortu ahal izango dira. Behar bezala seinaleztatuko dira eta oinezkoek izango dute lehentasuna kasu guztietan.

Bizikletek ere lehentasuna izango dute ibilgailuen aurrean, ez ordea oinezkoen aurrean.

### IV. KAPITULUA. GARRAIO PUBLIKOEN GELTOKIAK

#### 42. artikulua.

1. Udalak zehaztuko ditu garraio publikorako geltokiak egokituko diren lekuak.

2. Lerroen hasiera eta amaieretan izan ezik, bidaiariak jaso eta uzteko behar duten denbora baizik ez dute emango hauetan ibilgailuek.

3. Garraio publikorako geltokietan taxien zerbitzurako utziriko lekuetan, bidaiarien zain baizik ez dira egongo mota horretako ibilgailuak.

4. Geltokietara bilduriko ibilgailuen kopurua inoiz ez da izango haien edukiera baino handiagoa.

### V. KAPITULUA. AUTOBUSEN GELTOKIA

#### 43. artikulua.

Autobusen geltokiak eta baimenduriko terminalak hirien arteko bidaiari garraiorako lerroen hasiera eta amaiera izango dira.

### VI. KAPITULUA. KARGA ETA DESKARGA

#### 1. ATALA. Arau orokorrak

#### 44. artikulua.

Merkantzien karga eta deskarga merkataritza eta industria lokalen barnean egin beharko dira, lokal horiek beharreko baldintzak betetzen badituzte.

2.º Los que transporten enfermos a un inmueble de la zona o fuera de ella.

3.º Los que salgan de un garaje autorizado con vado situado en la zona o vayan a él, y los que salgan de un estacionamiento autorizado dentro de la zona peatonal.

4.º En casos extraordinarios (mudanzas, obras de urgencia y reparación de siniestros, etc.) y siempre que no sea posible o no exista otro modo de realizar la carga y descarga dentro de los horarios establecidos, la Jefatura de la Policía Municipal o el responsable del servicio podrá autorizar el acceso a la zona peatonal.

Así mismo, los vecinos y comerciantes de la zona que deban realizar algún tipo de carga o descarga de sus domicilios o comercios podrán acceder a la zona peatonal siempre que lo hagan dentro del horario autorizado y su estancia en la zona sea lo más breve posible y no superior a 15 minutos.

### CAPITULO III. ZONAS DE PRIORIDAD INVERTIDA O CALLES RESIDENCIALES

#### Artículo 41.

Se podrá establecer en las vías públicas, mediante la señalización correspondiente, zonas en las que las normas generales de circulación para vehículos queden restringidas, y donde los peatones tengan prioridad en todas sus acciones.

Las bicicletas también gozarán de esta prioridad sobre el resto de vehículos, pero no sobre los peatones.

### CAPITULO IV. PARADAS DE TRANSPORTE PUBLICO

#### Artículo 42.

1. El Ayuntamiento determinará los lugares donde deberán situarse las paradas de transporte público.

2. No se podrá permanecer en éstas más tiempo del necesario que para recoger o dejar viajeros, salvo las señalizadas como origen o final de línea.

3. En las paradas de transporte público destinadas al servicio del taxi, estos vehículos podrán permanecer únicamente a la espera de pasajeros.

4. En ningún momento el número de vehículos podrá ser superior a la capacidad de la parada.

### CAPITULO V. ESTACION DE AUTOBUSES

#### Artículo 43.

Las estaciones de autobuses y las terminales autorizadas, serán el origen o final de las líneas de transporte regular de viajero de carácter interurbano.

### CAPITULO VI. CARGA Y DESCARGA

#### SECCION 1.ª Normas generales

#### Artículo 44.

La carga y descarga de mercancías, deberá realizarse en el interior de los locales comerciales e industriales, siempre que reúna las condiciones adecuadas.



*45. artikulua.*

Merkantziak eta kargatu edo deskargatu behar diren gaineko gaiak ez dira galtzadan edo espaloian utziko, eta zuzenean eramango dira lokalera ibilgailutik edo alderantziz.

*46. artikulua.*

Merkantziak espaloitik hurbilen duen aldetik kargatu edo deskargatuko dira; bitarteko aproposenak erabiliz lan horiek azkar egiteko; eta oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazioa ahalik eta gutxien oztopatuz.

*47. artikulua.*

Hiri barneko karga eta deskarga lanak ez dira goizeko 8.00ak baino lehen hasiko eta erabat amaituko dira arratsaldeko 20.00etan, 48. artikuluan xedaturikoa beti kontuan hartuko bada ere. Karga eta deskarga lanak kontu handiz bideratuko dira, beharrik gabeko zaratarik sor ez dadin, eta erabilitako eremua garbi uzteko obligazioarekin.

Herri barruko kaleetan (oinetako esparruan), ordutegia goizeko 06,00etatik eguerdiko 13,30era izango da.

Halako arrazoi bereziagatik karga eta deskarga lanak ordu horietatik kanpo egin beharko balira, Udaltzaingoaren baimena beharko litzateke horretarako.

## 2. ATALA. Karga eta deskargarako eremu bereziak

*48. artikulua.*

Merkataritza edo industria lokalen baldintzen arabera barneko karga eta deskarga lanak bidera ezinak badira, horretarako erreserbatutako eremuetan bideratuko dira lan horiek.

*49. artikulua.*

Udalak seinaleztatuko ditu araupeko eta denbora mugatuko karga eta deskargarako eremuak. Banaketa merkataritza guneen baldintzen arabera egingo da eta gogoan edukiko dira haien kokalekua, erabileraren maiztasuna, eta trafikoa eta bideen gainerako erabiltzaileengan izango duten eragina.

## 3. ATALA. Karga eta deskarga eremuetarako arauak

*50. artikulua.*

## 1. Karga eta deskargako ibilgailuzat joko dira:

Garraio txartela duten ibilgailuak.

Garraio txartelik ez dutelarik ere karga-deskarga lanetan ibiltzen diren furgoneta txikiak, betiere egoki diren errotuluz behar bezala identifikaturik badaude.

Gremio askok erabiltzen dituzten ibilgailuak, baldin eta errotulu egokiz behar bésala identifikatzen badira.

2. Ez dira karga eta deskarga lantzat joko merkantziak edo materialak banatzearekin zerikusi zuzenik ez dutenak, hala nola erosketak, gestioak, lanera joatea, eta abar.

3. Aurreko ataletan aipatu diren ibilgailuak karga eta deskargarako guneetan ibili ahal izango dira, baina bakar-bakarrik karga-deskarga lanetan ari direnean. Holakoetan, ibilgailu horiek ahal denik eta denborarik txikiena hartuko dute, eta denbora hori gehienez ere 20 minutukoa izango da.

4. Karga eta deskargarako eremu bereziak astelehenetik ostiralera baino ez dira lan horietarako erabiliko, eta betiere seinaletan zehaztuko den ordutegiaren barruan.

Larunbatetan ere egin ahal izango dira karga eta deskargak goizeko 08,00etatik eguerdiko 13,00tara.

*Artículo 45.*

Las mercancías y demás materiales que sean objeto de carga y descarga no se dejarán sobre la calzada o la acera, sino que se trasladarán directamente del inmueble al vehículo o viceversa.

*Artículo 46.*

Las mercancías se cargarán y descargarán por el lado del vehículo más próximo a la acera, utilizando los medios necesarios para agilizar la operación y, procurando no dificultar la circulación, tanto de peatones como de vehículos.

*Artículo 47.*

Las operaciones de carga y descarga dentro del casco urbano no podrán comenzar antes de las 8 horas ni proseguir después de las 20 horas, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 48, y se realizarán con las debidas precauciones para evitar ruidos innecesarios y con la obligación de dejar limpia la zona utilizada.

En las calles del centro urbano (zona peatonal) la carga y descarga se iniciará a las 06.00 horas finalizando a las 13.30 horas.

Si por alguna circunstancia especial fuese necesario efectuar labores de carga y descarga fuera del horario establecido, será necesaria la autorización de la Policía Local.

SECCION 2.<sup>a</sup> Zonas reservadas para la carga y descarga*Artículo 48.*

Cuando las condiciones de los locales comerciales o industriales, no permitan la carga y descarga en su interior, estas operaciones se realizarán en las zonas reservadas para este fin.

*Artículo 49.*

El Ayuntamiento procederá a señalizar zonas de carga y descarga reguladas y con horario limitado. Esta distribución se realizará atendiendo a las circunstancias comerciales, a su situación, frecuencia de uso y repercusión al tráfico y a los demás usuarios de las vías.

SECCION 3.<sup>a</sup> Normas de utilización de las zonas de carga y descarga*Artículo 50.*

## 1. Se considera vehículo de carga y descarga:

Al vehículo que esté en posesión de la tarjeta de transporte.

La pequeña furgoneta que aun careciendo de la tarjeta de transporte se dedique a dichas labores y esté debidamente identificada y rotulada.

El vehículo utilizado por los distintos gremios siempre que esté rotulado e identificado.

2. No se consideran labores de carga y descarga a aquellas que no estén directamente relacionadas con el reparto de mercancías o de materiales, tales como realizar compras, gestiones, trabajos, etc.

3. Los vehículos antes mencionados podrán hacer uso de las zonas de carga y descarga únicamente cuando se hallen realizando dichas labores, pudiendo permanecer en las mismas el tiempo mínimo indispensable, que como máximo será de 20 minutos.

4. Las zonas reservadas para carga y descarga únicamente estarán disponibles para tal fin de lunes a viernes, dentro del horario que se regule en la señalización correspondiente.

Así mismo, los sábados queda autorizada la carga y descarga desde las 08.00 horas y las 13.00 horas.

## 4. ATALA. Karga eta deskarga eremu berezietatik kanpo

## 51. artikulua.

Horretarako erreserbatutako eremuetatik kanpo, karga eta deskarga lanak soilik baimenduko dira erreserbatutako eremurik ez badago edo biltegiarako distantziak nekea edo arriskua sor badezake.

Karga eta deskarga lan hauetan Ordenantza honetan aparkamenduari begira xedatu diren arauak bete behar dira eta ez zaie bide publikoaren beste erabiltzaileei inolako arrisku edo kalterik sortaraziko.

## VII. KAPITULUA. ZIRKULAZIO ERREIAK

## 52. artikulua.

1. Erreserbatutako erreietatik unean uneko seinaleek adierazitako ibilgailuak baizik ez dira ibiliko.

2. Salbuespen gisa, udal autobus eta taxiarentako (bus-taxi) karriletan ibili ahal izango dira halaber lerroko autobusak eta eskola eta haurren garraiorako autobusak, baldin eta horiek, taxiak bezala, bidaiariak badaramatzate.

## VIII. KAPITULUA. ABIADURA PREKAUZIOAK EMAN HANDIKO BIDEETAN

## 53. artikulua.

Errei bakar batetik zirkulatu beharreko kaleetan eta oinezkoen emana handia den gainerako guztietan, ibilgailuek moteldu egingo dute abiadura egokia hartu arte, eta kontu handiz ibiliko dira betiere.

Neurri berberak hartuko dira euria ari badu, zoladura gaizki badago edo bidea estua bada.

## IX. KAPITULUA. IBILGAILU BIGURPILDUNEN ZIRKULAZIOA

## 54. artikulua.

1. Bi gurpileko ibilgailuak ezin ibiliko dira maila handiagoko bi ibilgailuen artean, lerro baten eta espaloien artean, ezta paraleloan ere.

2. Aurreko atalak aipagai dituen ibilgailuak ez dira inolaz ere espaloien edo ibilbideetatik ariko. Gogoan edukiko da, nolahi ere, Ordenantza honetako 10. artikuluan 2. atalak xedaturikoa.

3. Motozikletek eta ziklomotoreek ez dute zaratarik aterako isilgailu egokirik ez izateagatik, tupusteko azelerazioengatik, ihes tutuak hondatuta izateagatik edo beste edozein mota-tako akatsengatik.

4. Aurreko atalean aipatu diren ibilgailuentzako zarata maila onargarria 82 db (A) izango da gehienez ere.

5. Udaltzaingoaren ardura izango da baimendutako zarata maila gainditzen duen ibilgailuan dabilena edo horren jabea dena salatzea; udaltzaingoak ibilgailua aztertzeke eta ikuskatzeko lekua eta ordua adieraziko dizkio salatuari, eta baita horra aurkezteko derrigortasuna.

6. Ibilgailua ikuskaturik, ikusiko balitz ez duela baimendutako zarata mailarik gainditzen, salaketa artxibatu egingo da.

7. Ibilgailua ez bada aurkezten ezarritako epearen barruan edota ikuskapena eginda ikusten bada gehiengo zarata maila gainditu egiten duela edota «ihes tutu ireki»az dabilela, ibilgailua Udaltzaingoaren gortekuan atxilotuko da, harik eta arau-haustea

## SECCION 4.ª Carga y descarga fuera de las zonas reservadas

## Artículo 51.

Únicamente se permitirá la carga y descarga fuera de las zonas reservadas cuando no existiesen éstas o su distancia al lugar de almacenaje se hiciese penoso o peligroso.

Estos labores se realizarán siempre cumpliendo las normas de estacionamiento establecidas en esta Ordenanza y no crearán en ningún momento peligro o perjuicio a los demás usuarios de la vía pública.

## CAPITULO VII. CARRILES CIRCULATORIOS

## Artículo 52.

1. Por los carriles reservados sólo podrán circular los vehículos que indique la señalización correspondiente.

2. Por excepción, por los carriles reservados a autobuses municipales y taxis (bus-taxi), también podrán circular los autobuses regulares y los de transportes escolares y de menores, siempre que tanto éstos como los taxis lleven pasajeros.

## CAPITULO VIII. PRECAUCIONES DE VELOCIDAD EN LUGARES DE CONFLUENCIA

## Artículo 53.

En las calles donde se circula sólo por un carril y en todas aquellas, donde la afluencia de peatones sea considerable, los vehículos reducirán la velocidad a la adecuada y tomarán las precauciones necesarias.

Las mismas medidas deberán ser adoptadas en caso de lluvia, mal estado del pavimento o estrechez de la vía.

## CAPITULO IX. CIRCULACION DE VEHICULOS DE DOS RUEDAS

## Artículo 54.

1. Los vehículos de dos ruedas no podrán circular entre dos filas de vehículos de superior categoría, ni entre una fila y la acera, ni circular en paralelo.

2. Los vehículos a que se refiere el apartado anterior, no podrán circular en ningún caso por aceras, andenes y paseos, sin perjuicio de lo que se dispone en el apartado 2 del artículo 10 de esta Ordenanza.

3. Las motocicletas, ciclomotores, triciclos y cuatriciclos no podrán circular produciendo ruidos ocasionados por falta de silenciadores adecuados, aceleraciones bruscas, tubos de escape alterados u otras circunstancias anómalas.

4. Los límites máximos admisibles de nivel sonoro emitidos por los distintos vehículos mencionados en el apartado anterior, no podrán superar 82 db (A).

5. La Policía Municipal formulará denuncia contra el propietario o usuario de todo vehículo que a su juicio sobrepase los niveles sonoros permitidos, indicando la obligación de presentar el vehículo en lugar y horario preciso para su reconocimiento e inspección.

6. Si inspeccionado el vehículo, éste no superase los niveles sonoros permitidos, la denuncia será sobreesida.

7. En el caso de no presentar el vehículo a inspección en el plazo requerido o ratificado en inspección que sobrepasa los límites máximos de emisión de ruido o cuando circule con el denominado «escape libre», dará lugar a la inmovilización y

eragin duen akatsa konpondu arte eta Ordenantza honetan ezarritakoa bete arte. Horrez gain, egoera horretan dagoen ibilgailuak salaketa administratiboari aurre egin beharko dio.

*55. artikulua.*

1. Ziklomotoreetan gidaria baizik ez da bidaiatuko.
2. Motozikletetan bidaiari bat joango da gehienez, gidariaz gainera, honako baldintza hauek betetzekotan:
  - 2.1. Horretarako aukera zehaztuko du Gidatzeko Baimenak.
  - 2.2. Edozein bidetan doalarik, motozikletako bidaiaria zangalatraba eta oinak alboetako ointokietan jarrita joango da.
  - 2.3. Bidaiarik ez da joango motozikleta gidariaren eta esku-lekuaren artean.
3. Motozikletei pertsonen garraiorako modulu edo sidekar bat erantsi ahal izango zaie, Gidatzeko Baimenak aukera hori zehazten badu.

X. KAPITULUA. MONOPATIN, PATIN, HAUREN TRIZIKLO ETA ANTZEKOEN ERABILERAZ

*56. artikulua.*

Monopatin, patin edo antzeko tresnak erabiltzen dituztenak ezin ibiliko dira galtzadan, non eta ez diren horretarako bereziki atondutako eremu, bide eta bide-tarteetan.

*57. artikulua.*

Txirriindulariantzat utzitako erreiak ere erabil ditzakete aurreko atalean aipaturiko ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsonak.

*58. artikulua.*

Pertsonen pausuan baizik ez dira ibiliko behar bezala seinalezaturik dauden espaloietan, egoitza edo oinezkoen kaleetan, eta ez da inoiz ere beste ibilgailu batek herrestan eramanak izan daitezen onartuko.

*59. artikulua.*

Ezinduen autoak bereziki utzi zaien bidetik edo bide-tartetik ibiliko dira. Horrelakorik ez badago, eskuinaldeko bazterbidetik ibiliko dira, ibiltzeko moduan badira, eta halakorik ezin bada, behar duten lekua hartuko dute galtzadan.

XI. KAPITULUA. BIZIKLETAK

*60. artikulua.*

1. Bizikletak espaloi edo ibilbideetan erabili ahal izango dira, hartarako errei bat berezi bazaie, baina oinezkoek izango dute lehentasuna igarotzerakoan.
2. Bizikletentzat bereizitako erreietan ez badira ibiltzen, galtzadan ibiliko dira, espaloitik ahalik eta hurbilen, beste ibilgailu batzuentzako karrilak bereizi diren kasuetan izan ezik. Horrelakoetan, erreseraturikoaren ondoko karrila erabiliko dute.
3. Galtzada bat baino gehiagoko bideetan, alboetatik ibiliko dira.

custodia en Deposito Municipal de éste, hasta que se subsanen las causas que motivan dicha anomalía y que cumplan lo establecido en esta Ordenanza, así como al tramite de la correspondiente denuncia administrativa.

*Artículo 55.*

1. Los ciclos o ciclomotores no podrán ser ocupados durante su circulación por más de una persona cuando hayan sido construidos para una sola.
2. En las motocicletas además del conductor podrá viajar, como máximo, un pasajero, siempre que se cumplan las condiciones siguientes:
  - 2.1. Que así conste en su Permiso de Circulación.
  - 2.2. Que el viajero de la motocicleta cuando circule por cualquier clase de vía, vaya a horcajadas y con los pies apoyados en los reposapiés laterales.
  - 2.3. En ningún caso podrá situarse el viajero entre la persona que conduce y el manillar de la motocicleta.
3. Las motocicletas podrán llevar instalado un acoplamiento para el transporte de personas (sidecar), si así consta en su Permiso de Circulación.

CAPITULO X. DEL USO DE MONOPATINES, PATINES, TRICICLOS DE NIÑOS O APARATOS SIMILARES

*Artículo 56.*

Los que utilicen monopatinas, patines o aparatos similares no podrán circular por la calzada, salvo que se trate de zonas, vías o partes de las mismas que les estén especialmente destinadas.

*Artículo 57.*

Los carriles reservados especialmente para ciclistas también podrán ser usados por personas que utilicen los aparatos mencionados en el artículo anterior.

*Artículo 58.*

Solamente podrán circular a paso de persona por las aceras o por las calles residenciales o peatonales debidamente señalizadas, sin que en ningún caso se permita que sean arrastrados por otro vehículo.

*Artículo 59.*

Los coches de discapacitados circularán por la vía o parte de la misma que les esté especialmente destinada. En su defecto, circularán por el arcén de su derecha, si fuera transitable y suficiente y, si no lo fuera, utilizará la parte imprescindible de la calzada.

CAPITULO XI. BICICLETAS

*Artículo 60.*

1. Las bicicletas podrán circular por las aceras, andenes y paseos, si tienen un carril especialmente reservado a esta finalidad, pero los peatones gozarán de preferencia de paso.
2. Si no circulan por los carriles reservados a bicicletas, lo harán por la calzada, tan cerca de la acera como sea posible, excepto donde haya carriles reservados a otros vehículos. En este caso, circularán por el carril contiguo al reservado.
3. En las vías con diversas calzadas, circularán por los laterales.

4. Parke publikoetan eta oinezkoen eremuetan, seinalezta-turiko bideetatik joango dira.

Horrelakorik ez bada, ez dute oinezkoen abiadura gaindituko. Nolanahi ere, oinezkoena izango da lehentasuna.

## X. TITULUA

### ARGIEN ERABILERA

#### 61. artikulua.

Ilunabarretik eguna argitzen hasi arte eta, tuneletan eta «tunel» seinaleak ukituriko bide-tarte guztietan, eguneko edozein ordutan zirkulatzeko ari diren ibilgailuek pizturik eramango dituzte legearen arabera dagozkien argiak.

## XI. TITULUA

### ZIRKULAZIOAREN MUGAK

#### 62. artikulua.

Hiri barnean, guztiz debekatzen dira honako pisu eta neurri hauek gainditzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa eta aparkalekua: Pisan, 10.000 kg-tik gorako ibilgailuak; luzeran, 10 mko luzeratik gorako ibilgailuak; zabaleran, 2,5 m-ko luzeratik gorako ibilgailuak, eta altueran, 3,5 m-ko luzeratik gorako ibilgailuak.

#### 63. artikulua.

Murrizte hauetatik kanpo daude baimenduriko lerro erregularrak autobusak eta hiri barnean bidaiariak utzi edo jasotzen dituzten autobusak.

#### 64. artikulua.

Hiriko sarreretan ezarriko dira gidariei arau murriztaile hauen berri emango dieten seinaleak.

#### 65. artikulua.

Ezaugarri, komunikazio, egoera, lan molde edo beste baldintza batzuk direla eta, salbuespen gisa onartuko da bide batzuetan 62. artikuluan adierazitako pisua eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailu batzuen zirkulazioa.

#### 66. artikulua.

Arrazoi horiek direla eta, banako baimen bat ematen bada, ibilgailuaren gidariak, Udaltzaingoarekin batera, beharrezko neurriak hartuko ditu bide publikoen gainerako erabiltzaileei inolako arrisku edo kalterik ez sorrarazteko.

Nolanahi ere, baimenaren titularra izango da salbuespen gisa onarturiko zirkulazio honen ondorioz gerta litezkeen kalte guztien erantzule bakarra.

#### 67. artikulua.

Honako zehaztapen hauek egin beharko dira, aurreko artikuluan aipaturiko baimenak onartzearekin batera:

- Baimenaren balio denbora.
- Ibilgailuak egin beharreko bide zehatza.
- Hartu beharreko segurtasun neurriak.
- Zirkulatzeko, maniobrak egiteko edo aparkatzeko orduak.
- Bide publikoaren segurtasuna bermatzeko beharko liratekeen ohar guztiak.

4. En los parques públicos y zonas de peatones, lo harán por los caminos señalizados.

Si no hay, no excederán en su velocidad de la normal de un peatón. En cualquier caso, éstos gozarán de preferencia.

## TITULO X

### UTILIZACION DEL ALUMBRADO

#### Artículo 61.

Todos los vehículos que circulen entre la puesta y la salida del sol o a cualquier hora del día en los túneles y demás tramos de vía afectados por la señal «túnel», deben llevar encendido el alumbrado preceptivo.

## TITULO XI

### LIMITACIONES A LA CIRCULACION

#### Artículo 62.

Con carácter general se prohíbe la circulación, así como el estacionamiento, dentro del casco urbano de vehículos que superen un peso y dimensiones máximas de: 10.000 kg, 10 metros de longitud, 2,5 metros de anchura y 3,5 metros de altura.

#### Artículo 63.

De estas restricciones quedarán excluidos los autobuses que tengan autorizada línea regular o parada para recoger o dejar viajeros dentro de la ciudad.

#### Artículo 64.

En las entradas a la ciudad se colocarán las pertinentes señales que informen a los conductores de las mencionadas normas restrictivas.

#### Artículo 65.

Debido a sus características, comunicaciones, situación, labores a realizar u otras condiciones peculiares, en algunas vías se podrá autorizar excepcionalmente la circulación de vehículos que superen los pesos y medidas señaladas en el artículo 62.

#### Artículo 66.

En caso de que por las citadas circunstancias se concediera una autorización individual, el conductor del vehículo en colaboración con la Policía Local, procederá a tomar todas las medidas oportunas para garantizar que no se produzcan riesgos o perjuicios para los demás usuarios de las vías públicas.

En todo caso, el titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que se deriven de la circulación excepcionalmente autorizada.

#### Artículo 67.

En las autorizaciones mencionadas en el artículo anterior, deberá de constar:

- Tiempo de validez de la autorización.
- Recorrido explícito que deberá de efectuar el vehículo.
- Medidas de seguridad que deberá de adoptar.
- Horario en el que deberá de circular, realizar maniobras o estacionar.
- Todas aquellas indicaciones que sean necesarias para garantizar la seguridad de la vía pública.



## XII. TITULUA

LEGE-HAUSTE ETA SANTZIOEZ, KAUTELAZKO  
NEURRIEZ ETA ERANTZUKIZUNAZ

## I. KAPITULUA. LEGE-HAUSTEEZ

## 68. artikulua.

1. Ordenantza honen aurkako ekintzak eta omisioak administrazio mailako lege hausteen izaerakoak izango dira eta Udalak indarrean dagoen legeriaren arabera zehaztuko dituen kasuetan, moduan eta neurrian zigortuko dira, ez badira lege penaletan zehazturiko delituak edo hutsak. Kasu honetan Administrazioak epaitegi eskudunaren esku utziko du auzia eta uko egingo dio santziorako jardunbideari jarraipena emateari epaileak epairik ematen ez duen bitartean.

Zigortuko dira, halaber, 1934ko irailaren 25eko Dekretuaren bidez onarturiko Zirkulazio Kodea, Trafiko, Ibilgailu Motordunen Zirkulazio eta Bide Segurtasunerako Oinarriak arautzen dituen 1989ko uztailaren 25eko 18/1989 Legea, Zirkulaziorako Araudi Nagusia onartu zuen 2003ko azaroaren 21eko 1.428/2003 Errege Dekretua, eta trafikoaren alorrean indarrean dauden gainerako arauak hautsi dituzten ekintzak eta omisioak, hiri bideetan egin badira eta legeak zigortzeko ahalmena beste Administrazio bati aitortu ez badio. Kasu honetan, Administrazio eskudunaren esku utziko dira eginiko dilijentziak.

2. Aurreko zenbakiak aipagai dituen lege-hausteak hiru motakoak dira: Arinak, larriak eta oso larriak.

3. Lege-hauste arinak izango dira Ordenantza honen eta trafiko alorreko gainerako arauen aurkako lege-hauste guztiak, baldin eta hurrengo zenbakietan ez badira larritzat edo oso larritzat hartzen.

4. Honako portaera hauek hartzen dira lege-hauste larritzat:

- Arduragabe eta ausarkeriaz gidatzea.
- Abiadura mugak haustea.
- Igarobiderako lehentasuna ez errespetatzea.
- Aginduzkoaren aurkako norabidean zirkulatzea.
- Ibilgailua leku arriskutsuetan edo trafikoa biziki eragozten duen guneetan gelditzea edo aparkatzea.
- Bide publikoan obrak egitea eta seinaleztatzea.
- Inoizko edo betiko seinaleak erretiratzea edo hondatzea.
- Ibilgailuen arteko lehiaketak edo lasterketak.
- Trafikoaren alorreko gainerako arauetan larritzat harturiko lege-hauste guztiak.

5. Oso larritzat hartuko dira aurreko zenbakiak aipagai dituen lege-hausteak, haietara arrisku bizirako aukera handiak biltzen badira: Zirkulazio trinkoa, bidearen ezaugarriak eta baldintzak, eguraldi eta ikusmen baldintzak, ibilgailuak eta beste erabiltzaileak aldi eta eremu berean egotea, edo lege-hauste larria egin den unean are larriago bihur lezakeen beste edozein arrisku zehatzen presentzia.

## TITULO XII

DE LAS INFRACCIONES Y SANCIONES, DE LAS  
MEDIDAS CAUTELARES Y DE LA RESPONSABILIDAD.

## CAPITULO I. DE LAS INFRACCIONES

## Artículo 68

1. Las acciones y omisiones contrarias a esta Ordenanza tendrán el carácter de infracciones administrativas y serán sancionadas en los casos, forma y medida que el Ayuntamiento determine en concordancia con la legislación vigente, a no ser que puedan constituir delitos o faltas tipificadas en las leyes penales, en cuyo caso la Administración pasará el tanto de culpa al orden jurisdiccional competente y se abstendrá de seguir el procedimiento sancionador mientras la Autoridad Judicial no dicte sentencia firme.

Serán asimismo sancionadas las demás infracciones de lo dispuesto en el Código de Circulación aprobado por Decreto de 25 de setiembre de 1934, la Ley 18/1989 de 25 de julio, de Bases sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, el Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, el Reglamento General de Circulación, aprobado por Real Decreto 1.428/2003, de 21 de noviembre, y otras normas de tráfico en vigor, que se cometan en las vías urbanas, salvo que la ley atribuya la competencia sancionadora a otra Administración, en cuyo caso se procederá a darle traslado de las actuaciones.

2. Las infracciones a que hace referencia el número anterior se clasifican en leves, graves y muy graves.

3. Tendrán la consideración de infracciones leves las cometidas contra las normas contenidas en esta Ordenanza y en las demás normas de tráfico que no se califiquen expresamente como graves o muy graves en los números siguientes.

4. Se consideran infracciones graves, las conductas referidas a:

- Conducción negligente o temeraria.
- Limitaciones de velocidad.
- Prioridad de paso.
- Circulación en sentido contrario al preceptivo.
- Paradas y estacionamientos en lugares peligrosos o que obstaculicen gravemente el tráfico.
- Realización y señalización de obras en la vía pública.
- Retirada o deterioro de la señalización permanente u ocasional.
- Competiciones o carreras entre vehículos.
- Las consideradas como graves en las demás normas de tráfico.

5. Tendrán la consideración de muy graves las infracciones a que hace referencia el número anterior, cuando concurren circunstancias de peligro por razón de la intensidad de circulación, las características y condiciones de la vía, las condiciones atmosféricas o de visibilidad, la concurrencia simultánea de vehículos y otros usuarios, o cualquier otra circunstancia análoga que pueda constituir un riesgo añadido y concreto al previsto para las graves en el momento de cometerse la infracción.

## II. KAPITULUA. SANTZIOEZ

*69. artikulua.*

1. Lege-hauste arinak 90 euro bitarteko isunez zigortuko dira, larriak 300 euro bitarteko isunez eta oso larriak 600 euro bitarteko isunez.

Lege-hauste larri edo oso larrien kasuan, Udalak Administrazio eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du gidatzeko baimena edo lizentzia kentzeko aukera.

2. Lege-haustearen larritasunaren eta garrantziaren, lege-hauslearen aurreko portaeraren eta sorturiko edo sor litekeen arriskuaren arabera mailakatuko dira zigorrak.

3. Indarrean dagoen legeriak xedaturikoari jarraiki, trafikoaren alorreko prestakuntza eta birziklatze ikastaroak egin ahal izango dira Ordenantza honek aurreikusiriko zigorren ordainetan.

4. Lege-hauslearen ohiko bizilekua Espainiako lurretan ez bada, udaltzain salatzaileak isunaren behin-behineko zenbatekoa zehaztuko du, eta, dagokion dirua ordaintzen ez bada edo haren ordainketa zuzenbideak onarturiko beste bitarteko baten bidez bermatzen ez bada, lotu egingo du ibilgailua. Nolanahi ere, gogoan edukiko da 72. artikulua %20ko murrizteari buruz aurreikusitakoa.

## III. KAPITULUA. ERANTZUKIZUNAZ

*70. artikulua.*

1. Lege-haustea ekarri duen ekintzaren egilea izango da Ordenantza honen eta, oro har, trafiko alorreko arauen haustearen erantzulea.

2. Horretaz galdetu ondoren, lege-haustea egin duen gidaria identifikatu behar du ibilgailuaren titularrak eta obligazio hori arrazoirik gabe betetzen ez badu, huts larri baten egileei bezala zigortuko zaio diru isun batez.

3. Erakunde eta zerbitzu publikoetako gidariek une oro begiratu dute Ordenantza honek xedaturiko guztien betetze zehatza eta egingo dituzketen lege-hausteen erantzule izango dira.

Erakunde eta zerbitzu publikoetako ibilgailu baten aurka salaketa bat jartzen bada, santziorako espedientea bideratzeaz gainera, haren berri emango zaio ibilgailuaren departamentuko buruari.

## XIII. TITULUA

## SANTZIO JARDUNBIDEA

## I. KAPITULUA. ADMINISTRAZIO JARDUNBIDEAZ

*71. artikulua.*

Indarrean dagoen legeriak zehazten duena izango da ibilgailuen trafiko eta zirkulazioaren alorrean santzioak ezartzeko bideratu beharreko administrazio jardunbidea. Alkateak, edo, egoki balitz, deskontzentraturiko organoak, Ordenantza honetako 75. artikuluan zehazten denak, jardunbiderako gidaliburu bat eta bidezkatat jo, aldatu edo baliogabetuko dituen arauzko dokumentu osagarriak onartu ahal izango ditu. Horrenbestez, trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren alorreko santzio espedienteak gidaliburu horretan xedaturikoaren arabera bideratuko dira.

## CAPITULO II. DE LAS SANCIONES

*Artículo 69.*

1. Las infracciones leves serán sancionadas con multas de hasta 90 euros, las graves con multa de hasta 300 euros y las muy graves con multas de hasta 600 euros.

En caso de infracciones graves o muy graves el Ayuntamiento podrá elevar a la Administración competente propuesta de sanción de suspensión del permiso o licencia de conducir.

2. Las sanciones se graduarán en atención a la gravedad y trascendencia del hecho, a los antecedentes del infractor y al peligro potencial creado.

3. Las sanciones previstas en la presente Ordenanza podrán ser sustituidas por medidas de formación y reciclaje en materia de tráfico, de acuerdo con lo que disponga la legislación vigente.

4. Cuando el infractor no acredite su residencia habitual en territorio español, el Agente denunciante fijará provisionalmente la cuantía de la multa, y de no depositarse su importe o garantizarse su pago por cualquier medio admitido en derecho, inmovilizará el vehículo. En todo caso, se tendrá en cuenta lo previsto en el artículo 72 respecto a la reducción del 20 por 100.

## CAPITULO III. DE LA RESPONSABILIDAD

*Artículo 70.*

1. La responsabilidad por las infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza y a las normas de tráfico recaerá directamente en el autor del hecho en que consiste la infracción.

2. El titular del vehículo, debidamente requerido para ello, tiene el deber de identificar al conductor responsable de la infracción y si incumpliese esta obligación en el trámite procedimental oportuno sin causa justificada, será sancionado pecuniariamente como autor de falta grave.

3. Los conductores de organismos y servicios públicos, vigilarán en todo momento por el exacto cumplimiento de lo que dispone esta Ordenanza, siendo responsables de las infracciones que cometan.

En caso de denuncia de un vehículo de un organismo o servicio público, sin perjuicio de la tramitación del oportuno expediente sancionador, se dará cuenta del hecho al Jefe del Departamento al cual pertenezca el vehículo.

## TITULO XIII

## PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

## CAPITULO I. DEL PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO

*Artículo 71.*

El procedimiento administrativo para la imposición de las correspondientes sanciones en materia de tráfico y circulación de vehículos será el establecido en la legislación vigente. El Alcalde o en su caso, el órgano desconcentrado, especificado en el artículo 75 de esta Ordenanza, podrá aprobar un manual de procedimiento y los documentos normalizados de carácter complementario que considere oportunos, modificarlos o derogarlos, de modo que la tramitación de los expedientes sancionadores en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial deberá acomodarse a lo dispuesto en el citado manual.

*72. artikulua. Isunak ordaintzea.*

1. Lege-haustea gidatzeko baimena edo lizentziaren kentzea ez badakar, dagokion isun zigorra salaketa jakinarazi ondoko hogeita hamar egun naturalen barneko epean ordaindu ahal izango da %30ko deskontuaz. Murrizpen hau isunaren behin-behineko kopuruaren %90koa izango da, baldin eta isun zigorra lege-haustea egin ondoko hiru lanegunen epearen barnean ordaintzen bada (beti ere lege-haustea arina izan bada).

Aipatutako murrizpenekin aurretiaz ordaintzeak alegazioak aurkezteari uko egitea eta prozedura ebazpen espresurik gabe bukatzea dakar berarekin, dagozkion errekursoak jartzeko aukeraren kaltetan izan gabe.

2. Zigor espedientearen ebazpenaren jakinarazpenetik hilabeteko epean ordaindu ahal izango da isuna bere %100ean.

3. Isuna aurreko atalean zehazturiko epean ordaintzen ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion erreargua erantsi ondoren.

*73. artikulua. Premiamendu bidezko kobrantza.*

Diru bilketa exekutiboaren alorrean indarrean dauden legeen arabera bideratuko da trafikoaren alorreko legeak haustegatik ezarritako isunen premiamendu bidezko kobrantza.

*74. artikulua. Isunen preskripzioa.*

1. Lege-haustea arinetan zigortzeko jarduera hiru hilabetera amaitzen da, larrietan sei hilabetera eta oso larria izan bada urte betera, ekintzak egin diren egunetik hasita. Preskripzioa honako kasu hauetan eteten da: Administrazioaren ezein jardueren berri izatean salatuak; Administrazioak salatuaren nortasuna edo helbidea ezagutzeko eginiko ezein jardueragatik; edo indarrean dagoen legeriaren arabera, salatuari eginiko ezein jakinarazpenengatik.

2. Berretsi eta urtebeteko epean irauten dute zigorrek indarrean.

3. Administrazioak isunen exekuzioari begira eginiko jarduerak, baldin eta isunduari jakinarazi bazaizkio, eten egiten dute preskripzioa.

## II. KAPITULUA. AHALMENEZ

*75. artikulua.*

Alkatearen ahalmena da Ordenantza honek aipagai dituen santzio bideei ekitea eta haien gaineko erabakiak hartzea. Alkateak deskontzentrazioz izendaturiko ordezkio organo baten esku gera litezke ahalmen hauek.

*76. artikulua.*

Alkateak edo, egoki balitz, organo deskontzentratuak trafiko gaietan arruntenak diren arau-hausteen sorta bat erabaki dezake, hala nola horiei dagozkien zehapenak. Esandakoak, hala ere, ez ditu kaltetuko gertatu diren zirkunstantzien arabera ezar daitezkeen zehapenak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarririk gabe dago osoko bilkuran onetsi zen ibilgailuak lotzeko, bidetik kentzeko eta zaintzeko zerbitzua arautzen duen Ordenantza, 1994ko trafikoko arauhauste eta isunen udal ordenantza arautzailea. Hein berean indargabetzen dira maila bereko edo gutxiagoko xedapenak, baldin eta Ordenantza honek xedatzen duenaren kontra badaude.

*Artículo 72. Pago de la multa.*

1. Las sanciones de multa, cuando no se trate de una infracción que pueda originar la suspensión del permiso o licencia de conducir (exclusivamente aquellas de carácter leve), podrán hacerse efectivas con una reducción del 30% siempre que dicho pago se efectúe durante los 30 días naturales siguientes al de la notificación de la denuncia. Esta reducción será de un 90 por 100 sobre la cuantía que se fije provisionalmente siempre que la sanción se haga efectiva en los tres días hábiles siguientes desde el día en que se produjo la infracción.

El abono anticipado con las reducciones anteriormente señaladas, implicará únicamente la renuncia a formular alegaciones y la terminación del procedimiento sin necesidad de dictar resolución expresa, sin perjuicio de la posibilidad de interponer los recursos correspondientes.

2. Desde el undécimo día siguiente a la notificación de la denuncia y hasta quince días hábiles después de que la sanción adquiera firmeza, se podrá pagar la multa en su importe nominal.

3. Vencido el plazo de ingreso establecido en el apartado anterior sin que se hubiese satisfecho la multa, su exacción se llevará a cabo por el procedimiento de apremio, aplicándose los recargos correspondientes.

*Artículo 73. Recaudación en vía de apremio.*

La recaudación en vía de apremio de las multas por infracciones en materia de tráfico se ajustará a lo dispuesto en las normas vigentes en materia de recaudación ejecutiva.

*Artículo 74. Prescripción de la multa.*

1. La acción para sancionar las infracciones leves prescribe a los tres meses, las infracciones graves 6 meses y un año las infracciones graves, contados a partir del día en que los hechos se hubiesen cometido. La prescripción se interrumpe por cualquier actuación de la Administración de la que tenga conocimiento el denunciado o esté encaminada a averiguar su identidad o domicilio y se practiquen con proyección externa a la dependencia en que se origine. También se interrumpe la prescripción por la notificación efectuada de acuerdo con la legislación vigente.

2. Las sanciones una vez que adquieren firmeza, prescriben al año.

3. La prescripción se aplicará de oficio por los órganos competentes en las diversas fases de tramitación del expediente.

## CAPITULO II. DE LAS COMPETENCIAS

*Artículo 75.*

Las competencias para la iniciación y resolución de los procedimientos sancionadores objeto de esta Ordenanza corresponden al Alcalde. Podrán ser ejercidas, en su caso, por desconcentración por los órganos que este determine.

*Artículo 76.*

El Alcalde, o en su caso, el órgano desconcentrado podrá aprobar un cuadro de infracciones más comunes en materia de tráfico y de sanciones aplicables, sin perjuicio de la modulación a que éstas puedan someterse en razón de las circunstancias concurrentes.

## DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogada la Ordenanza reguladora de la prestación del servicio de inmovilización, retirada de vehículos, y subsiguiente custodia, la Ordenanza municipal General de 1994, reguladora de las sanciones e infracciones en materia de tráfico, así como todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en la presente Ordenanza.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN agertu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

## DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente a la publicación de su aprobación definitiva en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

## ERANSKINA / ANEXO

TRAFIKO ARAUHAUSTE ZERRENDA ETA BERE ISUNAK  
RELACION DE INFRACCIONES DE TRAFICO Y SUS CORRESPONDIENTES SANCIONES

| ARAU OROKORRAK<br>NORMAS GENERALES |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|------------------------------------|--|------------------------|
| D,2                                | -Zirkulazioa oztopatzea edo eragozpenak sortzea<br>-Entorpecer la circulación, crear molestias innecesarias  | 90/120                 |
| D,3                                | -Axolakabe edo ausartegi gidatzea<br>-Conducir de manera negligente o temeraria  | 120/300                |
| D,4                                | -Gauzak (edo gaiak) galtzadara botatzea edo galtzadan ezartzea (zirkulazioa) ostopatuz<br>-Arrojar o depositar objetos en la calzada, entorpeciendo. | 30                     |
| D,5                                | -Edozein oztopo edo arrisku behar bezala ez seinaleztatzea<br>-No señalizar obstáculo o peligro debidamente.   | 30                     |
| D,6                                | -Sutea eragin dezaketen gaiak bidera botatzea.<br>-Arrojar a la vía sustancias incendiarias  | 100                    |
| D,7.1                              | -Igorpen kaltegarriak edo gai kutsagarriak jaulkitzea.<br>-Emitir perturbaciones nocivas o productos contaminantes.                                  | 60                     |
| D,7.2                              | -Ke-hodirik gabe edo zarata-motelgailurik gabe ibiltzea.<br>-Circular con escape libre, sin silenciador.   | 30                     |
| D,7.3                              | -Arazko mugen gainetik keak jaulkitzea.<br>-Emitir humos del escape por encima de la limitación.   | 30                     |
| D,7.4                              | -Zaborra edo hondakinak bide-ingurura botatzea.<br>-Verter basura o residuos en las orillas de las vías de circulación                               | 30                     |

| IBILGAILUAK ZAMATZEA, SALGAI ETA GIZAKIAK GARRAIATZEA<br>CARGA Y MERCANCÍA DE VEHÍCULOS, TRANSPORTE DE PERSONAS |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|--|------------------------|
| D,10.1  | -Hamabi urte arteko adingabeak aurreko eserlekuan garraiatzea.<br>-Circular con menores en asiento delantero                             | 30                     |
| D,10.2  | -Gizakiak leku desegokian garraiatzea.<br>-Circular personas fuera de sitio acondicionado  | 30                     |
| D,11.1  | -Bapatean edo arreta gabe ibiliz bidaiariak garraiatzea.<br>-Conducción brusca o distraída en transporte de viajeros.                    | 60                     |
| D,12.1  | -Motor-bizikletan lagun bat baino gehiago ibiltzea.<br>-Circular mas de una persona en ciclomotor.                                       | 30                     |
| D,12.2  | -Gidari eta eskulekuaren artean bidaiari bat garraiatzea.<br>-Circular con viajero intermedio entre conductor y manillar.                | 60                     |
| D,13.1  | -Ibilgailuak baimendutakoak baino neurri edo zama haundiagoak izatea<br>-Circular sin autorización de dimensiones o carga superior       | 150                    |
| D,13.2  | -Neurri edo zama haunditarako baimena izan gabe ibiltzea<br>-Circular sin autorización de dimensiones o carga superior                   | 300                    |
| D,14.1  | -Zama behar bezala ez estaltzea, erortzeko arriskua sortuz.<br>-Carga desequilibrada o inestable, con molestia o peligro.                | 90                     |
| D,14.2  | -Zama behar bezala ez estaltzea,<br>-No cubrir carga con riesgo de caída.  | 90                     |
| D,15.2  | -Zama egokitu eta atondo gabe ibilgailutik irtetzea.<br>-Carga que sobresale del vehículo sin acondicionar ni estibar                    | 90                     |
| D,16.A  | -Zamalanetarako gaitutako guneak ez errespetatzea.<br>-No respetar zonas habilitadas para carga-descarga                                 | 90                     |
| D,16.B  | -Zamalanetarako gaitutako guneak ez errespetatzea.<br>-No realizar carga-descarga por el lado más próximo a la acera                     | 30                     |
| D,16.C  | -Salgaiak galtzadan uztea, geratzea eta aparkatzea eragotzea.<br>-Depositare mercancías en la calzada, impedir paradas y estacionamiento | 30                     |



| GIDARIANTZAKO ARAU OROKORRAK<br>NORMAS GENERALES DE LOS CONDUCTORES |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|--|------------------------|
| D,17.1  | -Ibilgailua kontrol eta arreta gabe gidatzea.<br>-Conducir sin control del vehículo ni precaución                                    | 90                     |
| D,17.2  | -Abereak inork zaindu gabe ibiltzen uztea.<br>-Ganado suelto o descontrolado, sin guía humano.                                       | 60                     |
| D,18.1  | -Ikusbide gardenia edo mugimendu-askatasunik izan gabe gidatzea.<br>-Conducir sin visibilidad o falta de movimiento.                 | 90                     |
| D,18.2  | -Aurikularrak jarrita gidatzea<br>-Conducir con auriculares conectado a sonido.  | 200                    |
| D,19.1  | -Ibilgailuaren kristalak garbirik ez izatea edo itsasgaiak izatea.<br>-Superficie acristalada de vehículo no limpia o con adhesivos. | 30                     |
| D,19.2  | -Baliokidetu gabeko kristal tindatuak edo koloreztatuak izatea.<br>-Vidrios tintados o coloreados sin homologar                      | 30                     |

| ALKOHOLEMIA, SORGORGARRIAK ETA PSIKOTROPIKOAK<br>ALCOHOLEMIA, ESTUPEFACIENTES Y PSICOTROPICOS |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|--|------------------------|
| D,20  | -Baimendutakoa baino alkohol-tasa haundiagoa izanda gidatzen<br>-Conducir con tasa de alcohol superior a la permitida Según tasa   | 360-600                |
| D,21  | -Alkoholemia-neurketa egiteari uko egitea. Bidezainak eskatuz gero<br>-Negarse a pasar prueba de alcoholemia, requerido por Agente | 600                    |
| D,25  | -Alkoholemiagatik ibilgailua gelditzea.<br>-Inmovilización de vehículo por causa de alcoholemia                                    | 60                     |
| D,27  | -Droga toxikoen edo sorgorgarren eraginpean gidatzea<br>-Conducir bajo influencia de drogas tóxicas o estupefacientes              | 360-600                |

| BIDEKO KOKAPENA<br>LUGAR EN LA VIA |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|------------------------------------|---|------------------------|
| D,29                               | -Eskuinaldetik ez ibiltzea, kontrako noranzkorako galtzadan sartuz<br>-No circular por la derecha, invadiendo calzada contraria.        | 350                    |
| D,30                               | -(Automobila) premiazko zergati edo arrazoirik izan gabe bazterbidetik ibiltzea.<br>-Circular por arcén sin causa o razón de emergencia | 60                     |
| D,37                               | -Arauz agindutakoaz bestelako bidegunetik ibiltzea<br>-Circular fuera del tramo distinto al ordenado por la autoridad competente        | 150                    |
| D,39                               | -Ibilgailu astunak berariaz debekatutako bidegunetik ibiltzea<br>-Circular vehículos pesados por lugar prohibido expresamente           | 90                     |
| D,43                               | -Marragune-babesgunea ezkerrean uzteko behatze-seinalea ez errespetatzea<br>-Obligatorio dejar isleta-refugio ala izquierda             | 350                    |

| ABIADURA<br>VELOCIDAD |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|-----------------------|---|------------------------|
| D,46                  | -Abiadura ez jeistea, arrisku edo eragozpenik sortuz<br>-No moderar la velocidad ante peligro u obstáculo     | 120                    |
| D,47                  | -Ezarritako abiadura-mugak ez errespetatzea<br>-No respetar limitaciones de velocidad establecidas            | 150                    |
| D,49                  | -Arrazoirik gabe astiroegi ibiltzea<br>-Circular a velocidad lenta sin motivo                                 | 120                    |
| D,53                  | -Abiadura bapatean jeistea, arriskua sortuz<br>-Reducir la velocidad de manera brusca, con riesgo             | 120                    |
| D,54                  | -Ibilgailuen arteko segurtasun-tartea ez errespetatzea<br>-No respetar distancia de seguridad entre vehículos | 150                    |
| D,55.2                | -Herri-bidean lasterketak egitea<br>-Entablar competencia de velocidad en vía pública                         | 500                    |

| BIDE-LEHENTASUNA<br>PRIORIDAD DE PASO |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---------------------------------------|--|------------------------|
| D,56.1                                | -Bidegurutzean bide-lehentasuneko seinalea ez errespetatzea<br>-No respetar prioridad señalizada en cruce  | 200                    |
| D,56.2                                | -Bidezainak geratzeko emandako agindua ez errespetatzea<br>-No respetar indicaciones de ALTO del Agente  | 300                    |
| D,56.3                                | -Argi gorria ez errespetatzea<br>- No respetar detención por semáforo en rojo  | 200                    |
| D,56.5                                | -STOP seinalean ez geratzea, "pasatzen utzi"<br>-No detenerse en STOP, no realizar "ceda el paso"  | 200                    |
| D,57.1                                | -Seinalerik gabeko bidegurutzean eskuinaldetik dabilen ibilgailuari pasatzen ez uztea<br>-No ceder paso en cruce a vehículos por la derecha, sin señal | 150                    |
| D,57.a                                | -Bide zolatutik dabilen ibilgailuari pasatzen ez uztea, zolatu gabeko irteera<br>-No ceder paso a vehículos por vía asfaltada, salida sin pavimento    | 150                    |
| D,57.c                                | -Biribilgunean sartzea, biribilgunean dabilen ibilgailuari pasatzen utzi gabe<br>-Acceder a glorieta sin ceder paso a vehículo en la rotonda           | 200                    |
| D,58.1                                | -Lehentasuneko ibilgailua bapateko maniobra egitera behartzea<br>-Obligar a maniobra brusca a vehículo con prioridad                                   | 200/300                |
| D,59.1                                | -Bidegurutzean ibilgailua geldiaraztea lehentasuna ostopatuz<br>-Detenerse en cruce obstaculizando prioridad   | 150                    |
| D,60.3                                | -Estugunean larrialdi-zerbitzuko ibilgailua igarotzen ez uztea<br>-No permitir paso a vehículo urgente, en tramo de dificultad                         | 300                    |
| D,60.5                                | -Lan-gunean aginduak edo seinaleak ez errespetatzea<br>-No respetar indicaciones en zona de obras  | 150                    |
| D,61.2                                | -Estugunean lehentasuna ez errespetatzea<br>-No respetar prioridad en zona de paso con dificultad  | 200                    |
| D,65.1                                | -Oinezkoentzako alderdian oinezkoak ez errespetatzea<br>-No respetar a peatones en zona a ellos destinada  | 200                    |
| D,69                                  | -Lehentasuneko edo larrialdi-zerbitzuko ibilgailuari bide-lehentasuna ez ematea<br>-No respetar preferencia a vehículo prioritario, urgencias          | 150                    |
| D,70.1                                | -Egokitu gabeko ibilgailuak larrialdi-zerbitzuko ibilgailuarena egitea, faltsukeriaz<br>-Simular urgencia, vehículo no adaptado, con falsedad          | 300                    |
| D,71                                  | -Ibilgailuak lehentasun-ezaugarria ez izatea horretara behartuta egonik<br>-Carecer de señal prioritaria vehículo obligado a ella                      | 150                    |

| ZIRKULAZIOAN SARTzea<br>INCORPORACIÓN A LA CIRCULACIÓN |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|--|--|------------------------|
| D,72.1   | -Seinalerik egin gabe zirkulazioan sartzea arriskua sortuz<br>-Incorporarse a la circulación con peligro y sin señalizar   | 150                    |
| D,72.3   | -Beste bide batean sartzeko maniobra seinalerik egin gabe egitea<br>-No señalizar maniobra de entrada a otra vía           | 150                    |
| D,73.2   | -Herri-ibilgailuak irtetzen ez laguntzea<br>-No facilitar maniobra de salida a vehículos públicos                          | 60                     |
| D,73.3   | -Herri-ibilgailuak irtetzeko maniobra seinalerik egin gabe egitea.<br>-No señalizar maniobra de salida, vehículos públicos | 60                     |

| NORABIDE ETA NORANZKOA ALDATZEA, ATZERAKA IBILTZEA<br>CAMBIOS DE DIRECCIÓN Y SENTIDO, MARCHA ATRÁS |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|--|---|------------------------|
| D,74.1   | -Bide edo erreiz aldatzeko maniobra ez ikusaraztea<br>-No avisar maniobra de cambio de vía o carril                                 | 150                    |
| D,74.2   | -Bide edo erreiz aldatzea seinalerik egin gabe arriskua sortuz<br>-No señalizar cambio de vía o carril, con peligro                 | 200                    |
| D,78.1   | -Noranzkoa aldatzea arretaz egin gabe eta ikusarazi gabe<br>-Cambio de sentido sin precaución ni aviso                              | 200                    |
| D,79.1   | -Debekatutako lekuan noranzkoa aldatzea, gaitutako gunetik kanpo<br>-Cambio de sentido en lugar prohibido, fuera de zona habilitada | 200                    |
| D,80.2   | -15 metro baino gehiago behar ez bezala atzeraka ibiltzea<br>-Circular en marcha atrás incorrectamente, más de 15 metros            | 100                    |
| D,81.2   | -Atzerako maniobra behar bezalako seinalerik egin gabe egitea<br>-No señalizar debidamente maniobra de marcha atrás                 | 100                    |
| D,81.3   | -Atzerako maniobra arreata gabe egitea arriskua sortuz<br>-Maniobra de marcha atrás con peligro, sin precaución                     | 150                    |

| AURRERATZEA<br>ADELANTAMIENTO |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|-------------------------------|--|------------------------|
| D,82.3                        | -Eskuinetik aurreratzea, arriskua sortuz<br>-Adelantar por la derecha, con peligro   | 200                    |
| D,84.1                        | -Aurreratze-maniobra seinalerik egin gabe egitea<br>-Maniobra de adelantamiento sin señalizar                                      | 120                    |
| D,86.1                        | -Aurreratutako ibilgailuak aurreratze-maniobra oztopatzea, arriskua sortuz<br>-Vehículo adelantado dificulta maniobra, con peligro | 150                    |
| D,87.1                        | -Arauz debekatutako gune arriskutsuan aurreratzea<br>-Adelantar en zona de riesgo, prohibida pro norma                             | 200                    |
| D,87.3                        | -Seinalez debekatutako lekuan aurreratzea<br>-Adelantar en lugar prohibido por señal   | 150                    |
| D,89                          | -Bidean arreta gabe oztopoa gainditzea<br>-Rebasar obstáculo en la vía sin precaución  | 150                    |

| GERATZEA ETA APARKATZEA<br>PARADA Y ESTACIONAMIENTO |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|---|------------------------|
| D,90  | -Aparkatzeari buruzko udal-ordenantza ez errespetatzea<br>-No respetar Ordenanza Municipal, sobre estacionamiento                                   | 30                     |
| D,90.1  | -Geratzea edo aparkatzea zirkulazioa oztopatuz<br>-Parada o estacionamiento obstaculizando la circulación   | 200                    |
| D,91.b  | -Behar bezala aparkatutako ibilgailua irtetzen eragoztea<br>-Impedir salida de vehículo correctamente estacionado                                   | 60                     |
| D,91.c  | -Etxeko sarbidea edo irtenbidea eragoztea<br>-Impedir salida-entrada de inmueble con vado.  | 90                     |
| D,91.e  | -Kale-arte edo bidegurutzean jira egokia eragoztea<br>-Impedir giro correcto de intersecciones o cruces   | 90                     |
| D,91.g  | -Zamalanetarako gunean zamalanak eragoztea<br>-Impedir labores de carga-descarga en lugar destinado a ello  | 60                     |
| D,91.h  | -Bigarren iladan aparkatzea eta gidariak alde egitea<br>-Estaciones en doble fila, vehículo sin conductor   | 60                     |
| D,91.i  | -Gizakientzako herri-garraiorako gordetako alderdia betetzea<br>-Ocupar lugar destinado a transporte público de viajeros                            | 30                     |
| D,91.k  | -Seinalez debekatutako alderdian aparkatzea.<br>-Estacionar en lugar prohibido por señal  | 30                     |
| D,91.l  | -Galtzada-erdian edo ertzetik kanpo ibilgailua geldiaraztea<br>-Detenerse en el centro de la calzada o desorillado                                  | 200                    |
| D,91.m  | -Zehaztutako gune arriskutsuan edo lan-gunean aparkatzea.<br>-Estacionar en zona de peligro u obras, delimitada                                     | 150                    |
| D,93.1  | -Espaloian edo oinezkoentzako alderdian sartzea arriskua sortuz<br>-Invadir aceras o zonas peatonales, con riesgo                                   | 200                    |
| D,94.a  | -Bihurgunean edo ikusbide txarreko lekuan aparkatzea<br>-Estacionar en curva o lugar de escasa visibilidad  | 200                    |
| D,94.b  | -Oinezkoentzako pasabidean edo gordetako guneetan aparkatzea (espaloia)<br>-Estacionar en paso peatonal o zonas reservadas (acera)                  | 60                     |
| D,94.d  | -Bihurgunean edo kale-arteetan geratzea edo aparkatzea<br>-Parar o estacionar en curva o intersección   | 150                    |
| D,94.f  | -Bide-seinaleak ikustea eragoztea, arauz kontrako maniobrak egitera behartzea<br>-Impedir visión de señales, obligar a maniobras antirreglamentaria | 120/200                |

| ARGIEN ERABILPENA<br>UTILIZACIÓN DE ALUMBRADO |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|---|------------------------|
| D,98.1  | -Gauetz edo zubian arauzko argirik gabe ibiltzea<br>-Circular sin alumbrado en hora nocturna o túnel                      | 120                    |
| D,100   | -Arauz ez bezala argi luzeak erabiltzea<br>-Utilizar luz larga con finalidad distinta al Reglamento                       | 60                     |
| D,102   | -Bidearen beste erabiltzaileak itsutzea, arriskua sortuz<br>-Causar deslumbramiento a otro usuario, con peligro           | 150                    |
| D, 104  | -Motorrak edo motor-bizikletak argiak etengabe piztuta ez eramatea.<br>-Motocicleta o ciclomotor sin alumbrado permanente | 30                     |
| D,105   | -Ibilgailua errepidean geldiaraztea argi txikiak piztu gabe<br>-Vehículo detenido en carretera sin luces de posición      | 150                    |
| D,106   | -Ikusbide txarra izanik argirik gabe ibiltzea<br>-Circular sin alumbrado en situación de poca visibilidad                 | 120                    |

| GIDARIEK IKUSARAZI BEHARREKOAK<br>ADVERTENCIAS DE LOS CONDUCTORES |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|--|------------------------|
| D,108   | -Maniobra behar bezala ez ikusaraztea<br>-No avisar debidamente de próxima maniobra a efectuar   | 30                     |
| D,109   | -Zeharretara mugitzea, atzeraka ibiltzea edo frenatzea seinalerik egin gabe.<br>-No indicar desplazamiento lateral, marcha atrás, frenada. | 30                     |
| D,110   | -Hots-seinaleak gehiegikeriaz edo beharrik gabe erabiltzea.<br>-Utilizar señales acústicas de forma exagerada o sin motivo                 | DIA: 30<br>NOCHE: 90   |

| ATEAK ETA MOTORRA ITZALTZEA<br>PUERTAS Y APAGADO DE MOTOR |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|--|------------------------|
| D,114   | -Ibilgailuaren atek irekita eramatea edo ibili dabidela atek irekitzea.<br>-Llevar puertas abiertas o abrirlas en marcha | 60                     |

| GERRIKOA, KASKOA ETA SEGURTASUN-OSAGAIK<br>CINTURÓN, CASCO Y ELEMENTOS DE SEGURIDAD |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|---|------------------------|
| D,117   | -Segurtasun-gerrikoa errepidean eta herri barruan ez erabiltzea.<br>-No utilizar cinturón de seguridad, carretera y casco urbano.   | 60                     |
| D,118   | -Motor-bizikletako edo motorreko gidariak edo bidaiariak derrigorrezko kaskoa jarrita ez eramatea<br>-Conductor o viajero, vehículo ciclomotor o motocicleta, sin casco obligatorio | 60                     |

| OINEZKOAK<br>PEATONES |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|-----------------------|---|------------------------|
| D,121                 | -Oinezkoa oinezkoentzako alderditik kanpo ibiltzea, zirkulaziorako arriskua sortuz<br>-Peaton fuera de zona de reserva, con peligro para la circulación | 60                     |
| D,122                 | -Galtzadan dabilen oinezkoak bidearen beste erabiltzea, zirkulaziorako arriskua sortuz<br>-Peatón en calzada, sin hacer caso de señales de usuarios.    | 60                     |
| D,124                 | -Oinezkoak, berari emandako aginduak edo jarraibideei jaramonik ez egitea<br>-Peatón desobedece Ordenes o indicaciones a él referidas.                  | 90                     |

| ANIMALIEN IBILERA<br>CIRCULACIÓN DE ANIMALES |   | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|--|---|------------------------|
| D,127.1                                      | -Adingabekoak animaliak gidatzea, horretarako gaitasunik izan gabe<br>-Animales guiados por persona menor, carente de dominio | 60                     |
| D,127.2                                      | -Animaliak inork zaindu gabe ibiltzea edozein bide-motatan<br>-Animales sin custodia en cualquier clase de vía                | 90                     |

| LARRIALDIETAKO JOKABIDEA<br>COMPORTAMIENTO EN EMERGENCIAS |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|---|--|------------------------|
| D,129   | -Istripua edo matxura izanez gero kaltetunei ez laguntzea<br>-Omitir auxilio en accidente o avería   | 150/300                |
| D,130   | -Geldiarazitako ibilgailuak edo zamaren zati bat erorita daukan ibilgailuak dagokion seinalea ez egitea, arriskua sortuz<br>-No señalizar y crear peligro, con vehículo inmovilizado o carga desprendida | 90                     |

| SEINALEZTAPEN-ARAU OROKORRAK<br>NORMAS GENERALES DE SEÑALIZACIÓN |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|--|--|------------------------|
| D,131  | -Seinaleei jaramonik ez egitea<br>-No prestar atención, y desobedecer señalización existente                     | 90                     |
| D,132  | -Argi gorriak edo ezaugarri bertikalak ez errespetatzea<br>-No cumplir señales por semáforos o discos verticales | 90                     |

| SEINALE-LEHENTASUNAK<br>PRIORIDAD DE SEÑALES |  | ISUNA (€)<br>MULTA (€) |
|--|--|------------------------|
| D,133  | -Lehentasun-seinaleak ez betetzea (bidezaina, egoera, argi gorria, seinalea ezaugarria)<br>-No cumplir señalización con prioridad (Agente, circunstancia, semáforo, señal, marca). | 90                     |



| <b>b) Lege haustean taula, Zirkulazio-Kodearen arabera (Lege berrian egon ez, baina indarrean dauden atalak)</b> |   | ISUNA (€) |
|--|---|-----------|
| <b>b) Tabla de infracciones, según Código de Circulación (artículos vigentes fuera de nueva Ley).</b>            |   | MULTA (€) |
| C,106  | -Gidatzeko edo ibiltzeko baimena edo I.A.T. txartela izan gabe ibiltzea<br>-Circular sin permiso de conducir o de circulación ó tarjeta ITV                 | 300       |
| C,132  | -Motor-bizikleta gidatzea doazkion agiriak edo gida-baimena izan gabe<br>-Ciclomotor sin documentación o conductor sin permiso                              | 150       |
| C,212  | -Ibilgailuak geldiaraztea edo kentzea trafik-arauak ez betetzeagatik.<br>-Neumáticos del vehículo sin banda de rodadura                                     | 30        |
| C,216  | -Atzerako kanpo-ispilua ez izatea.<br>-Carecer de espejo retrovisor exterior  | 30        |
| C,263  | -Arauzkoa ez den baimena izanda gidatzea<br>-Conducir con permiso o licencia irregular  | 90        |
| C,292  | -Ibilgailuak geldiaraztea edo kentzea trafik-arauak ez betetzeagatik<br>-Inmovilización o retirada de vehículos por incumplimiento de normativas de tráfico | 60/90     |

| <b>c) Beste lege hauste batzuk 339-90 Errege-Dekretuaren azaltzen ez direnak eta aurreko ataletan bereziki jaso ez direnak:</b> |   | ISUNA (€) |
|---|---|-----------|
| <b>c) Otras infracciones que aparecen en el R.D. 339-90 y no contempladas específicamente en los apartados anteriores:</b>      |   | MULTA (€) |
| 58,ED<br>RD,58  | -Bideko seinaleak aldatzea<br>-Alterar o modificar la señalización vial existente   | 90        |
| 59,ED<br>RE,ED  | -Behar diren agiriak izan edo erakutsi gabe gidatzea<br>-Conducir sin la documentación requerida, o no exhibirla              | 90        |
| 61,ED<br>RE,61  | -Ibilgailuaren derrigorrezko eskualdaketa ez izatea<br>-No tener la preceptiva transferencia del vehículo                     | 90        |
| 62,ED<br>RD,62  | -Matrikula-xafla ez izatea edo xafla legezkoa ez izatea<br>-Carecer de placa de matrícula o ser ésta ilegal                   | 200       |
| 71,ED<br>RD,71  | -Ibilgailutik alde egitea, zirkulazioa oztopatuz<br>-Abandonar el vehículo, perturbando la circulación                        | 90        |
| 72,ED<br>RD,72  | -Jabeak ibilgailuaren gidaria ezagutzera ez ematea<br>-Negativa a identificar al conductor del vehículo por parte del titular | 300       |
| 78,ED<br>RD,78  | -Agirietako helbidea eguneratua ez izatea<br>-Carecer de domicilio actualizado en documentos                                  | 90        |

| <b>d) Udal-zehaztapenak, aurretik jaso ez direnak eta Udalbatzaren akordioz onartutakoak, legediak ematen dizkion ahalmenak erabiliz:</b>                                |  | ISUNA (€)       |
|--|--|-----------------|
| <b>d) Especificaciones Municipales, no contempladas anteriormente y adoptadas por acuerdo de la Corporación en virtud de la potestad que le confiere la Legislación:</b> |  | MULTA (€)       |
| 0,1  | -Herri-bidean aparkatzea, 10 egun baino gehiago ibilgailua mugitu gabe (abandonotzat jotzen da)<br>-Vehículo estacionado, ocupando vía pública, sin movimientos durante más de 10 días (presumible abandono).  | 30              |
| 0,2  | -Karabana edo atoaia herri-bidean aparkatzea (baimenik gabe)<br>-Caravana o remolque en la vía pública (ocupación no autorizada)   | 30              |
| 0,3  | -Banaketa-lanak egitea, zirkulazioa oztopatuz<br>-Labores de reparto obstaculizando la circulación   | 60              |
| 0,4  | -Ibilgailua "ZEPOA" erabiliz geldiaraztea, arau-hausteagatik.<br>-Inmovilización de vehículo por "CEPO", debido a infracción   | 60/90           |
| 0,5  | -"GARABIA" k ibilgailua bidetik kentzea (Garabi-zerbitzuaren kostuaz gain arau-hausteagatik doakion isuna ere ordaindu behar da)<br>-Retirada de vehículo por "GRUA" (Se aplicará el costo del servicio de grúa, sancionándose además con lo indicado en la respectiva infracción) | Mirar tasa grúa |
| 0,6  | -Automobila, motor-bizikleten eta abarren gordelekua<br>-Depósito de vehículos, ciclomotores..... etc.   | Mirar tasa grúa |

**LEZOKO UDALA***Akats zuzenketa*

2006ko otsailaren 16an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA argitaratu da Lezoko Estés Etxeko laguntza erreglamenduaren behin betiko onespeneraren iragarkia baino ez da erreglamendua bera argitaratu. Orain argiratzten da 2006ko otsailaren 16ko iragarkia osatzeko.

Lezo, 2006eko otsailaren 16a.—Kepa Garbizu Azkue, Alkatea.

(312)

(1809)

**ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA****ZIOEN AZALPENA**

Bizi itxaropena handitzeak nahiz gure gizartearen adin piramide aldatzek berekin ekarri duten adineko pertsonen hazkunde demografikoa –hazkunde erlatiboa eta garbia–, familia harremanak babes agente gisa izan duten aldaketa edota gizarte zerbitzuen garapena, besteak beste, eragin handia duten faktoreak ditugu bizitza bete bat bermatzeko –baita besteren behar maila handia denean edo gizarte babesa falta denean ere– behar diren zerbitzuak zehazteko orduan.

Adineko pertsonak behin eta berriro adierazi dute ahalik eta denbora gehien egon nahi dutela beren etxean, beren bizialdi guztian izan duten gizarte sare erreferentziazko hori galdu gabe, eta, horrek, jakina, lehenasuna du pertsona horiei beren mendekotasunak aurrera egin ahala eman behar zaizkien zerbitzuak aintzakotzat hartu eta zehazteko garaian. Horrezaz gainera, ordea, badira beste alderdi asko ere (etxe ingurua, jobideak, komunitatean diren laguntza zerbitzuak eta abar) nahitaez kontuan izan behar direnak, besteen beharra duen edo ezintasunen bat duen pertsonak bere bizimodua egiteko dituen aukerak mugatu edo baldintzatzen dituztenak.

Horrela, eguneroko bizimodua samurrago egiteko babes eta laguntza zerbitzu edo elementuak jartzea goiti-beheiti, nahitaezkoa da zerbitzu oso bat izatea, besteen beharra duenari edo ezintasunen bat duenari bere etxean eta komunitatean kasu egiteko zerbitzu nagusi bat, behar mota askotara egokitzeko eta zerbitzu ordu edo zatika ere emateko modukoa eta, era berean, larrialdiei erantzutea bere gain hartzeko eta zerbitzu beharren aldaketei arin erantzuteko gauza izango dena. Alde horretatik, bada, etxeko laguntza oinarriko zerbitzua da sistema horretan.

Hala, zerbitzua jaso behar dutenek dituzten beharren arabera guztiek aukera berberak izatea bermatu behar du administrazio publikoak, eta baita zerbitzua jasotzen dutenek zer ekarpen egin behar duten zehaztu ere, zerbitzua jaso behar dutenek dituzten diru-sarreraren arabera. Era berean, zerbitzuaren eta zerbitzua izateko eskubideen esparru argi bat eskaini behar die herritarrei ere. Araudi hauxe da hori guztia jaso nahi duen dokumentua, zerbitzua zehazten duten puntu argi eta baliagarri batzuk eskaintzen dituen eta zerbitzua jaso behar duenari dituen eskubideak eta betebeharrak ulertzen laguntzen diona.

Nolanahi ere, etxeko laguntza zerbitzuaren araudi honekin ez da agortuko Udalak pertsona kasu egiteko beste zerbitzu batzuk jartzeko biderik, baldin eta beste zerbitzu horiek pertsonak eta haien beharrak doitzeko bide berritzaileak badira, –nahiz metodologiaren alderditik, nahiz finantzabidearen alderditik eta nahiz zerbitzua jasotzen duen pertsonak hornidura modulatzeko orduan parte aktiboa hartzearen alderditik–, eta beti ere dagokion organo aginpidedunaren oniritzia badute.

**AYUNTAMIENTO DE LEZO***Corrección de errores*

El día 16 de febrero de 2006, se ha publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el anuncio de la aprobación definitiva del reglamento de Ayuda Domiciliaria de Lezo, pero no se ha publicado el propio reglamento. Se publica ahora para completar el anuncio del 16 de febrero de 2006.

Lezo, a 16 de febrero de 2006.—El Alcalde, Kepa Garbizu Azkue.

(312)

(1809)

**REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DE AYUDA DOMICILIARIA****EXPOSICION DE MOTIVOS**

El aumento demográfico progresivo de las personas mayores –neto y relativo–, debido al aumento en la esperanza de vida y a la modificación de la pirámide de edad en nuestra sociedad, además del cambio en las relaciones familiares como agente de protección y el desarrollo de los servicios sociales, son algunos de los factores que están impulsando la definición de los servicios necesarios para garantizar una vida plena, aún en niveles graves de dependencia y de falta de apoyo social.

La voluntad reiterada de las personas en permanecer el mayor tiempo posible en su propio domicilio, manteniendo la red social de referencia que ha tenido a lo largo de toda la vida, es algo prioritario en la consideración y determinación de los servicios de apoyo a estas personas en su progresiva dependencia. Pero el entorno domiciliario, sus accesos, los servicios de apoyo en la comunidad, etc. exigen la toma en cuestión de muchos aspectos que condicionan y determinan las posibilidades de la persona dependiente o discapacitada en el ejercicio de su desarrollo vital.

Independientemente de la materialización de otros servicios o elementos de protección y apoyo que faciliten las actividades de la vida diaria, la necesidad de un servicio integral, adaptable a las necesidades más variadas y fraccionable en tiempos, que asume intervenciones de urgencia y puede responder ágilmente a las modificaciones de la necesidad del servicio, es algo insustituible como recurso central de la atención a la dependencia y la discapacidad en el entorno domiciliario y comunitario de quien lo precise. La Ayuda Domiciliaria es, entonces, un servicio básico de este sistema.

La administración pública debe garantizar la igualdad de oportunidades de acceso, en función de los niveles de necesidad, y debe determinar, asimismo, el nivel económico de participación de la persona usuaria en función de sus ingresos. Junto a esto, debe ofrecer a la ciudadanía un marco claro del servicio y de los derechos que le amparan en su provisión. El presente Reglamento es el documento que pretende recoger todo esto, ofreciendo a las personas que quieran ser beneficiarias unos elementos definitivos claros, operativos y que le ayuden a comprender sus derechos y sus obligaciones.

La presente regulación del Servicio de Ayuda Domiciliaria no agota la posibilidad de que desde esta Administración se inicien otros Servicios de Asistencia Personal, que bien metodológicamente, bien en su sistema de financiación o en la participación activa de la persona receptora en la modulación de la provisión, supongan vías innovadoras de ajuste entre las personas y sus necesidades vitales, siempre y cuando estos otros servicios cuenten con el visto bueno del órgano competente correspondiente.

## LEHEN TITULUA

*1. artikulua. Xedea.*

Araudi honen helburua da. Lezoko Udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzea.

*2. artikulua. Aplikazio eremua*

Arautzen den zerbitzua Lezon emango da, udalak gizarte zerbitzuetan dituen eskumenen eta adineko ezinduei zerbitzua emateko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako akordioaren baitan.

*3. artikulua. Etxeko laguntza zerbitzuaren definizioa.*

Etxeko laguntza zerbitzua zerbitzu publiko soziala da, beren kasa baliatzeko edo familiaren nukleoari osorik eusteko arazoak dituztenentzako dena eta ongizate fisiko, psikiko eta/edo soziala bere onera ekartzeko helburua duena, bakoitzari bere prebentzio, asistentzia eta/edo birgaitze programa aplikatuta, ahal den bitartean norberaren etxean bizitzen laguntzeko.

*4. artikulua. Etxeko zerbitzuen helburuak.*

Hona hemen zerbitzuen helburuak:

— Autonomia galtzeari aurrea hartzea eta/edo autonomia galtzea konpentsatzea. Horretarako, eguneroko jarduerak eta/edo etxeko ingurunea bizitzeko baldintza egokietan mantentzeko jarduerak egingo dira.

— Arretarako sare naturala osatzen duten zainzaileei laguntza ematea.

— Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezten bultzatzea eta bakartze egoerak saihestea.

— Bizikidetzaren giroa hobetzea. Horretarako, arriskuren bat sor dezaketen egoerak saihesteko esku hartuko da.

— Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska dezakeen beharren bat sortzen denean, behar horiek antzemateko elementutzat jardutea.

— Pertsonak bere etxean bizitzen jarrai dezan erraztea.

*5. artikulua. Printzipio orokorrak.*

Zerbitzu hauek honako printzipio orokor hauen arabera emango dira:

— Normalizazio eta integrazio printzipioa: Zerbitzua erabiltzaileen etxearen, familiaren, gizartearen eta kulturaren ingurunean emango da, ahal den neurrian lehendik dauden baliabide normalizatuak erabiliz.

— Autonomia printzipioa: Ahal den gehien bultzatu behar da erabiltzailearen autonomia.

— Parte hartze printzipioa: Arretarako plana egitean, pertsonak parte har dezan bultzatu behar da.

— Orokortasun printzipioa: Ematen den arretak integrala izan behar du. Era askotako laguntzak eman behar dira, erabiltzaileek duten era askotako beharrak betetzeko.

— Profesionalizazio printzipioa: Zerbitzuko arduradunek nahiz arreta zuzeneko langileek dagokien prestakuntza tekniko izan behar dute.

— Banakakotze printzipioa: Zerbitzuaren erabiltzaileei alde zuzeneko balorazioa egingo zaie. Balorazio hori banakako arretarako plan batekin amaituko da, eta plana haien beharrei egokitu zaie.

## TITULO PRIMERO

*Artículo 1. Objeto.*

El presente reglamento tiene por objeto regular la prestación del Servicio de Ayuda al domicilio en el municipio de Lezo.

*Artículo 2. Ambito de aplicación.*

El servicio que se regula en este reglamento se desarrollará en el término municipal de Lezo dentro del ámbito de las competencias municipales en materia de servicios sociales y de los acuerdos con la Diputación Foral de Gipuzkoa en relación a la prestación del servicio a las personas dependientes.

*Artículo 3. Definición del Servicio de Ayuda a Domicilio*

El Servicio de Ayuda a Domicilio, es un servicio público de carácter social que se dirige a familias o personas que tengan dificultades para valerse por sí mismas o mantener el núcleo familiar completo, con objeto de restablecer su bienestar físico, psíquico y/o social mediante un programa individualizado de carácter preventivo, asistencia y/o rehabilitador, contribuyendo a que puedan vivir en su hogar mientras sea posible.

*Artículo 4. Objetivos de los servicios domiciliarios.*

Serán objetivos de estos servicios:

— Prevenir y/o compensar la pérdida de autonomía, prestando ayuda para realizar las actividades de la vida diaria y/o para mantener el entorno doméstico en condiciones adecuadas de habitabilidad.

— Prestar apoyo a las personas cuidadoras que constituyen la red natural de atención.

— Favorecer la integración de las personas usuarias en su entorno comunitario evitando situaciones de aislamiento.

— Mejorar el clima convivencial mediante intervenciones tendentes a evitar situaciones que entrañen algún riesgo.

— Servir como elemento de detección de situaciones de necesidad que pudieran requerir la intervención de otros servicios.

— Favorecer el mantenimiento de la persona en su domicilio.

*Artículo 5. Principios generales.*

La prestación de estos servicios se regirá por los siguientes principios generales:

— Principio de normalización e integración: El servicio se prestará en el ámbito doméstico, familiar, social y cultural de las personas usuarias, utilizando en la medida de lo posible los recursos normalizados existentes.

— Principio de autonomía: Se deberá fomentar al máximo posible la autonomía de la persona usuaria.

— Principio de participación: Se deberá fomentar la participación de la persona en la elaboración del plan de atención

— Principio de globalidad: La atención que se preste deberá ser integral, ofreciéndose una ayuda de carácter polivalente para la cobertura de una amplia gama de necesidades de las personas usuarias.

— Principio de profesionalización: Tanto los responsables del servicio como el personal de atención directa deberán tener la cualificación técnica correspondiente.

— Principio de individualización: Todas las personas usuarias de este servicio serán sometidas a una valoración previa que concluirá en la definición de un plan de atención individualizado adaptado a sus necesidades.

— Osagarritasun printzipioa: Laguntza hau beste gizarte laguntza batzuekin batera eman ahal izango da.

— Prebentzio printzipioa: Prebentzioa kontuan izan behar du zerbitzuak. Izan ere, erabiltzaileak okerrera egitea eta horren ondorioz datorren instituzionalizazioa saihestuko dira.

## BIGARREN TITULUA

### ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

#### I. KAPITULUA. ZERBITZUKO ETA ZERBITZUZ KANPOKO JARDUERAK ETA HAIEN EZAUGARRIAK

##### 6. artikulua. Zerbitzuko eta zerbitzuz kanpoko jarduerak.

Etxeko laguntzatzat ulertuko da erabiltzailearen etxean etxeko lanak egitea, erabiltzailea zaintzea, eta laguntza ematea gizartearen eta komunitatearen aldetik, etxeko bizi kalitatea hobetzeko.

6.1. Zehazki, zerbitzuko jardueratzat joko dira honako hauek:

1) Etxeko laguntzako jarduerak:

a) Elikadurarekin lotura dutenak:

— Janaria prestatzen laguntzea.

— Janaria erostea.

b) Jantziekin lotura dutenak:

— Etxean arropa garbitzen laguntzea.

— Arropa pasaratzea.

— Arropa ordenatzea.

— Etxean arropa lisatzea.

— Arropa erosten laguntzea.

c) Etxebizitza mantentzearekin lotura dutenak:

— Garbiketa orokor handiak izan ezik, etxebizitza garbitzea eta mantentzea.

— Ohea egitea.

— Etxean egin behar diren ohiz kanpoko garbiketak egitea.

— Jabekideen komunitatearenak diren tokiak garbitzea.

2) Laguntza pertsonaleko jarduerak:

Honako hauek hartuko dira eguneroko bizitzako laguntza pertsonaleko jardueratzat:

— Garbiketa eta higiene pertsonalak (barruan sartzen da pertsonaren jantziak eta oheko arropa aldatzea).

— Ohetik jaikitzeo, oheratzeko eta eserlekutik altxatzeko laguntza ematea.

— Janzten eta jaten laguntzea.

— Medikua adierazitako ahoz hartzeko botikak kontrolatzea eta botiken segimendua egitea.

— Etxean mugitzeko laguntza ematea.

— Etxetik kanpo lagun egitea izapide pertsonaletan: Bankuan, osasun arloan, errekurtsioak izapidetzen, dokumentazioa eskatzen eta ematen.

— Etxe ingurunean egin beharreko joan-etorrietan laguntzea: Haurtzaindegietara, ikastetxeetara egin beharreko joan-etorrietan laguntzea, gizarte zerbitzu espezializatuak garraioak hartzen laguntzea.

— Lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzua.

— Principio de complementariedad: Esta prestación podrá articularse con otras prestaciones sociales.

— Principio de prevención: La prestación del servicio deberá tener en cuenta el aspecto preventivo para evitar el deterioro de la persona usuaria y la consecuente institucionalización.

## TITULO SEGUNDO

### SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

#### CAPITULO I. ACTUACIONES INCLUIDAS Y EXCLUIDAS EN EL SERVICIO Y CARACTERISTICAS

##### Artículo 6. Actuaciones incluidas y excluidas.

Se entenderá por ayuda a domicilio la realización, en el domicilio de la persona usuaria, de tareas de atención doméstica, y de cuidado personal, con el fin de mejorar la calidad de vida en el hogar.

6.1. En concreto, se considerarán incluidas en este servicio las siguientes actuaciones:

1) Actuaciones de apoyo doméstico:

a) Relacionadas con la alimentación:

— Apoyo en la preparación de comidas.

— Compra de alimentos.

b) Relacionadas con el vestido:

— Apoyo en el lavado de ropa en el domicilio.

— Repaso de ropa.

— Ordenación de ropa.

— Planchado de ropa en el domicilio.

— Apoyo en la compra de la ropa.

c) Relacionadas con el mantenimiento de la vivienda:

— Limpieza y mantenimiento de la vivienda, no incluyendo la realización de grandes limpiezas generales.

— Hacer la cama.

— Limpiezas extraordinarias del hogar.

— Limpieza de espacios pertenecientes a la comunidad de propietarios.

2) Actuaciones de apoyo personal:

Se considerarán actuaciones de apoyo personal en actividades básicas de la vida diaria:

— El aseo e higiene personal, incluido el cambio de ropa personal y cama.

— La ayuda para levantarse, acostarse e incorporarse del asiento.

— Ayuda en el vestir y en el comer.

— Control y seguimiento de la administración de la medicación oral, señalada por el médico.

— Apoyo en la movilidad dentro del hogar.

— El acompañamiento fuera del hogar en gestiones de carácter personal: Bancarias, de salud, tramitación de recursos, solicitud y entrega de documentación, etc.

— Acompañamiento en traslados fuera del hogar, pero siempre en el entorno domiciliario: Guarderías, centros escolares, transporte centros de servicios sociales especializados, etc.

— Servicio de compañía y paseos.



## 3) Beste jarduera osagarri edo berezi batzuk:

Egoera berezietan, zerbitzuaren helburuak lortzeko nahitaezkotzat jotzen diren beste ekintza batzuk egin daitezke:

— Zerbitzu normalizatua ezarri baino lehen, higie-ne arazo larriak dituzten etxeetan garbiketa orokorrak egitea.

— Higie-ne eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea, betiere osasun agintaritzarekin lankidetzan arituta.

— Beste zerbitzu batzuk, baldin eta Gizarte Ongizateko Udal Zuzendaritzak/Agintaritzak edota udaleko gizarte zerbitzuek berariaz baimendutakoak badira.

6.2. Zerbitzutik kanpo honako jarduera hauek geratzen dira:

— Etxe berean bizi diren familiako kideei edo adiskideei arreta zuzena ematea, baldin udal zerbitzu teknikoaren aburuz zerbitzuaren erabiltzaile ez badira.

— Etxean bizi diren gainerako pertsonen zuzenean mesede egiten dieten etxeko lanetan laguntzea.

— Osasun arloko jarduerak, jarduera horiek egiteko berarizko prestakuntza behar bada (injekzioak ipintzea, tentsioa hartzea, zundak erabiltzea, ultzerak eta eskarak tratatzea, eta ezagutza espezializatuak eskatzen dituzten zenbait botika ematea).

— Etxean konponketa garrantzitsuak egitea (pintatzea, papera ipintzea).

— Lehen atalean zehaztu ez diren garbiketa lanak egitea.

— Udaleko zerbitzu teknikoek prestatutako txostenen aurreikusten ez diren zeregin guztiak.

7. artikulua. *Etxeko laguntza zerbitzuaren ezaugarriak.*

Etxeko laguntza zerbitzua onuradunen etxe partikularretan, propioetan edo onuradunen familiakoetan, emango da, Lezoko udalerrriaren barruan.

Onuraduna familiako kideen etxeetan txandakatuta bizi bada, zerbitzua etxe batean baino gehiagotan eman ahal izango da, baldin etxea Lezoko udalerrian badago, araudi honetako 8. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera.

## 1) Arretarako egunak:

— Oro har, zerbitzua urte osoan emango da astelehenetik ostiralera bitartean.

— Izaera mugatuarekin, zerbitzua asteburuetan eta jaieguetan eskaini ahal izango zaie, balorazio teknikoaren arabera familiako laguntzarik edo gizarte laguntzarik ez duten pertsonen, bai eta beren egoeratik arriskuan egon daitezkeenei nahiz hirugarren batzuk arriskuan jar ditzaketenei ere.

Eusko Jaurlaritzak ofizialki jaieguntzat onartutakoak joko dira jaiegun.

## 2) Zerbitzuaren iraupena:

Pertsona bakoitzaren beharren azterketa eginda jarriko da zerbitzuaren iraupena. Zerbitzuaren gehieneko iraupena egunean hiru ordukoa izango da, hau da 15 ordu astean. Dena dela, artikulua honetako lehenbiziko puntuko bigarren paragrafoan adierazitako kasu berezietan, zerbitzuaren asteko gehieneko iraupena 18 edo 21 ordukoa izan daiteke.

## 3) Otras actuaciones complementarias o excepcionales:

Atendiendo a circunstancias especiales podrán prestarse otras actuaciones que se consideren imprescindibles para lograr los objetivos del servicio:

— Limpiezas generales en domicilios con graves problemas de higiene, previo al establecimiento del servicio normalizado.

— Vaciado y limpieza de domicilios con graves problemas de higiene y salubridad en colaboración con la autoridad sanitaria.

— Otros servicios, siempre que sean expresamente autorizados por la Dirección/Jefatura municipal de Bienestar Social/por los servicios sociales municipales.

6.2. Se consideran actuaciones excluidas de este servicio las siguientes:

— Atención directa a miembros de la familia o allegados que habiten en el mismo domicilio y no se consideren personas usuarias del mismo por la valoración de los servicios técnicos municipales.

— Actuaciones de apoyo doméstico cuya realización favorezca directamente a las demás personas que habiten en el domicilio.

— Actuaciones de carácter sanitario, que precisen una formación específica del personal que lo realiza (poner inyecciones, tomar la tensión, manejo de sondas, tratamientos de úlceras y escaras y suministros de medicación que impliquen conocimientos específicos).

— Realización de arreglos importantes en el hogar (pintar, empapelar).

— Limpiezas no especificadas en el primer apartado

— Todas aquellas tareas que no estén previstas en el informe elaborado por los servicios técnicos municipales.

*Artículo 7. Características del Servicio de Ayuda Domiciliaria.*

El servicio de ayuda domiciliaria se prestará en los domicilios particulares, propios o de las familias de las personas beneficiarias, dentro del término municipal de Lezo.

Teniendo en cuenta la posibilidad de que la persona beneficiaria se encuentre en situación de rotación familiar, se podrá prestar el servicio en uno o más domicilios, siempre que se hallen dentro del término municipal de Lezo en los términos previstos en el artículo 8 del presente Reglamento.

## 1) Días de atención:

— Con carácter general, el servicio se prestará durante todos los días del año de lunes a viernes.

— Con carácter limitado se podrá prestar el servicio los fines de semana y festivos, en función de la valoración técnica a personas que no cuenten con ningún apoyo familiar o social y su situación pueda presentar un riesgo para su integridad y la de terceros.

Se entiende por festivos los así declarados oficialmente por el Gobierno Vasco.

## 2) Intensidad del servicio:

Los límites temporales de prestación del Servicio se establecerán en función de la evaluación individualizada de las necesidades de las personas usuarias. La prestación máxima será de tres horas al día, es decir 15 horas a la semana. Este máximo semanal podrá ser de 18 o 21 horas en los casos excepcionales recogidos en el punto 1) párrafo segundo de este mismo artículo.

15 minutukoak baino motzagoak ez diren zatitan zatituko da ordutegia.

Erabiltzaile bakoitzak izango duen zerbitzuaren iraupena lehen xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera erabakiko da.

### 3) Arreta orduak:

Zerbitzuaren ordutegia malgua eta egunekoa da, 7:00etatik 22:00etara bitartekoa, hain zuzen.

— Laguntza pertsonaleko zerbitzuetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, eskatzailearen ordutegietako ohiturak eta beharrak kontuan hartuta.

— Gainerako laguntza zerbitzuetan, udal teknikariak ezarriko du ordutegia, zerbitzua eskaintzen duen erakundearekin batera. Zerbitzua ematen duen langileak duen ordutegiaren arabera antolatuko da arreta emateko ordutegia.

## II. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK

8. artikulua. *Erabiltzaileak zehaztea: Sartzeko baldintza orokorrak.*

### A) Erabiltzaileak zehaztea.

1. Etxeko laguntza zerbitzua pertsona autonomoei zuzenduta dago udal eskumenen indarrez, eta pertsona ezinduei Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hartutako akordioen indarrez.

2. Oro har, hona hemen zerbitzuaren erabiltzaileen profila: Autonomia galtzearen ondorioz, beren etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, oinarritzko etxeko lanak egiten laguntza behar dutenak, bai aldi baterako laguntza bai laguntza iraunkorra.

3. Zehazki, etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak honako hauek dira:

— Autonomia pertsonalerako zailtasunak dituzten 60 urte-tik gorako pertsonak.

— Autonomia pertsonalerako zailtasunak dituzten ezgaitasunak nahiz elbarritasunak dituzten pertsonak.

— Beren familiek zaindu ezin dituzten eta behar duten arreta eman ezin dieten adingabeak.

— Honako familia talde edo pertsona hauek: Zama gehiegi dutenak; harreman gatazkatsuak dituztenak; gizarte egoera eze-gonkorrak dituztenak; eta/edo gaixotasun fisikoen eta/edo psikikoen ondorioz arazoak dituztenak.

Eskaera pertsona multzo batentzat egiten denean, multzo horretako kide guztiek bete beharko dituzte eskatutako baldintzak. Nolanahi ere, onuradun guztiak ordeztu dituen zerbitzuaren titularra izendatu behar da. Titular hori hiltzen bada, egoitzara bizitzera joaten bada edota beste etxe batera joaten bada, etxekoen unitateko beste pertsona batek ordeztu ahal izango du.

Titularitasuna aldatzen denean, berriz ere balioztatuko dira beharrak, familiaren eta gizartearen aldetiko egoera nahiz egoera ekonomikoa.

### B) Sartzeko baldintza orokorrak.

Lehen esandako talde horietako batekoa izateaz gainera, Lezon erroldatuta ere egon behar du eskatzaileak, eskaera egin baino urtebete lehenagotik.

Baldintza hori bete ez arren, norbaitek honako hiru baldintzetako bat betetzen badu, aukera izango du zerbitzua eskuratzeko:

Las fracciones horarias se establecerán en divisiones no inferiores a 15 minutos.

La determinación del tiempo de prestación del servicio a cada usuario se realizará de conformidad con previsto en la Disposición Adicional Primera.

### 3) Horarios de atención:

El horario del servicio es flexible y diurno de 7 a 22 horas.

— En los servicios de apoyo personal, el personal técnico municipal establecerá el horario teniendo en cuenta las costumbres horarias y necesidades de la persona solicitante.

— En los demás servicios de apoyo, el personal técnico municipal junto con la entidad prestataria del servicio, establecerá los horarios en función de la disponibilidad horaria del personal que realiza los servicios.

## CAPITULO II. DE LAS PERSONAS USUARIAS

Artículo 8. *Determinación de las personas usuarias: Requisitos generales de acceso.*

### A) Determinación de las personas usuarias.

1. El servicio de ayuda a domicilio está dirigido a personas autónomas en virtud de las competencias municipales y a las personas dependientes en virtud de los acuerdos adoptados con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Con carácter general el perfil de los usuarios de este servicio se corresponderá con el de aquellas personas y/o grupos familiares que requieran, en razón de su pérdida de autonomía, la intervención temporal o permanente de un servicio de apoyo en las actividades básicas de la vida cotidiana para continuar residiendo en su domicilio habitual.

3. Con carácter específico podrán ser personas usuarias del servicio de ayuda a domicilio:

— Las personas mayores de sesenta años con dificultades en su autonomía personal.

— Las personas con discapacidad o minusvalía con dificultades en su autonomía personal.

— Los menores de edad cuyas familias no puedan proporcionarles el cuidado y atención que requieren.

— Los grupos familiares o personas con excesivas cargas, conflictos relacionales, situaciones sociales inestables y/o problemas derivados de enfermedad física y/o psíquica.

Cuando la solicitud se realice para un colectivo de personas deberán cumplir los requisitos de acceso todos sus miembros. Se designará un titular del servicio que represente a todos los beneficiarios que podrá ser modificado a favor de otra persona beneficiaria de la unidad convivencial cuando aquél fallezca, ingrese en un centro residencial o se traslade a otro domicilio.

El cambio de titularidad conllevará una nueva valoración de necesidades, situación socio-familiar y situación económica.

### B) Requisitos generales de acceso.

Además de pertenecer a alguno de los colectivos anteriormente indicados, el solicitante deberá estar empadronado con un año de antelación a la fecha de la solicitud, en el término municipal de Lezo.

Podrán acceder al servicio aquellas personas que no cumpliendo el requisito anterior se encuentren en alguna de estas tres situaciones:

1. Familia biltzeko bizitokiz aldatu, eta Lezora joandako pertsona izatea, eta pertsona horrek jatorriko udalerrian etxeko laguntza jaso izana ordura arte. Eskaera egitean Lezon erroldatu beharko du. Era berean, jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du, etxeko laguntza jaso duela egiaztatuz.

2. Familiako laguntza jasotzearen, hainbat udalerritako etxeetan txandaka bizi den pertsona izatea. Horrez gain, erroldatuta dagoen udalerrian etxeko laguntza zerbitzuaren onuradun izatea. Jatorriko udalerriko gizarte zerbitzuen ziurtagiria aurkeztu beharko du, etxeko laguntza jasotzen duela egiaztatzeko.

3. Familia biltzeko, udalerrri honetara etorrita, zerbitzua justifikatzen duen menpeko egoera duen pertsona izatea. Eskaera egitean Lezon erroldatu beharko du.

#### 9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak.

Batetik, 2004ko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko (Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen du) II. kapituluko lehenengo atalean onartutako eskubideak dituzte etxeko zerbitzuaren erabiltzaileek. Bestetik, honako eskubide hauek dituzte:

— Zerbitzua EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko eskubidea.

— Zerbitzua ematen duen langilea nahiz zerbitzuaren intentsitatea alda dezaten eskatzeko eskubidea.

— Zerbitzuaren baldintzak aldatu baino lehen jakiteko eskubidea.

#### 10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Batetik, 2004ko apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuko (Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen du) II. kapituluko bigarren atalean onartutako betebeharrak dituzte etxeko zerbitzuaren erabiltzaileek. Bestetik, honako betebeharrak hauek dituzte:

— Zerbitzua ematen duten langileei lana erraztea, haiekin lankidetzan aritzea eta langileok ongi tratatzea.

— Norberaren egoera sozio-ekonomikoa baliozta dezan, gizarte langileari beharrezko dokumentuak ematea eta etxean sartzen uztea, nola balioespen hori egiteko orduan hala jarraipena egiteko bisitetan.

— Etxean bizitzea.

— Aldez aurretik hitzartuta ez dagoen laguntza emateko eta udalaren ebazpenean sartuta ez dauden pertsonak zaintzeko ez eskatzea.

— Etxeko laguntza zerbitzua ematen duen langilea lanak egiten ari den bitartean erabiltzailea etxean egotea.

— Zerbitzua eten dezaketean joan-etorrien berri aldez aurretik ematea.

— Etxeko langileei etxeko lanak nahiz esleitutako lanak egiteko beharrezkoak diren tresnak eta materialak ematea.

— Ematen den zerbitzua aldatzeko modukoak diren bat-bateko gertaeren berri ematea udal langile teknikariei.

1. Persona que por agrupamiento familiar se traslada a Lezo y que en el municipio de procedencia era, hasta la fecha de traslado, beneficiario de ayuda domiciliaria. En el momento de la solicitud deberá empadronarse en Lezo y aportar el certificado del los Servicios Sociales del municipio de procedencia, en el que se haga constar la ayuda domiciliaria que recibe.

2. Persona que rota en domicilios de diversos municipios por motivos de apoyo familiar y que en el municipio en el que está empadronado es beneficiario del servicio de ayuda domiciliaria. Deberá aportar el certificado del los Servicios Sociales del municipio de procedencia, en el que se haga constar la ayuda domiciliaria que recibe.

3. Persona que, por agrupación familiar, se traslada a este municipio y presenta una situación de dependencia que justifica el servicio. En el momento de la solicitud deberá empadronarse en Lezo.

#### Artículo 9. Derechos de las personas usuarias.

Además de lo establecido en el Capítulo II, Sección Primera del Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, las personas usuarias de los servicios domiciliarios tendrán derecho a:

— Recibir el servicio en cualquiera de las lenguas oficiales de la CAPV.

— Solicitar la modificación del personal auxiliar que presta el servicio y la intensidad del mismo.

— Ser informados previamente de cualquier modificación en las condiciones de/ servicio.

#### Artículo 10. Obligaciones de las personas usuarias.

Además de lo establecido en el Capítulo II, Sección Segunda del Decreto 64/2004, de 6 de abril, por el que se aprueba la carta de derechos y obligaciones de las personas usuarias y profesionales de los servicios sociales en la Comunidad Autónoma del País Vasco y el régimen de sugerencias y quejas, las personas usuarias de los servicios domiciliarios tendrán obligación de:

— Facilitar, colaborar y tratar con corrección y respeto a los profesionales intervinientes en la prestación del servicio.

— Aportar al trabajador social los documentos necesarios para valorar su situación socio-económica y posibilitarle el acceso a la vivienda para la realización de dicha valoración y posteriores visitas de seguimiento.

— Tener residencia efectiva en el domicilio.

— No exigir ninguna prestación que no esté previamente acordada, ni la atención a personas que no estén incluidas en la resolución municipal.

— Permanecer en el domicilio durante el tiempo en el que el personal auxiliar del servicio a domicilio esté prestando el servicio.

— Comunicar con antelación los traslados que pudieran suponer la interrupción del servicio.

— Poner a disposición del personal del servicio domiciliario los útiles y materiales necesarios para la realización de las tareas domésticas y personales asignadas.

— Comunicar con la suficiente antelación al personal técnico municipal, las circunstancias personales sobrevenidas que conlleven una alteración en cualquiera de los aspectos de la prestación del servicio que se realiza.

— Etxeko laguntza zerbitzuko langileak lan egiten izan duen edozein irregulartasunen berri ematea gizarte langileari.

— Orduko ezarritako prezioa adierazitako epean ordaintzea emandako zerbitzu bakoitzagatik, (ordu horietan sartzen dira, halaber, eskatzaileari egotz dakioken arrazoiren bategatik bete gabeko orduak).

— Gizarte langileari norberaren egoera sozio-ekonomikoan izandako edozein aldaketaren berri ematea.

— Zerbitzua jasotzen ari den bitartean hartutako gaixotasun infekzioso-kutsakorren berri ematea udaleko pertsonal teknikoari, etxeko laguntzaileek hartu beharreko babes neurriak har ditzaten.

— Udal teknikariari zerbitzua zein bankuren eta zein kontu korronteren bidez ordainduko den esatea.

— Gipuzkoako Foru Aldundiari menpekotasunaren balorazioa eta/edo minusbaliotasunaren kalifikazioa egin dezan eskatzea.

Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, zerbitzua eten edo iraungi egingo da, araudi honetan onartutako prozeduraren bidez.

### III. KAPITULUA. SARTZEKO PROZEDURA

#### 1. SEKZIOA. Eskatzaileen zerrendan sartzea

##### 11. artikulua. Eskatzaileen zerrenda.

Zerbitzua eskatzen dutenen zerrendaren bidez ezartzen dira zerbitzua emateko lehentasunak. I. eranskineko baremoa oinarri hartuz lortutako puntuazioaren arabera lortzen da lehentasuna.

Eskaera guztiak betetzeko aurrekonturik ez dagoenean, itxaron zerrenda egongo da etxeko laguntza zerbitzuan.

Zerbitzua eskatzen duten pertsona beregainen nahiz besteen beharra dutenen zerrendak batera gestionatuko dira, baldin eta administrazio eskudunek erabiltzaileen arabera zerbitzua eskaintzeko adina diru-hornidurarik bada behintzat. Administrazio eskudun batek edo biek ez badute diru-hornidura hori izatea bermatzen, itxaron zerrendak aparte gestionatuko dira.

Zerbitzua onartu ez zaien interesdunek beren espedientea berrikusteko eska dezakete, behar bezala egiaztatuta, haien egoera aldatzeagatik lortutako balorazioa alda daitekeenean.

Zerbitzua eskatzen dutenen zerrenda publikoa da. Hala ere, arlo honetan aplikagarriak diren araudien ondoriozko mugak ezar daitezke, pertsonen intimitate eskubidearekin lotura dutenak, batik bat. Eskatu ondoren, interes legitimoa dutela egiaztatzen dutenei zerrenden edukiri buruzko ziurtagiriak emango zaizkie.

##### 12. artikulua. Zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea.

Araudi honetan araututako etxeko laguntzari dagokion zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzeko, interesdunak inprimaki normalizatua bete beharko du. Inprimakia dagokion organoari zuzendu beharko dio, eta eskatzaileak sinatu beharko du. Inprimakia udalak bereziki gaitu dituen sarrera erregistroetan aurkeztu beharko du. Bestela, Estatuaren Administrazio Orokorrekoa edo Autonomia Erkidegoen Administrazioa den

— Informar al trabajador social de posibles anomalías observadas en el desempeño de sus tareas por parte del personal auxiliar domiciliario.

— Abonar la aportación asignada del precio-hora, en el plazo señalado por cada servicio prestado, y por los servicios asignados pero no realizados por causa imputable al solicitante.

— Comunicar al trabajador social municipal cualquier variación significativa de su situación socio-económica.

— Informar al personal técnico municipal de aquellas enfermedades infecto-contagiosas que sobrevinieran durante la prestación del servicio a fin de tomar las medidas de protección necesarias por parte de las auxiliares de ayuda a domicilio.

— Facilitar al personal técnico municipal la entidad bancaria y el número de cuenta corriente por la que se realizará el pago de la aportación al precio establecido.

— Solicitar a la Diputación Foral de Gipuzkoa la valoración de la dependencia y/o la calificación de minusvalía.

El incumplimiento de alguna de estas obligaciones dará lugar a la suspensión o extinción del servicio de conformidad con el procedimiento regulado en este reglamento.

### CAPITULO III. DEL PROCEDIMIENTO DE ACCESO

#### SECCION 1.ª Del acceso a la lista de demandantes

##### Artículo 11. Lista de demandantes.

La lista de demandantes del servicio es el instrumento a través del que se ordena la prioridad en la asignación del servicio, según la puntuación obtenida aplicando el baremo de acceso establecido en el anexo I.

Existirá lista de espera del servicio de ayuda a domicilio cuando falte dotación presupuestaria para hacer frente a todas las solicitudes.

Las listas de solicitantes autónomos y dependientes se gestionarán conjuntamente siempre que exista dotación económica suficiente para hacer frente a la prestación del servicio por parte de las administraciones competentes en función de las personas usuarias. Si dicha dotación no estuviera garantizada por una o ambas administraciones competentes, las listas de espera se gestionarían de manera independiente.

Las personas interesadas a las que no se les hubiera admitido directamente al servicio, podrán instar, acreditándolo convenientemente, la revisión de su expediente cuando la variación de sus circunstancias personales pudiera modificar la valoración efectuada.

La lista de demandantes del servicio es de carácter público, sin perjuicio de las limitaciones derivadas de la normativa aplicable en la materia, y especialmente en lo referente al derecho a la intimidad de las personas. Previa solicitud, serán expedidas certificaciones relacionadas con su contenido a quienes acrediten un interés legítimo.

##### Artículo 12. Solicitud de Acceso a la lista de demandantes del servicio.

